EDORTA JIMENEZ

Speed gauak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1991 Edorta Jimenez
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1991ko abendua
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Zitrona

Aurpegi ferdeko izurri berria bezala, bilar-mahaiak beren presentzia bazter guztietara hedatzen hasi ondoko bigarren urtean izan zen, jertseien ordezalkondarak nagusi izaten diren hilean, Andra Maria Ama Birjina –eta barka kontraesana– Cova de Irian agertu ei zeneko egunaren ez dakit zenbatgarren urteurrenean. Barandiaran eta halakoen arauerako euskaldun hutsaren sudurrak diseinatu ohi duen marraren antzeko aldats-behera larria osatzen zuen nire finantzen bilakaera-grafikoak. Nire zorra sudurtzuloan eskegitako odol-tanta zen, gorri eta tristea, behearen azpira jaustear.

Ekonomi-egoera halakoa bazen ere, erabili egin nuen kutxak eskaintzen zidan konfidantzazko tartea, txartel automatikoaren bidez dirua mailegu gisa ateratzeko. Zenbait egunen buruan, baliogabetu egin zidaten zorioneko txartela. Ez dute fondorik ez duen bezerorik onartzen kutxek.

–Eurentzat okerrago, Gintonito –pentsatu nuen inongo ardura barik.

Mendekua zelan gertatu hausnartzeari ekin nion behingoan. Laster otu zitzaidan horretarako era; mendekubidea, hain zuzen.

Aurrerantzean, etxean egin beharrean lo, kutxazain automatikoak izaten diren kaiola-gelazuloetan egingo nuen berba Orfeorekin. Egia da baita, berba ezezik beste zertxobait ere egin behar izango nuena, mendekua, morala izateaz gain, materiala ere izan zedin.

Dirua atera eta halako gorabeheretarako baliogabeturik izan arren kutxa-txartela, ateak irekitzeko gauza zen artean ere plastiko-zati hura, erraz frogatu ahal izan nuenez. Jaietan izaten nuen arazoa, lo egiteko lekuarena eta guzti hori, konponduta nuen bapatean. Zertan eta zelan ez ote zitzaidan lehenago otu baina? Goizaldeko edozein ordutan, berdin dio zeinetan, kutxazain automatikoren bat idoro, atea txartel baliogabetuaz zabaldu, krisketaz itxi barrukaldetik eta belarrietako izurrak lisatzera, burukotzat zamarra erabilita, lasai baino lasaiago, kategoriko aterpean, goxo-goxo. Bezeroren bat agertuz gero

–diru bila edo– ni, trankil. Poliziari abisua eman orduko, inoiz inork abisurik ematekotan ere, aspaldi hanka eginda egoten nintzen. Hasierakoetan behintzat.

Hasieran diot, ze gero, bestela egiten hasi nintzen eta. Ahardikume haiek niri egindakoa baino handiagoa egin behar nielakoan nik eurei, horrexetan nenbilen aspalditik. Hala da ze, erregaluak biltzeko papertxo zurian idatzi nuen, idazkera ttukunez:

Ez dabil / No funciona

Kutxazain-kaiola horietako ateetan eskegitzen nuen oharra lotara aurretik. Harrez gero, ez zidan aurreragokoetan bezain beste bezerok kilikilirik egin potruetan, ze, lehenago, ez dakit zenbat eta zenbat morroi edo atsok egiten zidan bisita. Eurak Palankara abiatu aurretik batez ere. Dena dela, ez didate ordaintzen psikiatrizagai dagozen jendetzen zerrenda osatzearren, ez eta oharrik errazena ere irakurtzen ez dakien analfabeto-saldo ikaragarria zenbatzeagatik ere, neure oroitzapenak, Antonio Gamboa, lagunentzat Antoito Gamborio, beste askorentzat Gintonito Kanbodrio, ni neu naizenhonen nire Memori-liburua

idaztearren baino. Zeren hemen azalduko ditudanen ondorioz atxilotua, salatua eta ezelango errurik gabe gartzelaratua izan nintzelarik, berriro kalean izandakoan asteburu gogaikarri hartakoak argitzen saiatuko nintzela agindu bait nion nire buruari, eta, gainera, argitaratzearren ordainduta, editoreari men egitea hobe. Gogoan dut behin bati esan behar izan niona.

–Itxita diagok, astazakil hori, ez duk ikusten ala? Ba, ipurdiko begia itsututa badaukak be, aurpegikoak itsutuago dauzkak, aldean daramaan beste kakamordo ederrari esker euki be. Ez dok kartela ikusi ala? Itxita diagok, ez diabilk, jodituta diagok. Amen! –halaxe bota nion gela barrutik aldarrika.

–Kaguen diez, izorratuta topatzen jonadaz beti euren ama putearen a-pa-rrrraaaa-tuuu potrozzzzorrrrri-ek, neska –erantzun zidan berak, ateari ostikadaka ekiten zion artean, dena nahastuz, halako katuarekin zetorren eta. Praketako zirrikitua ireki eta potruak erakutsi nizkion.

–Hoa popatik hartzera, amariko marikoi abadeki hori.

Palankanera eta halako gautxori-saldoarenak jasan beharrak ematen zidan burukomin eta kakalarririk handiena. Beraz, salto kualitatiboa eman behar nuelakoan egon nintzen handik laburrera. Arazoa aldiz, jauzia zelan egin, ez zen besterik. Ideiez husturik nengoen, basoko hondo-hondoan likido barik geratu den limoi-zati igurtziak baino xurgatuagorik nituela garunak.

Mendekua borobilagotu ezinak eragiten zidan amorru-ur lodi eta beltzak mingaitza edo, okerragoa dena, minbizia ekarri behar zidala sinesten hasita nengoela, lehertzear ja, etsipenaren alboko hurrengo tabernan gasolina-salda eskatzeko zorian, hara non aurkitu nuen Zitrona, «Katu Zaharra» izeneko alkoholtzuloan, bera aurkitu ezik beste edozein gau bezalakoa izango zen zorioneko gau madarikatu hartan. Maiatzaren hamahirukoan, bai.

Ederto beteta gibelaldeko kupelak, inguruko mozolo eta eulimando guztiekin koketeatzen ziharduen; berdin zion hari itxurak zein estaturak. Bazuen zerekin koketeatu, ala Tutatis! Hasi nintzen, hasi, neu ere, besteak bezalatsu, kakamoltzoaren inguruan ibiltzen diren eulien antze-

ra, ipurdi borobil-borobilen eremu magnetikoan galduta begiak. Bide zuzenera jo nuen.

–Antoito Gamboa naiz, ezinaren gidoigilea, zure laguntzaren premia larrian dagoen gizajo ia beti-beti jipoitua. Beste gorri bat?

Arnasarik hartzeko ere gelditu barik bota nion, eulimando-euria atertu zuen une labur bakarra aprobetxatuz.

–Oraintxe bertan pasatu nauk gintoniketara, Gintonito tontito; berdin dik ala... –ezagun zuen nire ezizena.

–Limoi barik? –moztu nion, ez bait nuen galdu nahi aukera hura.

–Hik uste, zergatik esaten zidatek Zitrona?

Irribarretsu egin zidan berba. Ipurdi mamiak bezain haragitsuak ziren beraren ezpainak. Arratsaldean karminez estali izan zituen arren –ziur– beranduko ordu hartan museoko koadro abanguardistaren bat gogorarazten zidan irudia marrazten zuen, benetan, kosmetikoaz eta edatekoezegindako nahasturak. Makilaia desitxuratuak zorarazi egiten nau. Proposamena egin nion.

–Elizako koruan,zineko «gallineroan», igogailuan, hondartzanegun argitan, ezkontzako gau berean senar berriarekin eta gainera bikotearen logelan, uda-lekuko monitorearekin eta gainera zuhaitz adarrean... Imaginatzerik ere ez daukaan lekuetan jo diat jotzekoa; hik orain dioan lekuan aldiz, burura etorri ere ez zaidak egin, ez, halako lekuan egiterik. Bale ba.

Halaxe animatu zen Zitrona, gu biok elkarrekin Arenaleko bulegoko kutxazainera joan gintezen, goizaldez, Alde Zaharreko portuan alkoholtzulo guztiek bandera gorria jasota zuten ordu gaztean.

Aukeran genuen zein «suit»etara jo. Liburuska eskaini nion, kutxazain automatikodun bulegoen zerrendak osatua, atseginena nahiz morbosoena hauta zezan. Ezkongaiek bidaia agentzian baino katalogo zabalagoa geneukan gure mizkeriak non bete erabakitzeko, zera, Bilboko zeingura kutxazain automatiko gure suit bihur zitekeen. Barbaro teknifikatu berriak ginen, gure erresumaldeko zein bazterretara jo erabakitzen, elkarren gainean zamalkatzeko behar genuen lautadaren bila. Neskaren adats horailaren azpi-

ko laborategian eragiketa ezkutuak burutu ziren. Garailearen ahotsaz erantzun zidan azkenean:

–Arenalekoan, ala neure titiak!

Erresumaldeko erdi-erdian joko genuen, bada, jotzekoa. Bertarantz abiatu ginen, urduritasunari aurre egiteko «Lucky» merkea erre eta ke.

Kutxazain automatikoa

Sanikola elizako teilatu-hegalpean lo ziren usoak, zirinaren nagusiak. Gaueko kirol saioari adi ziharduten kale garbitzaileek, FMan, irratia-parailua zarama-orgatxoan gordeta, New Yorke-ko edozein taxi-driver baino aluzinatuago guz-tiak. Benetako taxi-geralekua berriz, hutsik. Txartela atera nuen. Betiko zeremoniari sazerdo-tisa hura gehitzeak areagoturik nire ohizko arte-gatasuna, atea ireki nuen, sartu eta barrutik ix-teko maratilaz behingoan.

Ez dabil / No funciona

Oharra eskegi nuen, oinetakoek orpoetan ema-ten zidaten hazkurearen kontrako sendabidetzat erabiltzen nituen esparadrapu zatiak baliaturik operazioan.

–Plaiera merke madarikatuok! –kendu egin nituen.

–Egon apur batean, mundu guztiak ikusiko gaitik eta –agindu zidan.

Orduantxe ikusi nuen Zitronak aldean zerabilen boltsa. Itzela zen; eta ni, konturatu ere ez ordurarte, emetasun-atributuei begira urrean.

–Neurriz kanpoko konpresak erabiltzen ditun ala basoak, hautsontziak eta halakoak lekuz aldatzeko erabiltzen dun hori, aintzinako ikazkinena ematen duen zakuttoa?

Ez zidan berehala erantzun. Aladinoren larruzko koba hartatik oihal brokatua atera zuen, ene bizitza negargarrian ikusterik izan dudan ederrena, prestidigitadoreek txisteratik usoa atera izaten duten legez, magia hutsez, alegia. Nire begi zigortuon aurrean hedatu zuen, Beronikak Kristoren aurrean egin ei zuena imitatuz, alafede! Ze ordurako gutizia izerdiak bustitzen zidan bekokia eta hankartean nuen haragi puztua gurutzerik astunena egiten zitzaidan, gehiegikeria txikiena ere egon barik berbotan. Horiska zen oihala, bitxia, ez-ohizkoa. Maro-kkotik ekarritako kubritxet hura gure eztei-gaueko gelan apaindura kitzikagarria izateko deitua zen. Ezein zezeni ez zaio inoiz halako kapoterik erakutsi.

Nik beiraduran eskegitako iragarkiaren atzean berak oihala kokatzen zuen artean, kon-

tatzen hasi zitzaidan zelan ekarri zioten bitxikeria hura, alu inguruan sakon iltzatu zitzaizkion potrozorriekin batera. Aste betez jo izan ei zuen, larru eta barru, hango morroi batekin. Eta atzera berton egon arte, hara! zelako bisitariez zamatuta zetorren, konturatu ere ez bera.

Laster ilundu zen suitea.

Kanpotiko argia, oihalak iragazita heltzen zitzaigun, mehe-mehe eta hori.

–Zer moduz kendu hitunan potrozorriak; aluzorriak esan nahi dinat, hobeto berba eginda.

Honetan ez zidan hitzez erantzun. Prakak erazten hasi zen. Pantaloi beltza, estua eta hankaburuetan hari mehe finez bildua, ezeren ezkutalekua izan beharrean gainerako guztiaren apaingarri zegoena, hara sudurretatik arrabete haruntzago nuen miraria.

Anfora eritzirik agirian geratu zitzaionari, egarri izaten hasi nintzen. Erantzi nion kapritxo beltz hura, izara gisa behearen gainean jaka hedatzeko moldatu zuen aldibereko keinua –burua baino gorago ipurdia eta ukalondobelaun hutsez eusten gorputzari– dardakadan aprobetxatuz. Bilusoil agertu zitzaidan anforako ahoa, inoiz sarria

izana zena baina orduan soilduta ageri zen larrualdearen erdian. Nakarezko azalean hainbat beltzunetxo ikusi nion. Kendutako ileen hondarrak ziren, berriro hazi guran gorantz egiten.

–Hara zelan kendu nitian aluzorriak: bizarra kentzeko aitzurraz, arretaz, apurka apurka, larrua jokatuz ahaleginean, horko bizarrak kendu eta bizarrokin batera zorriak eta zorrikumeak ere euren ama putearen etxera bidaliz, goraintzi eta guzti.

Zitronaren zakuttoa benetako sorpresa-kutxa zen. Zelan egin zuenez dakidala –soraioegi nengoen haragizko keramikari begira– guiski petakatxoa atera zuen bertatik hara. Ditiburuak, petaka-ahoa, zakila, anfora... Aho bi nik, hiru berak, eta hainbeste iturri aldi berean! Zurrustada luzea jo nion guiskiari, bera nire beste botila-samari eustekotan zelarik. Bero ni, bero hura, zelan zuen gurago galdetu nion, elkarren iturrietan edatez nekatu gineneko biok.

–Halaxe egiten diate Arabia aldean –hanka biez gerrialdea inguratu zidan, «hankarkada» amoltsuan.

Atea jo zuten. Behingoan ohartu nintzen amorruz jotzen zutela ere. Hantxe egin zuen nire zakilarenak, Zitronaren ateko aurre-aurrean, sartu orduko hilda.

–Nor ote da?

–Hor kanpoan dagoen hori ez dun ohizko papalerdoetarikoa, ausartegia dun atea jotzeko eran.

Arinago askatu genituen elkarren gorputzak gorapilo beretik, eztarriak baino.

–Besteren baten jo beharko dinagu.

–Irten bedi hor barruan dagoena, poliziari deituko diot bestela. Ze karajo, kutxako zuzendaria naiz, hala da ze, badakizue, irten! –eskatu nien mailegua ez ematearen errudunarena zen ahotsa, zuzendari txakurkume zantarrarena hain zuzen. Alde baterantz apur bat kenduta brokadun oihala, berau eta leihoaren arteko zirrikitutik barrendatuz ikusi nuen putre odoltzale hura.

–Sorpresa-faktorea aprobetxatu beharra diagon, Zitrona, pelikuletan legez. Hi, irten hadi prakak jantzi barik. Putre hori zuntzunduta geratuko zain begira, zenbait segunduz behinik-behin.

Heure atzetik irtengo naun ni. Gero, Askaorantz joko dinagu biok arrapaladan.

–Ados, lagunak bizi dituk kale horretan. Hator, ba, nire ipurdi atzean –atea irekitzean entzun nizkion azken berbak dira.

Esatea eta egitea, bat izan ziren. Zitronaren berna gutiziagarriei begira geratu zen zuzendari haragizalea, txakur halakoa. Ni irten nintzenik berriz, konturatu ere ez tontolapiko hura. Okerrena izan zen, bada, espaloian aparkatzekotan zen auto etorri berriak argi azula zekarrela kapotaren gainean. Txakurrak! Eta Zitrona, hanketan turboak bailituen, abiada itzelean eta ezertaz konturatu barik. Aldarri egin nion:

–Txakurrak ditun, korri arinago, txakurrak ditun eta...

–Arto, hijos de la gran puta, arto o disparo... –Zitrona ni baino arinago hasi zen, mami borobilak plisti-plasta gora eta behera mugitzen, plisti-plasta ezker-eskuin zanbuka, zirkulu iragankorrak marraztuz aide arinean. Handitzen nabaritu nuen hankarteko gurutzea, atzera ere.

Tiro-hotsak arindu zidan Erosen ziztada; balak, Sanikolako hormaren kontra jo, jagi, des-

bideratuta itzuli eta «El Arenal» dastategian aurkitu zuen azken aterpea, kanpoko leiharra hautsi ostean. Agur croissant galduak eta atso zerbitzarien aldarte ona. Guk aldiz, geureari! Kale-kantoia, geltokia, Askao kalea, bat, bi, hiru, lau atari. Ezkerraz atea jo zuen Zitronak. Blausta jausi zen barrura eskaileretako oineraino. Behetik altxatzen lagundu esku batez nik eta ostikada itzela jo nion ateari. Danbada, ziur entzun zutena txakurrek. Ate gaineko leihotxoan zehar –ez zegoen kristalik han– argi apurra sartzen zen.

–Esa puta s'a tenío que meter por aquí, que he oío el portaso.

Ate aurrean igaro ziren txakurrak. Auzokoren batzu, balkoietara irtenda, txistuka hasi zitzaizkien. Zitronaren teilatupekoek aldiz, lo edo segitzen zuten, ez bait zen inor ere ageri han. Eskailburuetarantz begiratu genuen. Inor ere ez. Hobeto. Atso-agure gorrak eta ikasleak baino ez ziren bizi han. Gora igo genuen. Ezagutzen ditudan guztiak azken pisuetan bizi izaten dira eta. Behin goian, prakak jantzi zituen Zitronak atean jo orduko. Pausu-hots leunak aditu genituen barrutik aterantz etorten, gero eta ozenagoak.

–Eskerrak! Baten bat itzartuta diagok... –sakon hartu genuen arnasa biok, elkarren eskuak estutuz.

–Ene! Hau sorpresea!

Kanpoan, irratizko deia auto azuleztatuan.

–Etái en Askao? Quedao ahí. Ha habío un robo en la Catedral. Cobra?

Katedralean

Alde Zaharreko Barrenkale inguruko alkoholtzulo garagardotsu eta speedtsuak itxita izaten dira goizaldeko hiruretarako eta Erronda alderanzko jende jarioa eten egiten da apur bat lehentxoago.

Isilik dagoz katedrale inguruko kaleak, orain-dik ere pub finetan ari den musikak ez bait du kanpora agertzerik izaten. Geroxeago bai, bezeroak irten ahala, musika-bafadak ere barreiatuko dira, motor garesti eta auto ere garestiagoen jabeen inguruan dantzatuz Goizalde Andrearen oinek gaueko mugak ezabatzen dituzten alderantz.

Arkupetan, lotan dago atso zaharra, kartoipean eta ardo merkearen eraginpean, ederrena ei den arkupeta gotikoaren babespean. Haizearen erasoak bigunagoak dira hor, santutasunaren bermari esker ezik, hormaren beraren lodierari esker eratzen den sartunean aise, eta haize barik sartzen delako gorputza.

Beiradura koloretsuan zehar iragazita absideraino, harrizko zutabeek, kaperek eta jezarlekuek sareturiko laberintoan motelago eta koloretsuago hedatzen den argiak sikodelia kutsua eransten dio barruko giro gotikoari.

Isiltasuna hautsi duen zarata, trumoikadak baino burrunbatsuago jo duenak mututasunezko palazio horretan, harria harriaren gainean dandarrez higiarazteak sortutakoa izan da. Ezkerreko horma luzean dagoen bostgarren kaperako hilobietariko baten bere lekutik irten da harlausazko estalkia. Higidurak irekitako zirrikituan zehar agerira atera den eskua ez da San Fruktuoso berpiztuarena. San Fruktuosoren gorpu ustelgabea alde honexetako lehen kaperan dago. Hilobi hau, estalkia osatzen duten gaineko harri zatietariko bat lekuz aldatu zaiona hain zuzen ere, zaldun ezagunen batena da.

Agirian den eskuari jarraiki agertzen ari den besoari eusten dion lepo berean izan bide den buruko garunaldean, ondo artxibatuta gorde dira katedralarekiko xehetasun txikienak ere antza, ezen atzamar bik hilobi alboan erdi ezkututa da-

goen argi-etengailuari eragin bait diote, bonbila bakarra piztuaraziz.

Bonbila inguruko argizko koroiaren mugak oso estuak dira. Kanpotik ezin igarri argitasun aldaketa txikia. Dena dela, besoaren ostean burua eta horren atzean gorputz enborra atera ondoren harria osorik alboratu, ez apurtzearren astiro mogituz, gorputz guztia atera eta harlauza bere aintzinako lekura eroan du atzera ere hilobiko egoiliarrak, dagoeneko ohiak. Amata egin du argia ostean.

Hiru egun lehenago katedralari buruzko azken xehetasunak puzzlean ondo kokatzera etorri zen bertora lagunek Miztegi esaten dioten Ernesto, orain, sakristiarako bidean, ondo gogoratzen zaionez.

Sartu bezain laster, han ikusi zuen andratxo ileurdina, aldare nagusitik sakristiarantz etorten, halako kaliza –ostiontzia– zekarrela eskuetan. Aurpegian zalantza izpirik ere agertarazi gabe esan zion, ahots eztiaz, «klaustroa ikusi gura neuke, posible balitz halako egunen baten», eta atsoak aurpegira begiratu, «zuk zelan ete dakizu klaustroarena?», galdetzen bezala.

«Liburu honetan irakurri dot. Bilboko joyarik ederrenetarikoa dala, benetan bitxia», liburua atera zuen Ernesto Miztegik, erakusteko.

Laugarren kaperan beste hilobi bat.

«Aqui yacen los muy onrrados Juan Fernández de Arbieto y doña Mary Sánchez de Vitoria, su mujer, que santa gloria ayan, lo cuales edyficaron y fundaron esta y capilla y malpasaron deste mundu alotro el nueve de agostode 1504».

Inskripzioa irakurtzean, «a ze putada», pentsatzen du, «Aste Nagusia baino astebete lehenago hil ziren, aberats madarikatuok».

Atso gizaixoak berriz, pobrea eman zion. Adinaren adinaz umetuta eritzi zion. Ernestok liburua erakutsi zionean, «hori berton saltzen duguna da, pasa sakristiara» esan eta han erakutsi zion atea.

Erraz sinistu zion sakristanesak. Sakristiaren alboko atea orduan ikusi zuen bezala dago, gailtzarrapoz itxita. Ate hori zuzenean klaustrora buruz dagoen arren, eta giltzarrapoa askatzea ume jokoa bada ere, sakristiako atera jo du Ernestok.

Giltzmihia zeharka ebakita du ate horrek, alde laburrena katedrale barruko alderantz duelarik. Beraz, erraza daatzeko poltsikotik atera duenburdinezko xafla luzengamalgua atea eta ate-zangoaren arteko zirrikituan sartuz irekitzea. Klak! Gora eta behera saiatu ondoren zabalik dago atea.

Sakristiako lau hormak osorik estaltzen ditu behearen gainetik norberaren burua baino arrabete parea goragoraino heltzen den armairu-sailak. Hormarik luzeenetan santu bina dagoz, armairuen gainean. Eliza Katolikoaren Lau Aitak dira, zurezko begiak itsu, nahiz eta zurezko betaurrekoak jarri. Egurrezko Aitok ezin ikusi Ernestoren mugimendurik. Ernestok aldiz, behiolakoan ez zion begirik kendu gainetik atsoari sakristiara sartutakotik aurrerakoan.

Gela erdian dagoen mahai erraldoiaren tiradore batetik, sartu eta eskuinaldeko ertzean dagoenetik hain zuzen, giltz-sorta atera zuen atsoak, «zeuk erakutsi klaustroa, nik gaixoa bisitatu behar dut-eta», halaxe esan ondoren han zegoen abadeak.

Tiradore horrexetara jo du artez artez Ernestok. Hara giltzak, zein berari dagokion atearen izena idatzita guztiak.

Armarios-sacristía

dioenaz atez ate frogatzen hasi da. Halako batean katedraleko altxorrak gordetzen dituen atea ere ireki du. Begien aurrean ditu zidarrezko kaliza, bitxiez apainduriko kustodia –edo ekisaindua, Miztegik paperetan irakurri duenez– eta prozesioetan eroan ohi den horietariko beste garestiagoa.

Ezta pentsatu ere halakorik eroaterik, Elizari kentzen zaizkion gauzak amorru bereziz bilatzen bait dira. Ate-sail osoa ireki duenean ja, bertan agertu zaio bilatutakoa. Gardoki Kardenalak oparituriko mezajantzi urrez brodatua dagoen armairu berean dagoz hamabostgarren mendeko mezajantzi zaharrak. Tisu gorrian urrez brodaturikoaren balioa kalkulatzen hasten da, eroan behar dituen jantzi zaharrak plastikozko boltsan sartu bitartean.

Kardenalaren opariak ez zuen, ez, katedralean ezkutatu zen eguneko ezkont-zeremonian emaztegaiak zeraman jantziak baino garestiago

ematen. Izendun bi haien ezkontzan bildu zirenen jantzi guztiak batera erosiz gero, ama putearen txakur kumeok! Txekeko digitoak imaginatzen ahalegindu zen. Ezin.

Bart arratsean organoak musika barrokoari utzi eta meza hasi zenerako, katedralea gonbidatuz baino kuzkuzeroz beteago zegoen. Ezkutalekua bilatzeari ekin zion Ernestok, aixkiriren baten laguntzaz.

«Horixe duk lekurik hoberena», zaldun ezezagunaren hilobia seinalatuz; «erreparatu diok nobiaren triparen tamainoari?».

Organoak musika ezin sublimeagori ekin, intsentsuak inguratsa usain zorabiakorrez bete eta apezpikuak ostia altxatu zuenean gorriskaz tindatu ziren neskaren masailak eta konortea ere galdu behar zuela eman zuen une batez. Gelditu egin ziren, airean eutsiz ostiari, apezpikuaren eskuak. Senargaiak neskaren gerri gizenera eraman zuen ezkerreko besoa.

Publikoa txunditu egin zen. Zirarra elektrikoak jo zituen baita atean zain zien gorilen bihotz metalikoak eurak ere.

Begi guztiak iltzatu ziren eskenan.

Venusen hiruki iletsuak baino miresle gehiago zuen, bat batean, apezpikuak eta ezkongai biek osatzen zuten hirukiak.

Bilboko harako egunkari neofrankista hark «momentos de intensa emoción los vividos ayer en la Basílica Catedral de Nuestro Señor Santiago durante la magnífica boda...» eta «...a quienes deseamos muchos hijos y mucha felicidad en su nueva...» eta abar esan zuen biharamunean.

Ernesto eta aixkiria une horrexetaz baliatu ziren zaldun ezezagunaren hilobiko estalkia mugitu eta, lehena bertan sartutakoan, atzera itzularazteko beraren lekura harria bigarrenak.

Sei ordu eman ditu, beraz, hilobi barruan Ernestok, ateak itxi orduko sakristanesak burutzen dituen maniobra guztiei laguntzen dieten hots eta zaratei adi, azkenean ere zerraila nagusiak ixtean egindako kirrinkak isiltasunaren atea ireki duen arte. Kalea ere baretu den arte hantxe egon da, hilobi barruan, erlaxapen-ariketak egiten saiatuz.

Armairuak itxi ondoren sakristiatik klaustrora jotzen duen atea ireki du, giltza atzera tiradorera itzultzeko gero.

Biharamuneko egunkariek misteriotzat jo zuten giltza lekuz aldatu barik burutua izatea lapurreta. Buruhaustea areagotzeko, arrasto bakarra agertu zen han, paper zatia eta letra bi idatzita bertan: K-M.

Txikia da klaustroa. Erdian duen baratzean patina eta landare txarto zainduak dagoz. Hara han Iturribarria poeta bizkaitarraren hilobia, arkupetan.

Zenbat eta arinago irten kanposantu honetatik, hobe. Horman gora igotea ez da batere gaitza. Neskalagunaren hankek eratzen duten irudia gogorarazten diote leiho gotikoek osaturiko zutabeetan gora, apainduren sarrirtenei eutsiz, erraz igotzen hasi da.

Begien aurrean pinakulua ikustean, ikaratu egin da. Bera eta harrizko pizti-deabruaren aurpegi irribarretsu izukorra sudurrez sudur egon dira. Halakorik! blausta jausi da bertan behera baratzeraino.

Saguxarrak ere ikaratu egin dira. Berriro saiatu behar.

Oraingoan ttu egin dio gorgola-pizti beldurgarriari Ernestok, txikitan abadeek infernuari buruz esandakoek zirgit mingarria eragin diotelarik urdailean.

Behin goian, pinakuluaren atzean gordetzen du burua, kalean baten bat ote dabilen, ziur egotearren. Inor ere ez. Aleop!Korreo kalera salto egin du.Denaondojoanezgero adiskideak «Umore-Ona»ko barran izango dira.

Ia ondo joan da dena. Korreotik Askaora jo du Ernestok, eta hantxe ikusi du autoa, argi azulduna. Barruan morroi bat, bestea kanpoan, susmo txarra hartu du. «Gauez eta eguzki-betaurrekoez? Txakurrak, Tango & Cash».

Desbideratu beharra ikusi du.

Auto-irratiaren bafadak aditu ditu, «Cobra, me oye?»

Hogei metro haruntzago, ordu berean, Zitrona eta biok geunden, neskaren lagunak atea zabaltzen zigularik.

–Hau sorpresea!

Isa Billi

–Joder, hau sorpresea, hau!

Ilegurizkoa eman gura zuen txabusin ferdeaz hala-hola estalita soina, argal, begi handi borobilek aurpegi osoa betez argitasun irribartsuz, duela hamabost urteko mutil gazteek erabiltzen zuten ile-ebakera eta hennak gorriztutako burua, gure aurrean agertu zen neskak egundoko musua eman zion musturretan Zitronari, atea zabaldu eta ezagutu bezain laster.

–Ez geratu hor kanpoan; barrura pareja.

Behearen gaineankuxinak eta hormetanzurezko apalategiak, musikadorrea bazterrean eta hasiera batean ez konturatzeko moduko lekuetan argi azultxoak, zelofanez estaliak. Horiez gain, besterik ez, halako usain berezia ezik. Sandaloa? Aurkezpena egin guran da Zitrona.

–Isa Billi, Gintonito; Gintonito, Isa Billi.

Protestatzen hasteko izan nintzen.

–Beno, nire benetako izena...

–Ixo eta ixi, Ginto! Izen horrekin deitu diat lehenik eta izen horrexekin segituko diagu gure ar-

tean. Ez ezak izorra magikotasun hau hire konplexuak eta damukeriak direla eta ez direla.

–Imaginaten dot zergatik esaten deutsuen Gintonito; baso baten, halako garbirik topa ezkero etxe desastre honetan, nahastetxo goxoa preparako deutsut. Artetan, zertan ez deustazue dana kontetan...?

Gelan zebilen usaina sandaloari ohi dariona zen, gorputzei eta gauzei itsasten zaizkien horietakoa, sendarra ia. Laugarren dimentsio bat eransten zion lekuari. Sandaloaren eraginpeko ez-espazio eta ez-denbora hartan hasi zitzaion Isa Billiri Zitrona dena kontatzen, tiroarena izan ezik. Nik neuk kuxinen artean etzanda, nire buruaz ahazteko ahalegin bigun goxoa egiten nuen bitartean, nesken ahots eztiek eta sandalo usainak laztanduta. Gintonik-basokada luzatu zidan anfitrionak edozein pub elegantetik hara zuzenean ekarria zelakoa salatzen zuen edalontzi lar dotorean.

–Halan bada, entzun dogun tiroa zuongatik izan da; aibala! Katua bera be ezkuta egin da,hortxe kuxinen azpian. Zera Antoito, harri gehiagogaz guraizan ezkero gintonika...

Lehenago esanez gero Isak katuarena eta lehenago mugitu nukeen ipurdia eta lehenago irten zatekeen katumantarra kuxinen azpitik, mirariz edo bizirik. Tiro-hotsarekin baino ikara handiagoa eragin zidan bihotzean mizinoaren agerrerak. Hura aparizioa!

–Duncan, erdu Duncan, hona. Beitu nortzuk etorri diran gure Duncan ikusten. Zer nire, orain-dio ikaratuta ala?

–Emea, ezta? –Isa Billiri mintzatu nintzaion, harretxe, gero katuari deika hasteko–. Isadora, hona, Isadora, erdu, biz, biz, biz...

–Katuaren izena Duncan duk, Isadora gabe –haserreak hartuta Zitrona.

–Tranki, neska. Igarri egin dau horrek izena. Isadora luzeegia zala eta, apeliduagaz konforma naz; Isadorita Duncan gurea? Morroi inteligenteak ezatutea ez da eguneroko kontua izaten gero! Noizik hona enroilaten zara intelektualakaz ba, Zitrona?

Isilunea, eta katua nire besartera itzuli da. Halako batean, giroa aldatu guran antza, Isa Billik dutxaren beharraz hitz egiteari ekin zion, erlaxatzea behar genuela, «izerditan zagoze

zuek», halakoak behin eta berriro errepikatuz. Argudio bila, Zitronaren galtzarbean usain egin zuen. Berehala itxi zituen sudurtzuloak elkarren aurka estutuz sudurmami lizun eta malguak, atzamar biz, topikoa izan arren berarengan komikotasun berezia zuen keinua egokiturik. Galtzarbeek katuaren ipurdia ematen zutela esan eta azkenean dutxa hori derrigorrezkoa zela erabaki zen.

–Zitrona marizikin hori, amak baino hobeto jagoko zaitut nik; neuk egingo deutsut dana, xaboia emon, aklaratu, xikatu... Ume potxolotxoa izango zara zu, eta ni ahizta nagusia, edo ama, zuk zeuk zer gurago dozuna, ba, ahori. Zeu be, Antoito, dutxatzearren ez zara hilgo, ezta?

Zitronak onartu egin zuen ideia. Nik ez berriz. Nahiago nuen katuarekin kuxin artean geratu. Musika jarri zidan Billik bainugelan sartu aurretik. The Cure, «Pornography» (sandaloarekin batera asmatutakoa ematen du musika horrek). Katua katuen zerura joan zen, kuxinetatik aldatu barik, dohainik. Ur-hotsa nagusitu zen gelan, orratza kantatik kanta igarotzean hor izaten den musikarik gabeko tartetxoan. Barre-zaratarik ere

aditu nuen diskoko bigarrena, sandaloaren bila baizihoan airean zehar hedatzen hasi orduko. Bigarrena ere amaituta, isilunea berriro. Barre-algarak komunean. Katua alborantz jaurti, zutitu eta bertarantz abiatu nintzen.

Atea ez dago guztiz itxita. Zirrikitutik ihes egiten du argiak, karrajurantz. Begira geratu nintzen, burua aurrerantz egin eta gorputza atzean gordeta, kirian.

Bainugelan

Bainontzian dago Zitrona. Ur apartsua ditietaraino. Billik eskuez eragiten dituen noiz behinkako uhintxoek estali eta desestali egiten dituzte haragizko gailurrok. More daude, ezpainak bezala, ubelduta. Hotzegi dario ura, beharbada. Lepoa ematen zidatenez ezinezkoa izan arren aurrekaldekorik ikustea, Billiren txabusina irekita nabaritu nuen.Hanbeheandago gerrikoa, botata. Ditiak ikusteko gogo mina sartu zitzaidan. Zeremoniak, hala ere, bere erritmoa zuen. Begira geratu nintzen.

Zitronaren bekokiaren goian jarrita belakia –begiak itxita ditu berak– estutu egiten du anfitrionak, astiro. Ur-xorrotadatxoa bekokian jausi da; bertan jo eta garondorantz abiatu da, sudur-alboetan behera, okozpean barrena, lepoa hasten deneko aranera bilduz ileadats luzea, mendian behera erreka zabalaren bila datozen hamaika lats txikiren irudi. Bizkarrezurrak eratzen duen ubide luzean elkar topa dute Billiren esku biek, ur xaboitsuaz blai, gorantz bata, beherako

bidean bestea. Besarkatuta du Zitrona, bertikalean.

Esponjatiko ur-txorrotxoa agertutakoan astiro-astiro makurtu du burua Billik. Beraren ezpainak Zitronaren garondoan pausatzen susmatu uste izan ditut. Zirkintxo bat eta Zitronaren ditiburuak nire begientzat dira. Zitronaren haragigailurrak, gogortuta, tente! Min emanzidaten eskuturretan, amilburuanbanengobainozorabio itzelagoa bait zen nirea.

Mazusta ubelak txatxamurka egiteari ekin dio Billik, esku biez. Zitronak ahoa zabaldu gabe arnasa hartzen du, bufadaka, bere ezpainak haginkatuz, airea bera ere haragizkoa bailitzan.

Luzaroan dabilkio garondoan Billi, presarik gabe, erleek loreztia xurgatzeko duten arreta berdintsuaz, sena hutsez. Hotzikara itzelak zeharkatu du Zitronaren gorputza behetik gora halako batean. Egundoko haragikara izan da, ezpainetan barrurantzako hasperena lehertarazi diona, plazerea eta mina aldi berean etortzeak eragin dion alarua jan guran.

–Hara, hara, gure laztanaren zidarrezko bekokia; hara, hara, gure laztanaren ule urregorriz-

koa; hara, hara, gure laztanaren koralezko azaltxoa... –hitz egin eta tarteka belarri-gangailak haginkatzen dizkio, ezkerra lehenik, eskuina ostean, behin eta berriro. Bainontziko uretan sortu den uhintxo-sortak isladatzen du Zitronaren gorputza dardarazten duen atsegina.

–Gure laztan polittak dana garbittu behar dau, lolo joateko, dana, bai, mamorroren bildur izan barik egiteko lolo gure galantak, ze mamorrok eroan egiten dittu ume koipeztotxoak. Garbittu, bai, lepoa, bizkarra, ipurdiko mamintxo goxoak eta hori «ursuliña» hori be, ezta, tutubeltz?

Zitrona belaunbiko dago bainontzian. Azken hitzekin batera ipurdiraino ekarri du Isa Billik belakia. Hantxe igurtzen hasi da. Zitronak zabaldu egin ditu hankak. Belakia uretara jausten utzi dute. Eskutsik dihardute, elkar laztantzen. Hara hor Zitronaren zauri zaharra, ireki berria orain. Haragirik gutiziagarriena, muskuilurik biziena, neu ere jan guran nabilen muskila.

Zerbait idoro duelako edo, astiroago dabil eskua, niri ezezagun zaidan zer horri eutsiko bailion eraginez besoari ere, irudi konikoak eratuz ardatz ikustezinen baten inguruan, aurrera-atze-

ra, ezker-eskuin, sinkronikoki lotuta higidura guztiak, zirkinik txikiena bera ere dantza horretan integratuz. Ia sinbolikoa zen zeremonia.

Billik zereginik gabe izan dueneskua bestearen ingurura dator, horrek egiten duen berbera atzekoz-aurrera egiten hasteko. Azkenean lotu egin dira, geldi, Billiren eskuak Zitronaren Opaltegiko Arkupetan. Halako zaldi-lepoa eratzen dute esku elkarri lotuek. Alua bertan pausatuta zamalkatzen hasi da Zitrona, Atseginaldeko Eremuetan barrena. Haragi-mintzoz zurituta muskiltxoa, ubegia irekitzen zaio han barruan. Irrintzika ari dena ez da zaldia, zalduntesa baino. Zitronarenak dira garrasitxook, Billirenak gabe. Billi jolasean galdu da.

–Zer dauko gure umeak, gure umeak, zer dauko? Zaldi gainean dator, zaldi gainean, arin, arin. Iges doa gure neskatoa, iges zaldi gainean, zaldi azularen gainean eta lakuan barrena.

Belarriak haginkatzeari ekin zion berriro ere Billik. Zertan gehiagorik ikusi?

Ateko txirrinaren hotsa entzun zen. Nesketarikoren batek zabaldu zuen.

–Ahaztuta utzi ditut giltzak goizean. Barkatu.

–Goizean? Atzo goizean esan gurako dozu, ze ja zapatua da eta. Eskerrak ez nagoena bakarrik.

Ile-adats luzea ikusi nuen beste ezer baino lehen sartzen egongelan. Lehentxeago aditu nuen ahotsa eta ile haren artean halako lotura berezia zegoen, biek batak bestean irauten zutela eman zidan. Ezin zitekeen beste adatsik izan, ez, hormonek zigorturikoa begitandu zitzaidan adats horri zegokiona. Adatsaren jabea ihia bezalakoa zen, argala eta luzenga, eta katua besartean hartzeko makurtu zenean ohartu nintzenez, malgua ere.

–Duncan, pitxin, nola ni gabe? –amultsuki mintzatu zitzaion katuari–. Lapurtu egin dute jantzia.

Katua besartean zuelarik esan zituen azken hitzok. Nik neuk ez nuen ezer ulertu orduan. Billik egundoko ustegabekoa hartu zuen, aitzitik. Zurbil geratu zen. Zitronak berak ez dut uste nik baino hobeto ulertzen zuenik hango ezer. Etorri berriak berriz, basoa eskutik kendu niri, ginebraz bete eta xurrutada ederra jo zuen. Neuk neure saman behera nabaritu uste izan nuen edariaren labankada errekorra.

–Gose naiz. Eman al diozue afaria katuari? Zatozte sukaldera eta zerbait jaten dudan bitartean kontatuko dizuet dakidana.

Kanpaina jotzen

Suposa dezagun edozein goiz –neska etorri berria azalpena egiten hasi zen, jatekoari ekiten zion era berean, amorruz–, udaberriko edozein goiz, bai. GranVian gora batzu, behera beste batzu, jendetzak itsaso bizia eratzen du. Hor erdian, igeri txarto dakienaren moduan, itotzear, erdi mailako ejekutiboa, presaka, berandu dabil eta; pozik hala ere, bart hormetan taldeko besteekin batera berak ezarririko kartelei begira, harrotasun lasaigarriaz begira eta begira, berauek direlako berandu ibiltzearen zergatia. Partiduaren kartelak direla eta beti harro ibili izan bada ere, are harroago dago oraingo honetako propagandarekin. Lehendakarigaia ze dotore, zelako Puccini trajea igartzen zaion argazkian, osorik agertzen ezdengorputz lerdena jazten –berak ere berdintsua erosi beharko du– horixe dela okotzaren garbia, buztarri-montura urreztatuko betaurrekoak bikainak direla eta «glamour» esaten zaion zer zehaztezin hori dariola deritzo.

Beharbada ez da guapoena, zer esanik ez; orain, hori bai!, ze ondo egiten duen berba.

–Bai ondo egiten dauala berba gure kandidatuak. Eguerdion entzun dot irratian berbetan eta...

–Hitz egiten, txo, hitz egiten esaten da, garbiagoa da eta!

Alderdikideek halakoxe berriketak egin zituzten bart. Berak, nola nahi ere, filosofi-ur sakonetan murgiltzea izan zuen nahiago, nahiz eta ura hitz blai egon, troupe txikia –eskailerak, umorea, baldeak, kartelak, eskobak, trapezistak; ahuntza besterik ez zen falta–, gaueko kale-laberinto hartan betetzen ari ziren zereginaren sekulako garrantziaz jabetuta, nonbait. Bere arteko gogoetan ziharduen, atsegin tentelaz gogoratuz kolegio sasoiko adibideak. «Hara bestela inurriak, banan-bana lan egin eta denena batera pilatuz, lurrean jo eta ke».

–Halako ostirik! Kontsigna hori ez da gurea.

Ahots goran irten zitzaizkion azken hiru hitzak ozen, bera konturatu gabe. Zertan zebilen, eta ea etxera joan nahi ote zuen galdetu zioten

alderdikideek. Berak ezetz. «Aurrera indarrean» esanda, kartelei ekin zien atzera ere.

Kandidatuaren aurpegira doakio pentsamendua goizeon. Haren begiradak urrunean galduta. Hor nola dagoen faroletan eskegita «goragotik so», bada, halaxe begiratzen du etorkizunerantz adimen pribilegiatua izateak ematen dion talaia astraktutik, guztion buruaren gainetik eta guztion onerako.

Guzti honek sinbolismoa duela sinestuta dugu gure heroi anonimoa. Etorkizun argitsua bezain paketsua ikusteak halako islada irribarretsu eta aldi berean serioa ekarri dio begietara kandidatuari, serenitate sakonetako konfidantzaz gure untzia gidatuko duen hurrengo kapitainari, hainzuzen.Hortxe dago,barkukozubianbailegoen,zerumugara begira, ekaitzen erasoetatik jagoten gu guztiok, «lehorra, lehorra» aldarrikatzeko zorian.

–Bai ondo egiten dauala berba gure kandidatuak.

Lelo berberari ekiten zioten behin eta berriro, azken kartelak hedatzen zituzten artean. Colon de Larreategi-Mazarredo kantoian lehendakari-

gaia hormaren kontra izan zuen; lanabesaren muturrean, papereko kokozpetik eutsita, zirtzart hirulau bider gora-behera eta ezker-eskuin egin eta bertan ondo itsatsita uzteko moduan, laburra susmatzen zuen eternitaterako utzi ere, ondo baino hobeto bait zekien biharamunean banketxearen jabeek hormak ttukun zitzaten aginduko zutena. Berak bere aldetik bankuko lankideei bereziki dedikatutako kartela zen hura, goizean lanerakoan partidukoak ez ziren beste papalerdo erratu guztiek ikus zezaten, lehen kafearen aurretik, Patuak Lehendakaritzarako aukeratutako gizon haren aurpegia. Partidukidearen komentarioa aditu zuen. Berak, aldiz, lanabesaren puntaren puntan zuen kokotsari erreparatu zion. After Shave aurpegi perfektoa zuen eta aurpegiko zulotxoak Hollywood-eko artista itxura ematen zion «gure Gizonari», Kirk Douglas!

Korbataren hautaketan ezin beteagoan asmatu zuela pentsatu zuen bart. Goizeon, berearekin parekatzeari ekidin ezinik, lanerako bidean berriro alderatu ditu gorbatak irudimenean.

–Gusto batekoak gaituk, bizar kontuetan lez, kokots...

Pentsamendua kraskatu egin zaio garuneta-ko errepidean, bere karriletik irtendako sekulako trailerrak birrindu duen «kuatrolatas»aren antzean geratzeko. Hautagaiaren aurpegian azuldura nabaria antzematen du. Hazi egin zaio bizarra argazkiko aurpegian kandidatuari. Ezinezkoa. Beharbada txarto egin du lo. Ez baina. Kale osoko karteletan bizarra apur apur bat hazita duelarik –ondo begiratu ezik inork ere ez nabaritzeko moduan beharbada, baina hazita– halaxe ageri du bizarra kandidatuak.

Mahaira jezarri bezain laster kafea eskatu du interfonoz, horrexetarako bait dagoz sekretariak, ze karajo! Eskerrak solairuan denak partidukoak direna.

–Eskerrak entxufeari –pentsatzen du–, beste horrena nirea baino hobea izan bada ere; bestela, zertarako politika eta politikondoa?

Albokoari kontatzen dio dena.

–Lar nekatzen haiz kanpainetan. Kalte egiten dik lo egin barik ibiltzeak. Hoa goizago ohera gaurkoan, nahikoa egin duk orain artekoan eta.

Egik larrutan, andrea abandonatuta daukak eta, ze nik neuk halako andrea izanez gero, kaguen politika guztiak! Apolitikoren bat aurkituko dik eta gero hor konpon! Hoa kexatzen partidura!

Zorotzat har lezaketen arren –lankideak egin duenaren berdintsu– «Edifizio»ra deitzea erabaki du. Hamaikak alderarte ez ei da inor egoten, sekretariak eta atea jagoten ari diren txakur txarto kamuflatuak ezik.

Heroi anonimoa eta lankideak hamaiketakoa hartzera jo duten une berean, «Edifiziotik Edifiziora» jotzen du telefonoak.

–Oraingoan pasatu egin zarete –burokratak ahots zatarrez–, saboteatu egin dizkiguzue kartelak. Mundu guztiaren aurrean salatuko zaituztegu, ze hau ez da kanpaina hasi aurretik emandako hitza betetzea, ezta inondik inora ere.

–Tranki, txo –moztu egin du hariaz bestaldeko burokratak–, geureak ere saboteatuta agertu dira goizeon. Bizarra hazten zaie, unetik unera, astiro baina gelditu barik, gizonezko gure kandidatuei.

–Gizonezkoei... jakina gizonezkoei dena, azeri hori, emakumezkoek ez dutelako bizarrik, zuen partiduko atso zaharrek ezik!

–Intsultatu barik, no te pases edozoaz beste-la «kanpaina jotzera» –txistea egin gura izan du, solaskidearen adimena gehibaloraturik–; denok gaude barku berean, hala da ze, ze osti egin behar dugu?

–Nik uste, kandidatuek bizarra moztu behar-ko luketela oraintxe bertan, ea karteletan ere desagertu egiten diren iletxo madarikatuok. Ados?

Heroi anonimoaren lankideak ere bere begi harrituez ikusi du egia, «Edifizioetan» telefonoak eskegi diren une berean. Astun egingo zaie goiza, artegatasun jakinguratsuz betea, harik eta hirurak jota kaleratu ondoren edifiziora azal-pen bila joan ahal izan arte.

Barre egin zuen etorri berriak, azalpenetan etenaldia eginez. Doinu epikoa ezarri zion ostera kontaketan.

Bizarrak desagertu egin ziren karteletako aurpegietan benetakoetan desagertu ziren aldi berean. Hautagairen batzuk labaina erabili

zuten; besteek, aldiz, bizargailu elektrikoa. Istripuren bat ere gertatu zen. Alkategai hark, belarripeko larrualde mamitsuegian sartu zuen aitzurra, sakon, jugularreraino ia-ia. Karteletan ere odoletan ikusi zuten oinezkoek. Araldeak inguratu ziren kartelotara. Hondamena.

Laupabost aldiz moztu zuten bizarra hautagaiek gauerako. Baten batzuren aurpegietan nabariak ziren sarraskiaren ondorioak. Harako erregek baino gorriago zuten aurpegia, hazkureak zorarazi behar zituen eta egun bakar batean edan ohi duten guiski baino lozio boteila gehiago erabili zuten.

Baten batek boikoteatu egin zien kanpaina, antza. Terrorismo hutsa, noski. Gainera, zenbait aldetan ezzuen eraginik izanhautagaiek bizarra behin eta berriro mozteak. Hasierako misterioari bigarren hau gehitzen zaio, bada. Hirugarren misteroia, aldiz, sabotaia amaitu, hasi bezala amaitu zela izan zen; besterik gabe. Ordurako, hala ere, partiduek gizonezkoen aurpegirik gabeko kartel berriak ekoizten igaro zituzten egunak eta diruak. Kalte sikologikoak –galera politiko bihurtu ohi direnak bestalde–, neurtezinak

izan ziren. Hautagaien itxura maiestatikoak, geu gara estabilitatea aldarrikatu nahi diguten aurpegi estableek, igeriketa-lerroan nabaritu zuten torpedoa. Brrum!

Torpedoarena egin eta zutitu egin zen. Don Diegoren «posea» egokitu zuen.

–Nola mendeetan zehar Partenon tenploa, hala geu, oreka armoniotsuari eusten, koloreak, formak eta edukiak bat egiten dituen izpirituaren leku pribilegiatu honetan.

Atzera jezarri zen.

–Hara, berau duzue marketinaren bidez iragartzen zaigun mezua, propagandek adierazi nahi digutena. Eroalea ei da mezua. Eroalea aldatuz, mezua ere aldatu dugu.

–Bizarra hazten zaio, kontrol gabe, txiza, kaka eta norkdaki besterik zer egiten duen honi. Ez diozue Olinpoko inolako jainkori ematen botoa!

Hara zer dioten orain.

–Mezu berri honekin, gorbatarik edo sujetadorerik ez baina, estu lotu gabeko alkondara erabiltzen dugunon aro berria hasi da, kondatu dizuedan moduan, gitxi gorabehera.

Txalotu ere egitekotan izan nintzen azken hitzok Nosferaturen platereko litekeen azken kaneloni ferdeska irentsi eta batera bota zituen. Saman behera pasaraztearren beneno hura, hegaztiak legez luzatu sama, ttua irentsi eta bularra atera behar izan zuen. Ballet haren azken mugimenduari esker, lautada somatu nion alkondarapean, muino ttiki pareak doi-doi desorekatua. Yogurta mermeladaz eta aguakate zatitxoez, denak katilu berean, halako nahastea eragiteari ekin zion, amorruak gaindituta galdetu zionean Zitronak:

–Guzti horrek zer zerikusirik dauka jantziaren gorabeheragaz. Joder tia, ez dakit nola zaren nahastura nazkagarri hori irensteko gauza.

–Osasuntsua eta saludablea da. Geuk saboteatu genituen kartelok. Eta ez zaitez nire jatekoarekin sartu.

Isa Billik hartu zuen azalpenen txanda. Duncanek bazterretik begiratzen gintuen, miserikordiaz eta kupidaz, halako desorduetan zer zela eta ari ote ginen berbaldi amaitezinean preso.

–Argazkietan diran aurpegietako bizarreri benetako aurpegiak dituan kanbio berberak eragi-

ten deutsezen ukendua asmatu dau geure taldekide batek. Ustebako deskubrimendua izan da. Neska hori nor dan, ez deutsuet esango. Nahikoa izan behar dozue gure artean Mari esaten deutsogula jakiteagaz... –hasi zitzaigun, luze izan zen azalpena egiten.

Mariren miraria

Egunez inprimategi ezagunenetariko batetan eta gauez zientzia ezkutuetan ari zen Mari. Jainko hirukoitzaren mito grekoaren barruan izan zitekeen edukin zientifikoa aztertzen eman ei ditu azken hiru urteotako gauak. Hiru urte eskaini Jainkosa Hirukoitzari eta deskubrimendu handi horren mesedea egin dio berak. Ez nekerik gabe, horregatio.

Hiru urteotan barrena, zuhaitz sakratuen izerdiak bildu behar izan ditu ilargi betea izan dengauetan,gau bakoitzean banatik. Belar izendezinak ebagi ditu zidarrezko segaz –zenbat bitxi ez ote duen lapurtu eta urtu, burdin arruntezko halako sega normala zidarreztatzeko–, noiz eta ortzean ilargia bera ere Marik erabilitako segaren kurbadura berberarekin agertu izan denetan. Azkenik, eta noizbait, denak nahastu ditu laranja uretan. Gero, geuri ere esan ez digun beste zerbait burutu eta ukendua prestatu zuen. Ukendu hori zertarako ote zen, berriz, berak ere ez

zuen jakin, bere asturuak –artizarrak– iragarri egin zion arte. Ustegabean izan da.

Inprimategira lanera behartu zuten gauez ere, kurroaren asuntoa zein txarto dagoen denok dakigula, ugazabek zer esan berori egin behar izaten da eta. Hauteskundeetarako kartel piloa inprimatu beharra zegoen. Goizaldeko bostak alderantz geratu zen artizarra izarzurtz hango sabai morean. Halako batean, gauerdiko hamabietan inprimatutako lehen kartelei errutinazko errepasoa eman zien. Orain ja denok ezagutzen dugun «bizarraren sindromeak» jota ziren kartelak. Gau hartan egindako guztia errepasatu zuen. Non ote zetzan gakoa, bueltaka bere buruarekin, laborategitik inprimategira eskuak garbitu barik etorri zela konturatu zen. Atzamarrei itsatsirik ekarri zuen Jainkosa Hirukoitzaren ukendua. Hala da ze, ukenduari zor zitzaion miraria. Behin eta berriro frogatu zuen hurrengo egunetan. Ez zegoen zalantzarik, ukendua kartelen gainean zabaldu eta hazi egiten zitzaien bizarra argazkietakoei.

–Emakume taldean kontatu zigun -etorri berriak, Birak, hitz egiteko txanda hartu zuen, yo-

gurtezko mokordoa ere sabelean gorde ondoren–, sinestuko ote genion bildurrez kaka zeriola, ze aurretik ere askok Mari zorotzat jotzen izan du eta. Frogak aurkeztu zituen. Eta orduantxe sortu zen plana.

–Ez dut jantzirik ikusten nik oraindik hemen. Kontaizu arinago ba...

Atzazalak haginkatzen hasi zen Zitrona eta katua neure oinetara bildu zen.

–Ukendu kantitate handiak egin eta propaganda karteletan zabaldu, ea hautagaia izateko gizonezko izan beharra oztopo bilakatzen zen, hara gure plana. Planaren akatsa, berriz, ukendutarako dirua nondik atera, ez zen besterik izan. Zidarrezko igitai gehiago, zuhaitzak eta, bidaiak eta, handiak ziren premiak. Frogako ukendu harekin kartel banakak saboteatu genituen baina, ezin gainerakoak hondatu.

–Bahiketa, atrakoak, kalea egitea –Billiren txanda zen berriro ere–, danetarikoa pentsatu genduan. Soluzioa, dana dala, Anak eskeini euskun.Soluzio erraz eta garbia. Morroi erdi zoro batek diru ederretan pagatuko eban halako traje edo jantzi bat lekuz aldatzea. Pentsatu genduan

ba beharra geuk egin eta gero trajea saltzea teilatua itoginez josita ei daukan horrexeri fulanoari.

–Joder jantzia! Ze jantzi, kaguen fraile-komentuak, batzokiak eta herrikoak!

Paper kutxean eta kolorez inprimatutako panfleto bana luzatu ziguten ahizpek. Katuaren zurrungek –zurrun eta zurron– rona eskatzera behartu ninduen. Dzanga edan eta irakurri, leidu eta tragotxoa edan, katalogoa irakurri nuen. Panfleto hark zioena eranskin gisa duzue azkenean. Nik neuk, hori irakurri eta atoan erabaki nuen ez nintzela hilko marabila hura, gure herriak Sionisten Zerbitzu Sekretuei, Mossadi, onerako zor dioten bakarra, neure begiez ikusi gabe.

Ondoko lerroak idaztea izan badut, berriz, jakingura horrek azkeneraino akuilatu ninduelako izan da. Eta itxura guztien arabera hain garrantzi handikoa zen jantziaren berri zelan jakin zuten emakumeek, artean ere emakumeok osatzen zuten taldeko kidea izan eta puta fin zihardu en Anaren bidez jakin zutena jakiteak neuk ere, zorroztu egin zitzaidan jakinguraren akuilua. Berriro ere, neska etorri berriak, Elbirak, ihardun

zuen. Ezarian ezarian, eta bidenabar, Diruaren inguruko Zazpi Zirkuluekin duen teoria ere azaldu zigun.

Zazpi zirkuluetan

Ana Luisak puta egiten du lan. Emakumezko den aldetik askapenerako lehen pausotzat jotzen bait du berak diruz independientea izatea. Ez du edonon iharduten, hala ere, ondo ezagutzen duen geografian baino, Diruaren Bigarren Zirkuluan hain zuzen.

Lehenengo zirkulukoak ditu bezero. Arkitektoek elkarren berri jakin gabe eta euren mizkerien bidez praktikotasunaz gain beste zerbait bilatu edo adierazi nahi izan bailuten, eraiki dute Zirkulu sakratu hori.

Gran Viatik begiratuz gero banketxe nagusien egoitzak diren edifizio berberen atzekaldeetan bestelako negozioak dira nagusi. Jantzi dendak –barruko jantzi finak–, okindegiak, ultramarinoak, mertzeriak, merkatua, hots, emakumeena ei den munduko harekikoak hedatzen dira. Monstruaren alde horrexetan bertan dira, baita, saltoki guztiokin nahastuta eta espaloi berberetan tartekaturik, exekutiboek zapaldu ohi dituzten kafetegi eta «ristorante» dotoreak, New Yor-

keko cityaren «urruncopia» izanik gehientsuak –nik neuk ikusitako zinemaren arauera–, eta London amestuaren irudi desitxuratua emanik gainerakoek.

Errealitate bakarraren alde eskizofreniko biak osatzen dituzte guztien artean.

Berauek dira Lehen Zirkulua, Diru-Jabeen Egoitza eta Aginte-Zubia.

Goizean goiz hasten da ttukunketa-emakumeen ekina zirkulu honetako alkoholtzuloetan; barteko hondakinak bildu, behea distiratu eta komunak amoniakoz eta lixibaz desinfektatu, eguneko lehen bezeroen zapata beltzen artean lanbasa pasatzeko azkenik. Geroago, emakume portugaldarrek, ijito-umeek, plastikozko hankadun elbarrituak, gazte langabetuek eta era guztietako eskaleek hortxe ihardungo dute, eskean. Laugarren Zirkulutik datoz, handik non herdoila eta ugerra diren nagusi. Laster, arrandegietako mutilek furgoietatik kaxak deszamatzen dituzten artean, txakurren «letxerak» gaizkilez eta Zazpi Zirkuluak ingurutzen dituen Zirkulu Aipaezineko «terroristez» beteta ei doaz. Auzitegira abiatzen diren unean, atso aberatsak dorreak jaustean

legez makurtuta dirudunen elizan meza entzutetik irteten direnean, gutxi gorabehera.

Goizerdi alderantz pil-pilean izango da zeiako giroa. Enplegatuak, «el guisqui y dáme cambios para la máquina y para tabaco», eguerdia hurbil usainduko da eta eguneko menu-plateren berri iragarriko da ate-alboetako karteldegi ttukunetan.

Izotzez zamatuagoak eskatuko dira edariak bazkalostean eta arratsaldea bulegoan eman behar izan dutenek, txiribogara egindako bizpahiru ihesaldiren ondoren, lasaitasunez joko dute –azkenean ere!– arratseko lehen scotch laztana. Bigarren Zirkuluko ateak oraintxe zabaltzen dira.

Ingeles erako «old tavern» berriak, «Sir Zera» edo Bretainako hiri-izenekoak, haltzari garestiz sailkatutako ihardun-eremuak, oihal astunek erdi itzalduak, musika estereotopikoz zipriztinduak, apaletan errege-sagen izendun etiketadun edari garestiak agerian dituztenak; hor sexuaren bila jezarrita –eta aldi berean, abiadandiren otsoek ehiza-lekutzat hartu dituzte inguruok. Aukerako ardiak, bildotsak, oiloak, oilan-

dak, edo dena delakoak, ez dira urrun, inguruko sofa neumatikoetan baino. Emakume neumatikoak larruzko jezarleku neumatikoetan.

Anak ez du halakoetan egiten ia, aspaldiko partez. Roilo txarregiak, tripa handiegiak, brandy larregi eta musika enpagugarriegia. Pop estilokoak ditu maiteago. Exekutiboak ere gazteagoak izaten direlako beste modernoagoetan; halakoek, gainera, badakite kokazko lerrotxoren bat edo beste eskaintzen eta, hobe ez, alderantziz zintz eginda –kanpokoz barrura– holaxe gorputzeratzen den hauts zuri hori izaten da adorea ematen duena tipo-ezezagun-itxuraz-aberats-eta-alkoholez-nahiko-kargatuaren motor indartsuan igo eta –argirik ere piztu barik oraindik– sekulako zapatakada jota azeleragailuari zeretik hartzera joaten ausartzeko, ipurdian burdin goria sartuta baino izorratuago, bederatzirehun lurrun-zaldiren jabe zamalkariaren gerriaren inguruan estutuz besoak, aupa kostalderantz!, Loewen hogeitamar mila pelako gastua egiteko txekea jada sinatuta eta ondo baino hobeto gordeta boltsan. Bostgarren Zirkulua zeharkatu zuten,

hots, fabrikaldeak, ibai hilak, mendi erreak, porturen bat, hirulau baserrietxe.

Pausaldia egin zuen Birak, arnasa hartzeko edo, guzti hau arrapaladan kondatu bait zigun. Beste gintonik bat atondu zidan Zitronak bitartean.

Beste askotan ez bezala motorrera igo zen une horrexetatik aurrerakoa ere kontatzen hasi zitzaigun taldearen hamabosteroko bileran Ana.

Beste edozein bezerorekin izandako beste edozein mugida bezalakoa izan zenentz galdetu genionean –hala izanez gero, batzarra amaitutakoan kondatu bait zigukeen kontatzekoa– ezetz, gure bizarkaria –halaxe esaten diogu gure produktu miragarriari– parra-parra ekoiztu ahal izateko diru-iturria bertan zegoela esanik, aurrera jo zuen.

Esan dudanez, adorea behar izaten da berrogei urte inguruko exekutibo-guiskiz-ondo-bustiaren motorreko atzekaldean igotzeko. Txekeak eta bostmilako kiribikatuan gora irentsitako hauts zuriak –artean ere sudurtzuloan kilikilika zebilkiona– munduari betortzak saman-saman iltzatzeko kemen ezaxolatia eragiten zioten nes-

kari. Hogeitabi urteko ikasleari, goiganbararen jabe izan eta noizean behin bezero garestiren bat aurkituta larrutan egiteko aurkako aurreritzirik ez duen neskari, zer dio gizonezko gehientsuek emakumezkook gainbalioztatu egiten bagaituzte ere? Areago, gainbalioztatu ezezik unibertsitateko gai sasi-intelektualak erraztasunez erabili ohi ditugun neskon aluan barneratzeko irrikan bizi badira eta hala egitearen truke hogeitamar mila pezeta emateko prest badira, ondo baino hobeto. Alabaina, hau ez da taldekide guztien filosofia, Anarena baino. Beharrezkotzat jo dut hau argi uztea. Aurrera egin baino lehen. Galduta nabil. Non gaude? Ene! Bai, motorrean exekutiboarekin batera.

Bada, motorra geldiarazi, poltsikotik irekigailu elektronikoa atera eta garajeko atea zabaldu zuen exekutiboak. Seigarren Zirkulukoa, aisialdirako etxea, ez ei zen ondo ikusten, argi barik eta hilberri gau hartan. Zazpigarren Zirkulua itsasoa zen. Hantxe berrasten da dena.

Zaunkak

Zaunkak aditu zituen, bertan-bertan, handia ematen zuen orak tristuraz jaurtiak. Itzaletan zehar zetozkion ozen, gainerako zaratekin nahastu gabe.

–Isi Akre! Geu gara, zalduna eta dontzeila!

Lasaitu egin zen zakurra, nagusiaren ahotsa ezagututa antza. Isildu egin zen.

Aberatsegi eritzi zion Anak, sena hutsez, txaletari. Hurbilean itsasoa zegoela igarri zuen haizeak barreiatzen zuen usainean. Zorroztu egin zituen belarriak.

Uhin-hotsak heltzen zitzaizkion apur bat urrunagotik.

Garajean sartu ziren. Volvo ikaragarria zegoen bertan aparkatuta, hiru ume-bizikletarekin batera. Seme-alabenak edo. Barruko eskaileretan gora eginda sartu ziren etxean, garajeko atea automatikoki itxi zelarik. Sekuritate-sistemaren zelula fotoelektrikoaren izpiak eten egin ziren eurak igarotzean, nonbait. Sukaldean

ziren. Izotza atera zuen hozkailutik aluminiozko ontzian motordunak.

–Goazen horra! –agindu zion.

Laster osotu ei zuen etxearen krokisa buruan Anak. Ezkerreko hegalean zegoen sukaldea. Pasilo txikia iragan eta egongeletariko batetara heldu ziren. Aho biko atean armarri parearen irudiak, deitura ezagunei dagozkienak biak eta begibistako arrazoiengatik isildu egiten ditudanak; eurotan, lapikoak, piztiak, ezpatak, ilargia, betiko euskaldun garbien maniak eta tiraniak. Egongela ez zen inondik ere arrunta.

Lau zokondoetan gurutzadetako zaldun-jantzi bana. Begien aurrean zituen zokondo bietako zaldun-jantzietako gurutzeak berdinak ziren. Denean, koloreetan ezik. Ezkerreko gurutzea gorria zen; eskuinekoa, aldiz, berdea. Anaren azalpenen arauera, Calatrava eta Alcantara ordenen jantziak ziren, hurrenez hurren. Sarrera-atearen hormako zokondoetan aldiz, gurutze berdintsuak; gorri-beltz bakana batean eta ezagunagoa egin zitzaion San Fernandoren gurutzea bestean. Ezkerreko horman leiho handia, gortina astunez estalita; eskuinaldekoan halako maniki bat

zegoen, ezein jantzirik gabe. Mahai borobil handia erdi-erdian, komikietan agertu ohi diren zurezko besaulki beltzez inguraturik. Gazteluren baten ikusi zuen bere burua Anak.

Ordurarte ikusi gabeko ate txikitxoa ireki zuen tipoak. Erdiaroko ziega-atea zen hura. Ikaratu egin zen, zeren edo noren beldur zen zehaztu ezinik.

Logelan sartu ziren. Ohe itzel handia zegoen atzeko hormaren kontra. Hormetan ezkutak, ezpatak, arkabuzak eta hainbat gerra-tresna. Oheko lau hankak ia sabairaino heltzen ziren.

Ivanhoe filmean ikusitakoa ekarri zioten burura neskari, azulez eta urrez brodatu halako oihal astunak burutzen bait zuen ohearen goiko estaldura. Euskal estiloko kaixaren gainean zegoen argimutileko kandelak piztu ondoren amata egin zituen argi elektrikoak.

–Zoaz alboko gelara –aginduz esan zion atzera ere– eta armairuko ateak ireki. Ikusiko duzun jantzia imini behar duzu aldean, beste ezer barik. Oinutsik gura zaitut. Eta askatu egizu ulea.

Anaren adatsa luzea da, gerrirainokoa ia. Horrexegatik edo aukeratu zuen gau hartako joko-

rako irten hark, nork daki. Zena zelakoagatik izanik ere, armairua zegoen gelan sartu zen. Ohe txiki bat ere bazegoen frailearen logelatzat har zitekeen hartan. Agindu bezala egin ei zuen neskak, artegatasuna hala edo nola uxatzearren, boltsan ondo gordeta zeukan txekeko zenbakirantz hegaldatzen utziz irudimena.

Estrainioa begitandu zitzaion jantzia. Aurrekaldea irekita eta ez botoirik, ez gerrikorik, ez ixteko beste ezer zeukan, xingola pare bi baino. Gorria zen eta atzekaldean urrez brodatutako laukia zeukan, erdi erdian, Anaren garondotik gerrirainoko gainazalaren neurri egokian josi izan bailuten. Zaldiekin gogoratu zen, zertan jakin barik.

Logelara itzuli zenean, gurutzatuz jantzita aurkitu zuen zaldi-motorduna; oinetan sandaliak, tunika luzea lepotik txorkatiletaraino, kapa fuksia lepoan behera eta gurutze gorria bularraldean; eskuetan halako liburu handia zeukan, antigualekoa itxuraz.

Ohean eta ahozpera etzateko agindu zion. Halaxe egin zuen Anak. Beronen atzean jarrita,

ikutu gabe, liburua irakurtzen hasi zen berehala gurutzatua.

–*Zaldieriaren Ordenako Liburua* –halaxe esaten hasi ei zen, ahotsa urdailetik ekarrita–. *Lagunon hori, zaldieriaren arau eta ordenak dira liburu honetan, zeinetan noizean behin irakurtzen bait dut, gogoraraz diezadan Jainkoak berak mundu honetan egin dizkidan dohain eta mesedeak, zeren nire ahalmen osoaz ondratu izan bait dut, eta mantendu, Zaldieriaren Ordena; ezen zaldunak berezkoaduen guztia zaldieriak ematenduen era berean, zaldunak bere ahalegin guztiak erabili behar ditu zaldieria ondrarazten.*

Anak ez zuen zirkinik ere egiten. Harrituta zegoen. Zaldunak irakurtzen segitu zuen, beste ezer egin barik, harik eta harako beste zatira heldu zen arte. Orduan, irakurri ahala, ezker eskua sabelaldera luzatu eta gorantz altxarazi zion neskari. Lau hanka gainean geratu zen, ukalondo eta belaunak behearen gainean. Beste eskua adatsera eraman zion. Garondotik bekokiraino, erdi-erdian irekiz ildoa, alde bietara banatu eta lotuta zituen txingolak askatu zizkion. Torneorako gertatu duten zaldia eman behar zuela

pentsatu zuen Anak. Halaxe bide zen, gurutzatu irtenak irakurri zionaren arabera behinik behin.

–*Zaldia, piztien artean ederrena* –irakurtzeari ekin zion berriro–, *arinena eta behar handienari eusteko kapazena, gizonari zerbitzatzeko egokiena. Eta zaldia denez animaliarik nobleena eta gizonari zerbitzatzeko komenigarriena, halaxe izan zen zaldia aukeratua animalia guztien artean* –hitzok esatean altxatu egin zion jantzia, agirian utzirik ipurdia eta alua zaldunaren lantzaren aurre-aurrean, iletzak baino beste ezerk oztopatu barik haien ikustea– *eta beste mila gizonen artean aukeratua, izan zen gizonari emana.*

Ana ez zen konturatu. Barruraino landatu zion zakila, minik ematen zion ala ez, horren konturik egin gabe zaldun gurutzatuak. Orduan albora utzi zuen liburua, beso biez eustearren sama inguruan neskari. Zaldunak han barruan eragiten zion artean, neskak liburuaren egilearen izena ere irakurri zuen: Ramon Llull. Irten hark zamalkatu egin zuen, literalki, neskaren gainean; astiro hasieran; laster, esku zabalduez ditiak basati igurtziz, azkarrago; tropelka azkenean.

Behingoan eten zen zamalketa.

Isuri beroa sentitu zuen barruan Anak. Oka egin zukeen gustora.

Ordurartekoan, sexua ez zen inoiz arazo izana berarentzat; alabaina, hura! Hura piztiaren pare tratatzea zen.

Gurutzatuok

–Gurutzatuok emakumerik gabe ohi ditugu basamortuak zeharkatu, mendi gailurrak gainditu, itsasoak alderik alde ibili beste laguntzarik gabe, zaldia, ezkutaria eta gainerako zaldunenaz ezik, atzean jarraitu zaizkigularik giza aldrak, pekatariak, zin-hausleak, lapurrak, emagalduak, sasi eremitak, elbarrituak, urkamendiragaiak, legedunak, bidelapurrak, erahileak eta beste, guztiek bizitza non berriro hasi helburu, lurralde kristaugarriak bilatzen, Jainkoak bekatuak barka eta loria eternala eman diezaien helburu. Emaztea eta semalabak sorterrian utzita, haragi minak jo ohi gaitu gu ere, pekatuaren ondorio dena pekatuak deitua izaten bait da; inoiz, grina lizunari uko egin ezinik, hala zaldia edota ezkutariarekin nola jarraitzaile aldrako emakumezkoekin egin behar izan dugularik pekatu.Horrexegatik dahain zuzen ere diola Ramon Llullek:

«Pizti guztien artean bilatu zen ederrena, arinena, gaituena lan handiari eusteko, gizonari zerbitzatzeko egokiena. Eta nola zaldia den nobleen

eta komenigarrien gizonaren zerbitzurako, horregatik izan zen hautatua zaldia animalia guztien artean eta emana gizonari, zeina beste hamaika gizonen artean hautatua izan den; eta horregatik gizon hari ematen zaio izena zeina den zalduna».

–Pekatuzko lohitzean narraz eta arrastaka ibiliz zikindu ondoren, penitentzia egitea dagokigu bioi. Zoaz alboko gelara eta egizu otoi; gau osoan ahal baldin baduzu, hainbat hobeto, gure arimen aldeko erreguz, arren, nik neuk egingo dudan bezala.

Hitzok entzutea besterik ez zuen falta neskak, zalduna zorotzat jo zezan.

Alboko gelara ostendu zen, bada, aginduari men eginez. Espermak, han barruan, larritu egiten zuen, gero eta areago, harik eta okalarria jasan ezinik komuneko zulotik botazuen arte. Berak ere zer zen ez zekien zera irten zitzaion, behazuna edo. Zaldunaren lantza landaturiko zaurian isuritakoa arretaz garbitu zuen. Ohean sartu zen. Jantzi gabe zegoen manikia etorri zitzaion burura. Gelako lekurik hoberena hartzen zuela eta, ulergaitz egin zitzaion. Zartada-hots

arin eta arin baino bitxiagoek atera zuten gogoetotatik.

Zizt! Zart! Zizzzt! Zart! Airea ebakitzen zuen zerbaiten ziztua lehenik eta kolpe-hotsa ondoren aditzen zuen, behin eta berriro, zizt! zart! zart! Arnasotsak ailegatzen hasi zitzaizkionean berriz, ikaratu egin zen.

Jagi eta atera jo zuen, zerrail zulotik barrendatzera. Narda eragin zion ikusi zuenak.

Gerritik behera biluzirik eta gerrian bertan marapilodun soka bat estututa –geuk azaldu genion arte, ez zuen jakin zilizioak zer diren Anak–, zazpi adartxo malgu dituen larruzko zartailuaz bere lepoa zigortzen ari da gurutzatua. Odolezko latsak ugaltzen zaizkio sorbaldan, galtzarbetan, gerri inguruan. Estuago egiten zaio unez une arnasa. Zoroa! Halako eraginik «kokak» berarengan, ezta sekula ere!

Gelako atea badezpada ere krisketaz itxi eta bere bainugela partikularrak ez zuela gelakoa baino beste sarrerarik konfrogatu zuen ere Anak. Hala egitean zuzen jokatu zuela erizteko zioa laster antzeman zuen. Atea jo zuen zoroak.

–Pekataria zara zeu ere. Utz nazazu zigor zaitzadan, edo bestela zigor nazazu zeuk ni. Arren, pekatari hori, damu ezazu egindakoa!

–Jainkoak zigor zaitzala, ez nik. Suemango diot gelari isiltzen ez bazara, zoro hori!

Ez zion aterik zabaldu, jakina. Nekatu zen exekutibo yuppi irtena, azkenean ere, fraile negartiaren ahotsaz alferrik egin eta egin dei eta aldarri, aldarri eta dei. Isildu egin zen. Ateko zerraila zuloan zehar kirikatuz atzera ere, ohe aurrean belaunikaturik ikusi zuen pekatari damutua. Piztuta zuen kandela bakarraren argipe durduzuratiak eragindako itzal-argi horiskez ingurututa, difuntoaren mamua baino hilobiaz haruntzagokoa eman zion.

Jakingurak jota, gelako armairuan miatzeari ekin zion Anak. Argazki-liburua aurkitu zuen. Txikitakoak, kolegioko maila guztietako urtez urteko gelakideenak, Unibertsitatekoak, «tuno» jantzita, ezkontzakoak, umeekin –hiru ziren, bai, susmatu bezala–, ehizean, afarietakoak, ohizko oroitzapen igartuak zeutzan bertan.

Beste tiradore bat atera zuen. Alkanfor usainak eskua sudurrera ekarri eragin zion. Tuno jan-

tzia zegoen bertan. Zuzenbide fakultatekoa. Abokatua-edo genuen gizona. Tira! Hurrengo tiradoreari ekin zion.

–Kristo eta Lenin!

«Cofradia de la Santa Cruz» delakoaren uniformea zen hura; KKKekoaren antzeko txano konikoa, tunika luzea –moreak biak–, sokadun sandaliak eta turutatxoa, beronen eskutokian lotuta zegoelarik nongouniformea zenzioenbanderatxoa. Beraz, tipo huraBazko Igandearen aurreko larunbat iluntzean urtero Bilboko kaleetan behera, ez dakit non abiatuta Hirugarren Zirkuluko –Dirua zaintzen duen Sinesmeneko– katedraleraino astiro astiro etortzen ikusten zen prozesio hartakoxe partaidea zen.

Orratz-ziztada bezain bortitza etorri zitzaion mina eskuturretako zainetara, oroitzapenak jo zion zartadaren ondorioz. Odola bera ere mindu zitzaion.

Turuta eta danbor hotsek erritmikoki neurturiko zarataren barruan desfilatzen ikusi zuen infernuko irudi hura bera zeukan buruan Anak; han aurrean, apezpikua ekisaindu eta guzti, abade aberastasunez jantziak, monagiloak zirial eta gu-

rutze zidarreztatu astunarekin; atzerago, turutalariak eta atabalariak militar erara lerrokatuta eta tiradorean zetzanaren berdinak ziren jantziz estalita gorputzak eta buruak; ostean, oinutsik asko, sandaliez jantzita oinak besteak, denak arropa berdinez, kofradiko enparauak, umeak ere tartekoak zirelarik; azkenean, jende jarraitzailea, larruzko soinekoz eta urrezko gorbatorratzez babestuta soin pekatariak. Trafikoa moztuz munipek bidea ematen zioten korteiuak egundoko dardara eragin zion arartekoan; eta oraingoan ere, jantzi izukor hura begien aurrean izatean, alde egiteko premia larria etorri zitzaion, bihotzetik urdaileraino burdindu zitzaion estura sendarrean labanduz bezala. Zelan alde egin baina? Hurrengo goizerarte eutsi beharko ote zuen bertan, galderak larritu egin zuen.

Larridura izu bilakatu zitzaion laster. Gizonaren aldarriak aditu zituen lehenik eta kolpeak atean laster.

–Irten edo atea behera botako dut bestela –gizonaren ahotsaren gainean zartailua aidean eragitearen ziztada-hotsak nabari zituen.

Anak leihoa ikusi zuen salbaziorako bide bakar. Erdi jantzita, bere gauza guztiak eta oheko manta harturik, hari buruz joan zen, denbora irabaztearren gizonari ziotsolarik:

–Egon mesedez, komunean nago eta.

Leihoa zabaldu eta itsasoko usaina etorri zitzaion, umel eta epel.

–Gau giroa dago eta, popatik hartzera, kanpoan egingo dut lo –zioen bere artean.

Tartetxoa zegoen beheko belartzaraino. Defentsa pertsonalerako klaseetan ikasitakoa birgogoratu zitzaion. Belaunak nasaitu, salto egin, behea ikutu eta epa! gorantz, zutunik. Hantxe zegoen, bada, ihes egiteko prest. Akre ere han agertu zitzaion, usnaka. Jabearen usain bera aditu behar izan zion, milizkatzen hasi bait zitzaion.

–Akre, Akre! –burdinezko hesian gora egin zuen eta handik berriro jauzi kanpora. Geldi hor, geldi hor!

Danbada itzela entzun zen. Uhuka alde egin zuen hontz pareak han urrean. Atea behera bota zuen azkenean ere. Leihoan agertu zen gizona. Gerritik gora ikusten zen gizona, soina biluzirik

eta zartailua eskuan, amorruzko puzkadatan eta arnasoska.

–Akre! –deitu eta han agertu zitzaion txakurra–; alde egiten utzi duzu?

Uhurietan urtzen zen txakurra jabearen ahots zemaikorraren beldurrez. Ana ezkutaturik zegoen, gizonak zer egingo zain. Ez zuen ezaguna ingurua, ez zekien nora alde egin. Gizonak leihoa itxi eta barrura egin zuen. Argi guztiak iraungi ziren ostean.

–Tira, Ana, baketan utzi haugu eta, egin lo.

Eta halaxe hartu zuen loak; ofizio horretan arriskuak itzelak direla eta, hasi beharko ote lukeen beste diru iturriren baten bila, iturri epela, haize hegoa, iturri epela, kantu isilean galduta akordua.

Goiz

Goiz jaiki zen gurutzatu, tuno, kofrade, yuppi, abokatu edo zer koino zen zoro zakil hura. Han kanpoan ikusi eta ez zion murtik ere egin. Ez zion gosaltzekorik eskaini. Ezer ez.

–Hor egon zara gau guztian?

–Non bestela?

–Bilbora eroango zaitut, ahaztu gauekoa eta bide librea emango diot txekeari.

Baietz egin zion Anak buruaz. Atzekoz aurrera burutu zuten aurreko gaueko operazioa; garajera jaitsi, motorraren ordez kotxea hartu –Volvo itzel huraxe– eta atea automatikoki zabaldu eta itxi. Zakurraren ahausiak ia gizatiar egin zitzaizkion Anari.

Aurreko gaueko zirkuluak zeharkatu zituzten berriro, banan-banan, abiadan. Volvoaren jezarleku kasik haragitsuetan lagata ipurdiak. Ezkerretara basoa, azkenaurreko zirkulua izan zena bezperan. Bertan basurde zuriak bizi direla amets zitekeen ore ferdea zen, lainoaren magal hezetik burua apurka-apurka ateratzen. Bostga-

rren Zirkulura heldu zirenean hasi omen zitzaion hizketan.

–Nahiz eta atzo nik agindutako guztia zuk bete ez, bide emango diot txekeari, esan dizut. Esaidazu zeozer, ostia!

Anak ezzuen ezer erantzun. Narrutada ordainduaren osteko damuzko arrengura nabartzen zion gizonari. Hitz egiteko premia zuen, dena normal ikusten hasi eta damua arindu zekion.

–Sufri dezala, ze osti! –irribarrea eragin zion mendeku txiki horrek.

Zirkulura heltzeko irrikaz zihoan. Autopistan sartu ziren. Berriro ekin zion txakurkumeak.

–Jantzi barik ikusi zenuen manikiak harritu egin zintuen, ezta? Erreserbatuta dago. «Orden del Santo Sepulcro de Jerusalén» delako jantzia falta dut bilduma osotzeko. Ez dakit zer emango nukeen berori lortzearren.

–Hain gaitza da lortzen ala? –jakingurak jota hitz egin zion Anak.

–Jantzia, egotez, Colon de Larreategiko antigualeko-dendan dago baina, zera, ez dute saldu gura; edo niri behintzat ez didate saldu gura, be-

kaizkeriaz, ze, nirea da halako jantzietan dagoen bildumarik hoberena. Antigualeko-dendakoak berak gustora erosiko lituzke nireak, bai.

–Lapurtu egizu, ba.

–Harrapatzen banaute, edo baten bati hartzeko agindua eman eta harrapatzen badute, eta nire izena ematen badu, zer? Nire estatusa legoke jokoan.

–Jakina, zure estatusa, Abokatu Jauna. Eta zure ohorea, Roger de la Flor, Rikardo, Arturo?

–Zer ordaintzeko zara prest? Emaidazu zure tarjeta, traje hori manikiaren kartoizko soinean laster izango duzu eta. Larunbatean bertan, gauerdian, zeurea izango da. Neuk deituko zaitut eta nora agertu beharko duzun esango.

–Nire izena ez duzu jakin behar ba!

–Lasai gizona, jakin badakit, zeure paperetan begiratuta gaueon; baina trankil, Hilobi Santua bera baino mutuago egongo naiz eta. Bioi komeni zaigu, ezta?

–Eta zoroak tarjeta eman zion –Elbirak amaitutzat eman zuen azalpena.

Emakumeen plana begibistakoa zen zein izango zen. Jezarri barik kaka egitea baino erra-

zago izango ei zen –Anaren hitzetan– bizarkaria ekoizteko dirua maniakoari ateratzea, jantziaren pagutzat. Dendako kristalean harrikada jo, kristal apurtuan zehar eskua sartu eta, hara! trajea, eta dirua berehala.

Deskalabroa, garaipena baino errazago eta maizago gertatu izaten da, aitzitik. Desagertua zen jantzia erakusleihotik. Aurrea hartu zien baten batek emakumeei; nork eta K-M sinatzen zuen taldeko emakumezko buruzagiak.

Jantzien lapurreta

Nik gartzelatik irtendakoan ezagutu nuen, gainerakoak baino beranduago beraz. Bera eta berarekin ihardun zutenak izan ziren jantzien mugida guztikoetarik harrapatu ez zituzten bakarrak. Hori zela eta, harro agertzen zuen bere burua. Egunkarietan izandako eztabaida eta eritzi-talka zaratatsuaren eragileak nortzuk ta eurak, Kultur-Muturrekoak.

Izenarekin ere gogoratzen naizen legea azaldu zidan, Smith izen arrunta duena, haiz zuzen ere –tebeoetako hiru soldadutik batena, bataz beste–. Aipatu zizkidan gainerako izen gehienak ez bezala gorde dut berau. Bestela, nire oroimen-neurona ezaxolatiek ez didate ezertarako balio. Lege horrek osatzen du ekintza zuzenaren lehen oinarria, zera «korapilotsuagoa sistima, are errazago, konponezinago eta sarriago matxura», edo antzeko zeozer, buruz esanda eta laburbilduta.

Kafegailua –esaten segitu zuen–, gaur egun, izorratu eta sastarrontzira jaurti, halaxe egiten

da, ezin konpon dezakezu eta; lehen berriz, ia beti ere, eskutxoek ahal izaten zuten konpondu. Lege soil baina sakon hau Marvin ez dakit zer antropologo yankiaren liburuan irakurri dut, ze yankiak nahi duzuna baina, halako zertarako ez dago hoberik; eurek asmatu dute munduan dagoen ia dena, «berakatz psikodelikoa» horren barruan dela.

Hortxe dauzkazu bankuetako alarma sistimak, adibidez; arriskuak ugaritu ahala biderkatu egin dira espioitza-sareok abiarazteko aitzakiak ere: sua, leherketak, zerrail-bortxaketa, kristal-apurketa, kamara-begien itsusketa, kea... Edozein ordutan, zeingura kaletan, alarma-adarren bat jotzen ari da. Zer dela eta? Ustegabekoren bat gehienetan, besterik gabekoa; hara hor kaleak eskandaloz bete eta txakurrak halako sasilorratzean –inondik etorri ez eta inora ere ez daroana gainera–, usaintzen jartzearen arrazoia. Smith-en legea, lagun, Smith-en legea! Kalean, olgatearren edo, autoetako ateak ikutuz datorren umeak abiaraziko dizu alarma, konturatzeke. Ume-jokoa da alarmena. Begira, umetan egiten genuen legez egitea baino ez daukazu.

Egunkariko orri multzoan bildu berbenetako lehergarriak, su eman eta bankuko etartean jaurti. Entzun, txo, lagun, bankuetako etarteak be etarteak dira, ezta? –galdetu zidan, aurrera egiteko behingoan. Minutu erdi barru danbadaka hasiko dira lehergarriak sailean eta alarmak chips-irrintzi sostenutoa joko du. Ordurako, poltsikoan daroazun edozein giltzaz, zein buru-orratzaz, hurrengo dendako ateko zerrailan saiatu ondoren, horko «jabearen ahotsak» ere «eztarrihartu» nahi izango du kontzertuan. Sastarrontziak osti ederra jo dezake boutiqueko erakusleihoaren aurpegi gardenean; alarma garramatua suerta daiteke horkoa. Espraiak, berriz, automatikoak, txikika eta «itzulera gabekoak» dira. Hurrengo bankuko kliskadarik gabeko telebistabegi betierne papalerdoari betaurreko beltzak margoztu eta madarikatu egingo dituzu zeure belarriak, ze «dirua gutiziatuago, ulu elektronikoak aluago», The Clash-en kontzertuetarako adinako watioduna du-eta abozgorailua.

Egia da, guzti hau egin orduko hobe duzu semaforo sistima izorratzea. Erraza duzu, benetan. Kalean bertan daude kontrol-kutxak. Sirenei oso

ondo datorkie argi horiak kinuka hastea. Azken finean, tekno-popa bera, zer da besterik, burgeseriaren semaforo izorratuei dagokien alarma-hotsen dantza errepikakorra baino? Sinestu hau, lagun, laster desfile militarrak «tekno» musikaz egingo dira. Tira baina, ez gara adarretan eta abarretan galduko.

Sabotaia artea da –halaxe esan zidan, bisaia irribarrearen argitasunez aldatzen zitzaiolarik. A! eta arte erotikoa, izan ere. Smith-en legea ezda ezer artelan guztietan kontuan hartu beharreko beste lege hura barik, badakizu, «hondoa eta objetuaren» erlazioaren gainekoa hain zuzen ere.

Argia ez da ikusten, isiltasuna ez da entzuten. Sirena hotsaren gainean zamalkatzen den sirena hotsa, hori zelan nabarmendu ez dago, lagun. Hala da ze, Colon de Larreategiko antigualeko-denda horretako leiharra altzairuzko arrodamanduez –tiragomak Euskalduna-ko hartako lehen gatazkakoak, primerakoak, halaxe esan zidan arren ez nion aipatu neu ere bertan ibilia naizenik– laupabost aldiz jo eta apurtzean abiarazten den ahausi elektroniko bere buruari berari monotonoki jarraituak, ez du inor asalda-

razten horrek. Nahikoa zeregina dute, txakurrek eurek ere, alboko kalean.

Oinezkook, eroslegaiok erakusleihoaz barrukoari so begiak galtzea zeharo ez eragoztearren –zelan saldu bestela?– zeharka jarrita dagozen burdinak ez ziren oztopo gaindiezina izan nire beso luzenga hauentzat. Mendekua era askotara hartzen da, hotz ezezik. Eskolan gelako adurrazto guztiek «eskeleto» esateko zuten aitzakia, beso luzeegiak izatea, hain zuzen, berori da nire armarik erabilgarriena; eta doazela zakila haginkatzera hortik horrantz.

Traje madarikatu horrek badaki lana ematen. Gainera, ostiral gaua izanik, inguruko alkoholtzuloak putaz, funtzionariz, txaperoz, despedidakidez eta gau-txori-txoro halakoez gainezka izaten direnez, joder!, begiluzez betetzen hasi dela denda ingurua eta ni, gu, denok, artega eta aztoratuta, ez ote gaituzten harrapatuko madero kamuflatuek, ze zuk badakizu halakoei zelako kilikiliak egiten dizkien ipurdian esan dizudan fauna horren erdian ibiltzeak.

Bada, apurtu dugu kristala, hasi da sirenotsa eta burutu dut «ekintza zuzena». Burutu ere, fe-

minitatea apurtzen ei didaten alikate-besooi esker burutu nuen lana, dendako gainerako bitxikeriei jaramonik egin gabe horregatio, nik neureari ekinez.

Ikusi beharra dago ze jantzi kakamokordoa den bera eskuratzearren larrua jokatu duguna. Bularraldean gurutze gorria, lau ertzetan bigarren gurutzearen deseinu idorokatu baino egiten ez duten beste lau gurutze txikiago, dena lihoaedo ematen duen ehun morkoan josita. Ehunari halako usaina zerion ustel-kiratsaren antzekoa, larregizko alkanforrak ere ezin kendu ziona. Ikuzi barik zegoen urteetan eta, gainera, bularraldean, bihotzaren lekuan, sekulako apurtura zeukan, txarto emandako lau jostorrazkadez josita. Halako jantzi potrozorririk!

Gurutzadetako jantzia dela, museoko pieza, parebakoa, bakana... Bertako batzuren jantziak ere museokoak izango dira hemendik urte batzutara. Baina, zer dira museoak, burgesiaren ideologiaren azken gordelekua baino? Zer dira museoak, menpekotasunaren era sofistikatua baino? Lehenaldi pasatua merkatalgai bihurtzeko bidea eta, beraz, hilen zorigaitzeko lepotik

ere negozioa egiteko bide itzela dira etxekok eta enparauak. Museoak terrorismoa dira, ze, halako objetu pilak, izen sortak eta egile andanak, ikaratu besterik ez dute egiten. A! eta beti ere zitaren bat ahora ekartzeko aitzakiatzat balio duela eta guzti hori kontuan izan, harako pintore italiar ero renazentista hark zioen legez... Kakazaharra!

Antigualeko-dendaren inguruan bildutako batzu bai izan zitezkeela museo-piezak. Zertan ez hartu, hil, disekatu eta gero, zera, museora bidali, ohar eta guzti, esanez, «hara, hemen igortzen dizuegu funtzionari, txakur edo ministrari disekatu hau, ondo gorde dezazuen, etorkizuneko belaunaldiek gaurko gizarte hau zoriontsuago egiten duen ordenuaren oinarriak «no(r-l)akoak» izan ziren jakin dezaten».

Galdu egiten dut haria. (Berotu egiten zen teorietan neska, bai, haria galtzeraino). Kontua da han agertzen direla, neu baino histerikoagoak, hiru edo lau neska, traje hori gurea da esanez eta Kristo Gurutzeratuaren erronka sortzeko asmo sendoaz, susmatzen zenez. Horiek bai museokoak, neure artean esan orduko, eskuetara heldu garela. Normala denez, ikusleak no os ma-

teis tias, zer da hau, déjame en paz, geuk ikusi dugu lehenago... Iskanbilaren erdian han egin nuen hanka –edo burbila– neure mobilette preziatuan (berau entzutean otu zitzaidan haren ezizena, Maribetti).

Beranduago jakingo nuenez, txakurren argi birakor berdeak eskaparatez eskaparate labanduz dendara hurbiltzen antzeman eta behingoan egin zuten alde guztiek, bai «aiskiriek» eta bai trajeguraz geratu ziren beste neskek ere. Kuzkuzeroek ez zutenez ez espaloirik, ez kalerik ez ezer despejatu gura izan, marroiek porrei eutsiko zieten, osti pare batzu erregalatzeko asmotan. Betikoa, azkenean, policía asesina! hogeiren bat metro haruntzago egoteak ematen duen ziurtasunetik misiltzat jaurtita aldarriok, korrikaldiak, errefuertzuak, kepoteren batzu, autoak gurutzatuta eta abar. Beti betikoak betikoan. Gerra «katomikoa», txakurrak ere ordu horietarako katu eta guzti ibiltzen dira-eta, mozoloak halakoak! Katudun baketsuek, berriz, zein kupeletan sartu ote duten burua, euren buruari galdetzen, eskenak errepikatu egiten zaizkielako, delirium tremensean baino sarriago manifaz beteriko hiri

edo zulo honetan. Jefaturan, berriz lasai baino lasaiago habitualak, «la de esta noche no va con nosotros», sinestuta, pozarren.

Emakumeok –gaineratu zuen izena gorde beharra daukadan beso luzengadun neskak– naturak genetikoki geure geurea den akats eta guzti egin ei gaitu, zera, halako gutxiagotasun fisikoaz. Bale, orain arte halaxe izan ote den ala ez, nik neuk ez dakit. Dakidana da, berriz, orain arte lan asko ukatu egin izan zaigula, behar hainako indarrik ez dugula eta. Adibiderik? Miloika, infinitoak, mehatzetan hasi eta kamioi-kabinetan amaituta. Orain, baina, mendekuaren garaia heldu da; eta sasoia izan da. Elektronikak ibilarazten ditu makinak eta elektronika erabiltzeko, garunak besterik ez da behar. Emakumeok ere sabotaiarako bidea dugu, ume mokorik mokoenak duen antzera. Ez da nahikoa «Otordu bilutsia» zein «Yonki» irakurtzea, «Lana» ere irakurri beharra dago eta Toni Negri, Antonia Negri nahiz Antonio Negriren laburdura da. Hala da ze, sabotaiarako kanpai-hotsik aditzen ez baduzu, kanpai-mihiak eurak ere saboteatu egin ditugulako

izango da, sinbolo faliko-klitorikoak izateaz gain...

Ez nien belarri barrutik garunetarainoko bidea luzaroagoan eskaini haren hitzei. Azken batean, ni neu, komisaldegian eta gartzelan hartutako ostien igurtziaren ondoriak ezer ere egin barik egon egonean egotearen bestelako igurtzi gozoaz kentzen saiatzen nintzen bitartean. Jantziaren mugida argitzen baino ez nenbilen, filosofia politikoa ikasten barik.

Halaxe jabetu omen ziren jantziaz, Zitrona eta biok Isa Billiren etxean izan gineneko gau berean, Elbira arnasestuka heldu baino minutu batzu lehenago. Elbira bera ere huts egindako lapurretan tartekoa izan zen. Sabotaia hau, Maribettik gurago zuen hitz hau lapurreta baino, kate luze bateko azkenetarikoa izan zen.

Katuari esker

Katuak leihoaz kanpora jauzi egin zuela eta teilatura alde eginda zegoela esan zuen Elbirak, jantziarekikoak artean ere belarrietan dantzan nituelarik.

Ez dakit zertan igarri zuen katuarena, sukaldetik ez bait zen gauza handirik aditzen.

–Antoito –ozen heldu zitzaidan aldarritxo alarmatua jaurti zuen–, erdu, erdu txoritokira, arin!

Txoritokira irtetean egun argia urratzen ikusi nuen. Burua goizaren besartean murgiltzean berriz, gau luzean lokartuta izandako hogeitalau ordutako akidura asaldatu egin zitzaidan giharretan. Burukomin leuna neukan, atsegina ia, loguraren mugan itzartuta iraun arazten zidan noiz behinkako kinada bait zen oinazea. Denbora tartetxoa eman ohe gainean etzanda eta goizari haginak erakusteko moduan izango nintzen. Larunbateko plazereen katalogoa zabalik neukan, txartelaren mugida gorabehera.

Urrunean gori gori ikusten zen Teilatu eta Ganeko Ortzea. Autopistako argiek gandor horiska hedatzen zuten hiriaren buruan. Gandorreko ile zorrotz eta tente gorantz orraztuak ziren goiz errainuak, lainoan iltzatzen. Heze zekarren goiza, eguerdirako eguzki astuna agintzen zuelarik.

Isilik sumatzen zen kalea. Elbiraren keinuari jaramon eginik, teilatu-hegaleraino luzatu nuen burua. Kale baketsuan auto bakarra aparkatuta, espaloi gainean jarrita eskuinaldeko gurpilak. Kapotaren gainean jezarrita tipo mozoloa; beste bat bolantearen aurrean jarrita bide dago, ukalondoa bait dakusat leihatilaz kanpora aterata.

–Txakurrak ditun. Kutxazain automatikotik irtetean ikusi dugun auto berbera dun, nik uste. Itxaroten ari zaizkigun.

Katuek badute deabruena ei den zeozer eta ordukoan ere Isisen izpiritu berraragituak gidatu gintuen arriskuaren hurbiltasuna usaintzera. Une huraxe arte egon nintzen, bai, ugaztun larrubeltz bibotetsuak eta jabeak, ahoaren tajukeraren aldetiko elkarren sekulako antza ikusi barik. Ireki egiten zitzaizkidan adimenaren ateak, nekearen

nekeaz, garun lokartuetan, ziurtasun osoaz eta ustegabean Elbiraren eta katuaren ezpainetan Mona Lisaren irribarre bera ikusi uste izan bait nuen. Leonardok katua pintatu zuen emakumearen aitzakiaz. Harrez gero ez dit alde egin orduan izandako flashada horrek. Mona Lisa katemea da.

Katuarekin ahaztuta behingoan, inongo ezein zalantzari lekurik uzten ez zion argitasunaz, txakurren irrati koarteleroaren zarata heldu zitzaigun, bihotza ia lekuz aldarazi ere egin zigun ikarakada joz. Mikrofonoa frogatzeko egin ohi diren puzkadak, bolumena goregi eta tabako erretzaile eskegiaren ahotsa:

–Qué pasa en esa jodida calle como se llame, Cobra? A ver si dais alguna señal o es que os la estais cascando. Cambio.

–Aguantad ahí hasta que lleguen refuerzos para proceder a un registro; llegarán dentro de una hora o dos. Aguantar eso y se acabó. Cambio.

Sukaldera itzuli ginen. Ez zegoen inor. Gutaz paso olinpikoki eginda, atzera ere elkarrekin

oheratuak ziren Zitrona eta Billi, ohe nik hain gutiziatuan. Gelako atean jo nuen.

–Zitrona, mesedez, txakurrak diagozan kanpoan. Hanka egin beharko dinagu, hala edo zelan. Zer uste dun?

–Zeozer pentsatuko diagu. Logura nauk. Gabon. Konpondu hadi Elbirarekin eta egik lo heuk ere, falta daukak eta.

–Heure alua eta ditiak, neska! Ordubete barru etxeak miatzen hasiko ditun; beraz, hor konpon, grandísimo pendón.

–Jeloskor hago beste honekin oheratu naizelako ala? Nik kutxazainean jotzeko prest nagoela esan diat, ezta? Utzi baketan orain, gela hau kutxazain automatikotzat jotzen ez baduk behintzat.

Azken hitzok ez ziren ilunegiak izan. Galduta nengoen etxe hartan, bat batean arrotz bihurtu zitzaidan Zitronaren jarrerak defentsa barik lagatzen ninduelarik, bertan behera, ahizpa ezagutu berriaren menpean.

–Erdu neugaz. Geu konponduko gaituk.

Elbiraren gelan ez zegoen oherik. Gomaspumazko koltxoia –indioen artesau-lanak ei diren

halako oihal koloretsuaz estalita bera–, ikas-mahaia liburuz beteta, nik uste Duncanek teilatura bertatik hanka egindako erabilitako leihoa eta gerrirainoko armairu txikia; zokondoan, berriz, musika-pletina, disko eta kasete ugarirekin. Gomaspumaren gainean etzan nintzen. Aurrez aurre neukan hormako poster bakarra. Topikoa. Pailazoa ilargian jezarrita, malko bakartia masailean behera dariola jausten, dena pastel koloreetan.

–Ez dinat sekula santan ulertzerik izan zer dela eta gogorrak ematen duzuen neskok be halako posterrak, sentimenduz egindakoak, zer dela eta dituzuen hain maite eskena kutre eta light halakoak.

–Politta duk; erregalua gainera; ohemoduko horrexetan bera eta biok enroilatzen gintuan neskaren oparia. Dena dela, berdin ziok horrek orain, kontuaduk zelan osti egin beharduzuen alde; horixe duk orain kontua.

–«Duzuen» ez, duan baino, ze Zitronarena garbi diagon. Berak jakingo din, ni ez naun inoren aingeru jagolea. Ez banoa disfrazatuta ez diakinat zelan ekidingo ditudan horko txakurrak.

–Despistatzeko era bakarra disfraz sinesgarria hukek. Emakumez jantzi haiteke. Ez diate emakumea haizenik sinestuko, ia ziur, baina bai behintzat trabestia haizena, horretara jarriz gero.

–Askoz errazago sinestuko dinate holakorik alboan gizonezko «emetua» eramanez gero.

–Bazekiat mutil itxura dudana nire titi ttikiokin. Ilea, ostera, nire agiriko atributu femenino nagusia duk.

Isilik geratu ginen Iuzaroan. Elbiraren adats ederrean iltzatu nituen begiak.

–Egiptziarrek soildu egiten ei dinate burua, ze alde hori askoz ere erogenoagoa ei dun hala, ilerik gabe. Hik katua maite dun. Zertan ez Isis bera maitatzen ikasi ere?

–Heuk moztuko hidake ilea? Beharbada ez duk ideia txarra. Nik berriz, bizarra kenduko diat hiri. Zikirotu egingo diagu elkar. Ez duk hala?

–Nik neuk bizarra, beste ezergatik barik, elgorriak eragindako zulotxoak ezkutatzearren uzten dinat hazten, ala ez haiz fijatu?

–Heuk aukera musika.

Halaxe agindu zidan gelatik irteten zelarik. Disko guztien artean Leonard Cohen aukeratu nuen, «Various positions» hura zeremonietarako kutsu magikoaz betea delakoan egon naizelako beti. Itzultzean, artaziak, aulkitxoa eta orrazia ekarri zituen, bainugelatik edo. Eskura eman zizkidan. Armairuko atea ireki eta agirian utzi zuen bertako izpilua. Leihoari lepoa emanda jarri nintzen, aulkia gelaren erdi-erdian utzita. Bera jezarri egin zen, armairuko izpilua ezkerretara zuelarik.

–Prozesu osoa kontrolatu nahi diat.

–Ile guztiak geratuko zaizkin azalean iltzetuta. Zergatik ez dun blusa kentzen? Ez haiz lotsatuko, ezta?

Esku biez barrenetik eutsita, altxa egin zuen gonaren zeregina ere betetzen zuen blusa luzenga. Bularralde biluzian kirtenik gabeko txanpain kopa parea eman zidaten titiek. Haren bizkarrezurreko ornuak banan bana konta zitezkeen. Gerria baino apur bat beherago oihal-zati niminoa, ez zuen besterik soinean. Ipurdi-mami estutuetan behera galtzen zen hezur lerroa, haragitsu iradokitzen zitzaidan alde ezkutu hartarantz. Ga-

rondoan musukatzeko grinak jo ninduen, adatsa alborantz kendu niola. Gogortu niri apur bat kikila eta areagotu egin zitzaion Gioconda keinua ahoan.

–Sujetadorea erabiltzeko adinera helduta nengoela erabaki nuenean, erosi eragin nioan amari. Alferrik huen, baina bera barik ez nintzela emakumea sentitzen nian. Gorapiloa izaten nian urdailean hamar urte bete nuenetik aurrera, helduko ote ninduan inoiz atributo horiek ere eskuratzera, bularreratzera –barre egin zuen–, besteak bezalako emakumea izatera, duda horrek osasuna janda bizi ninduan.

Bera hasi zen berez berbetan, nik ezer esan barik. Halako adinarekin neuk ere zakila neurtu izaten nuela esan beharko ote nion? Isilik segitu nuen artazia sartzen ilegurizko baso hartan. Buruaren inguruan lehen ebaketa burutu nuenean izpilurantz begiratu zuen.

–Frailea ematen diat, buruan kazulara ipinita ebagi balidate legez niagok. Egik ganoraz egin beharrekoa.

–Tira! Ezegon izpilurantz begira. Egin beste edozer, bizartegietan legez leidu edo.

Leonardek neskaren bati egiten zion dei kantan, ohi bezala.

Elbira jaiki egin zen. Liburu artetik gutunazal fuksia atera zuen. Atzera ere jezarri eta barruko eskutitza irakurtzen hasi zen, irakurriaren erritmoaren arabera egiten nizkiolarik ikutuak ebaketari. Areago, Elbiraren buru berrian berridatzita geratu zen, artazi-klabean, paperean izkribiturikoa. Tutik ere ulertzen ez nuen kanta haren letran Leonardek ere halaxe zioelakoan egon nintzen, Elbirak lerroak irakurri ahala koru bakarrekoak bilakatuz joan bait ziren ahotsak, gizonezkoaren sakona eta neskaren garden eta urtsua, biak.

Berton doakizue. Birari –Elbirari– zoro hark egindako eskutitza.

Mailona, aurtengo apirilak 12. Oi ene Elbira:

Esperma barruan ei dabiltzan izakitxook, liburuetako irudietan buztantxo luzengaz horituta ikusi ohi ditugun horiexek, bai, zapaburu beltzak balira, Elbira, igelak haziko lirateke –a ze guateke!– ene oheko izaren artean, zeure diti borobil sotilak, zeure ipurdiko –nire ardatzak, halako zein beste gurdi?– haragi puztuak, zeure ezpain

sagartsuok, zeure gerrian bilakatzen den forma perfektoen arteko «gerria», guztiau kamara geldoak irudimeneko pantailan proiektaturik irudikatuz isuri dudan hainbeste isuriaren isuriaz, hazi ere.

Igelak eta apoak, Elbira, izara artean kroaka lirateke –a ze guateke!– gau eta egun Elbira, hots hain arrunt eta errepikakorrean ere sorginen sekretuen giltzarria izan litekelakoan, ezen sekretu horren jabe izanez gero, zelan egin genezakeen larrutan, Elbira, edozein ordutan, zeinahi posturatan, edozein aitzakiaren aitzakiatan. Nik zure atean jo

–dan!, dan!

eta zuk:

–Irekiko dizut oraintxe bertan.

Igelei begira izango nintzateke –a ze guateke!– beti ere gogoan izatearren zelan animaliatxo horiek ere harako esperma hartatik sortuak diren, zelan izan ei zen behin inork ere maite ez zuen neu bezalako mamu itsusi ikaragarria, zelan maitemindu ei zen gizaixoa jaramon tindirik ere egiten ez zion neskato harekin eta zelan behin Haragizko Ametsak –bera ere erreka albo-

an jezarrita zelarik– ile adatsak –burukoa ezezik bestelakoak ere, koketa itzela bait zen– zelan, berriro diot, zelan orrazten zituen, hori guztia inguruko sastrakada batzutatik ezkutuan ikusita eta errekako urarekiko bekaitzak jota –urak (berak ez bezala) maiteminaren irudia jotzen bait zuen–, zakila atera, neska zegoen lekurantz apuntatu, igurtzeari ekin eta, hara non!, zer itsaskor hura beltz irten zitzaion, halako suertez eta maneraz errekara jo zuela zuzenean eta errekan, handik eta ziklo biologikoak eskatzen zuen epearen burura, zapaburutxoek errekako ur txikiko hondo-azala estaldu zuten, ostean –berriro ere ziklo biologikoarena eta guzti hori– igel zein apo bihurtzeko, espermarena den sekretuaren araberakoa zelarik azken nabardura hori.

Esan eta esan egiten diot neure buruari, ba, igelkizko ukenduren bat ez ote, bera erabilita eta beraren ahalmen boteretsuen eraginez eskuak zure gerrialde preziatuan pausatzea izan dezadan, zeuk niri

–beherago ere luza ditzakezu garrook

esan eta laketasunez estututa har nazazun zure beste ezpain hagingabeko horietan, atsegi-

nez, Elbira, sua ekartzearren hilik datzan nire zuzira.

Halaxe izango balira, Elbira, gure gorputzak elkarren harietan nahastuta tira eta bira, joka eta burua ere loka, plastikozko boltsatxoa –estaldura-kapusai miragarri hori berori– bai, jarriko nuke, arretaz, ene arduren gailurrean, aldetan behera hedarazteko gero mendi osoaren luze zabalean larrualde iletsuraino, ondoren lasai lasai jotzeko guk biok eta

–banator, oraintxe

esanda, zapaburutxoak –eta guri, zer?– kautxuzko horma mehe malgu horren kontra jotzeko. (Izakitxook fustratua? Eta guri, zer?) Aldian behin, kapusaia erantzita, marapilotxoa estutu eta errekara abiatuko nintzateke –a ze guateke!– bertan leku estrategikoa aukeratu eta, hara!, uretara jaurtiko nuke gomauntzia.

Erreka halakoxe «Holandar Errakorrez» beteko nuke,

–zin eta mu, batzutan neu behean, besteetan zu, arinago, astiroago,

–zer diñozu?–

itsasoraino dena plastizitate konplizez estalduz.

Erreka bidea zeure iturrirainokoa bezain ondo ezagutzera helduko nintzateke –a ze guateke!–. Lehenengo bidean hanka bi nekatuko nituzke, bertan joan eta etorri, gora eta behera.

Hirugarren hankatxoa aldiz, beste bide horretan aurrera eta atzera sartu eta irten akituko nuke.

Gomauntziak lehertuta noizik behin, zulatuta edo, izakitxook askatu egingo lirateke –a ze guateke!– libre, errekako ur zikinetara, ur lohietara, ur pozointsuetara eta, nork daki?, egunen batetan igel zuriak sortuko lirateke beharbada; edo beharbada gorriak, edo laranja kolorekoak, edo fuksiak, aintzat larrutan egindako unearen kolorea zein desioen pigmentuak zein arnasaren tormentuak. Imagina ezazu, esaidazu, Elbira, ez ote igel-apo ederrak, hala sortuak balira?

Elbira, egunak zu barik ezer ere ez dira; gauak, aldiz, zure minez krokroka apo-ametsez beteak dira. Elbira, egin dezagun errekarako bidea, zure iturrian abiatuta, nire gailurrean behera, dition inguruan, izara arteko zeruan, hanka

akitu arte, iturria agortzen deino, maiteno, itsasoa goma erabiliez bete arte.

Makilaia

Atzetik begiratuz gero mutiltzat ere har zitekeen Elbira, sexu-ezaugarri mugaturik ezaren eremu zehaztezin eta aldi berean izukorrean kokatutako estatuen buru ederra bait zen neskarena. Bortizki deitzen zien nire eskuei buru txarto borobildu hark, laztan zezaten.

Ile apurrak kentzen hasi nintzaion, berak aurrerago erantzitako blusa astinduz hasieran, esku hutsez gero eta puzkada leunez azkenean, irakurri berria zidanari ezer ere gehitu gabe.

–I, i, i, putz egiten didaanean kilikili egiten didak.

Oilo-ipurdi bilakatu zitzaidan lepo inguruko lurraldea. Tenteagotuta zituen ditiburuak ere. Puzkadak bizkarrezurrean behera etor zitezen utzi zuen. Galtzarbeetan haginkatu nuen, ezker eta eskuin, garondotik ipurdirainoko bidean behera berriro jo baino lehen. Gerrialdera heldu nintzeneko zutitu egin zen.

–Heure txanda duk, ez baduk zirkuko emakume bizardun trabestitua eman gura behintzat. Jezarri hadi.

–Badakin baina bizarra mozten ala?

Ikaratuta nengoen. Ez zuen ezer erantzun. Gelatik irten eta atzera sartu zen. Buztinezko katilu apaindua zekarren eskuetan. Katilu barruan, brotxatxoa. Xaboitzat egunero gela erabili gura zuen, antza, bertan zekarren eta. Gela uretan bota, eragin eta aparra sortu zen. Estrainatu gabeko plastikozko aitzur merkea eskuetan hartu orduko musikaz aldatu zuen. Hasieran doi-doi entzuten nuen zer jarri zuen.

–Hik uste, zerez kentzen diat hanketako bizarra, Antoito Kortito?

–Nork bidali din eskutitz hori? Txertatu egin zain errima merkeak egiteko abilidadea.

Musikaren bolumena gora zetorren berez. Ravel-en Boleroa. Ikaratu egin nintzen. Xaboia nire aurpegian hedatzean erakusten zuen lasaitasuna ez ote zen abiadura gero eta arinago bilakatuko, beldur nintzen.

–Behin telefonoz jotzen zidak tipo batek. Ez diat ezagutzen. Nor naizen galdetu eta kanpaia

jotzen ari dela ziostak, ea zer erizten diodan nik horri, ez nauenentz bero jartzen nigatik egiten duena jakiteak. «Hau tipo hau zoratuta zegon, burutik guztiz eginda; horren teilatuan zikoinak bizi ditun eta haizea Gorbeian baino libreago zebilen batetik bestera, ziur» pentsatu nian. Eta hara non diostan ea nola nagoen jantzita, zergatik ez naizen biluzten neu ere; tira, halako gauza mordoa erreskadan, arnasestuka. Azkenean, «etorri egin zait, zeuregatik, ipurdi zoro» esan eta telefono zenbakia ematen zidak, inoiz deitu gura badiot, badaezpada ere.

Amaitu Boleroa eta eginda neukan «bizarra». Ilargitarra ematen zuen nire aurpegiko azalak, hala, bizarrik gabe.

–A gizon! Nirea entzunda daukak eta, konta ezak heure pasadizoren bat, makilaia egiten diadan artean.

Irten egin zen. Zeozeren bila. Besartea gauzez beteta itzuli zen. Zer da hau! Harridura irakurri zuen ene begietan. Disko berria jarri zuen. The Cure ote zen berriro?

–Makilaiaztu egingo haut. Profesionalek baino hobeto. Hasi hadi historia kontatzen.

–Zein berba erabili ez dakinat baina. Lotsatu egiten naun. Non ikasi dun makilaia egiten?

Gerrirainoko armairuaren gainean hedatu zuen ekipoa. Kristaluntzi biribilak, akuarela kutxa ematen duen hori, brotxa zabala, rimmela ezartzeko bestea, kotoia, zorrotxoa, alkohola, zer ez ote zuen ekarri!

–Hamahiru urtekin makilaia huen gure tema. Eta ez gaiari ihes egin. Hitzen beldur ote haiz, ba? Hitzak maskaratu egiten badituk, bizi izan duana ere maskaratu egiten duk. Geuk asmatzen ditiagu maskarak, hitzak, eta ez diakagu maskaren bildur zertan izan. Ala besteren bat da kontua? Gizonezkoen artean erabiltzen dituzuen hitz gordinak erabiltzearen beldur?

Hitzok gaindituta nengoen. Kotoi-zatia hartu, alkoholetan busti eta aurpegia garbitzen hasi zitzaidan. Begiak ene begien aurrean, lehortuta neukan ahoa. Kontatzen hasi behar.

–Nire zakila ez din berak bezain ondo beste inork ahoratu eta lehertarazi. Larrutan egiteko beraren eraren lehen pausoa izaten zunan; erituala. Beste ezer egin aurretik, isiltasunez, ahoan sartzen zinan adaburua, eta zurtoinari

atzamar biz eutsita, leunki, gozo baina sendo, gora eta behera hasten zunan, sartu eta atera, inoiz osorik atera barik, zatiren bat beti ahoan, eta osorik barruraino sartuz gero, ozta-ozta ez zituela barrabilak eurak irensten, halaxe etorri eragin arte.

–Kutisa garbitu diat. Hidratatu egin beharko orain. Segi, eta ez hadi gorritu.

–Dena irensten zinan. Garbi garbi uzten zidanan. Ez diakinat zelan konpontzen ote zen arnasa hartu ahal izateko. Ez nionan galdetu. Ez geninan horren gainean berbarik egiten. Medikua izanik bera, ondo eta zientifikoki ezagutzen zinan plazerezko bide haren segeretua, ziurren.

Bitartean, Elbiraren esku leunak hamaika bider ibilten nire aurpegiko narruan, ukendu epel hura hedatuz bertan; leuntasun urtsua nabaritu arte; beste egoera bat, edozertarako prest diren ezpainetan izan ohi denaren antzekoa.

–Ez zidanan esperma apurrik apurrena ere uzten. Ostean, larrutan egiten geninan. Han, pantaloi beltzek utzitako lekuan barruratzen zinan zakila.

–Hidratantearen gainean makilaiaren oina emango diat. Usaina zeriok. Ez ziok mundu guztiak atsegin erizten.

–Egia dun, bragekin, prenda hori aldean izanda egitea zinan atsegin. Behingoan konturatu ninduan horrekin. Eskua blusapean lehenengoz sartu nionean ohartu nindunan zelako sujetadore beltza erabiltzen zuen, puntiladun halako apaindurekin. Aukeratua. Morbosoa.

Makilaia-ukenduari zerion usainak trenera eraman ninduen oroimenaren eskuetan. Hor noizean behin jende artean usaindu izaten dudan horrexeri zegokion makilaiari zeriona. Izpiluan nire burua ikusi nuen,filmetako topikoan legez, pailazoa kamerinoan, bere buruaren isladaren aurrean harrituta.

–Ez geninan berbarik behar izan. Praka bakeruen erreteneko botoia askatu eta beherago eroan ninan eskua. «Ene! Hamabost urteko umiak emoten’gu. Egoera plazerezkoa, eta berbok esatea jokoaren partea zunan. Hobeto eingo’gu ogean». Halaxe esan zinan hasierako hartan. Berbotan zetzanan giltzarria, hamabost urte bagenu legez hasi eta aldizkari pornoetako mor-

boarekin amaitzean, hain zuzen. Ohera eroan nindinan. Bertan egin zidanan bere teknika haren lehen froga.

–Eginda dago makilaiaren oinarria. Askotan enroilatzen zinetean ala? Laster emango diat behin-betikoa.

–Noizean behin telefonoz jo eta etorri egiten zunan. Azkenengoz, halaxe deituta neuk, Santiren heriotza gauean egin geninan elkarrekin. Barrikadak jarri zizkinaten Deustun eta geu ere eurotan izan gintunan. Ez zuan txakurrik agertu. Gau estrainoa izan zunan azaroko hura. Bizitzaren halako zati itzela kentzen zigutela sentitu ninan. Zerua, ere, gau hartakoa, eldarnioz jantzita gogoratzen dinat. Itsasoa arnasten zuan gure amorruan.

Begiak ixteko agindu eta akuarela antzekoetan hasi zen zereginean. Pinturaren labankada nabaritu nuen betazaletan. Betileetan ondoren. Rimmela edo.

–Arabiarrek erabiltzen duten beste honekin egingo diat beheko betazal ertzeko marra. Orain, itxi begiak.

–Gau hartan larrutan egitea bizitzari gorazarre egitea zitekeelakoan baina, aldi berean, barru-barrua suminak janda, luzaroan itxaron behar izan geninan, azken pub-erdi-barra-amerikanoa edo itxi arte, ea baretu egiten zitzaigun apur bat barrua. Ez geninan presarik. Etxera heldutakoan ohea eskaini zidanan. Betikoa. «Hor daukazu oge hori». «Gurago dot zeugaz». «Bale, baina ez dogu narrutan eingo». «Ez». Erantzi eta ohean sartu gintunan, ohi legez. Ez hunan gauza handirik biluztu. Arropekiko morboa zegonan, atzera ere. Elkarren alboan estututa berotu gintunan. Eskuak galtzen hasi gintunan laster. Ez diakinat zelan ahoratu zuen. Konturatu nintzenerako etorrita nengoan. Labur egiten zinan; apropos, nik uste. Galdu egin ninan telefono numeroa edo ez zidanan beste inoiz atzera deitu, ez diakinat argiegi zer gertatu zen. Ez dinagu gehiagotan elkar ikusi. Beraren azpiko jantzi beltzen minez niagon. Alabaina gaitz horrek ez din konponbide errazik dagoenerako. Ezkondu egin dun. Kanpora.

Makilaiaz apainduta nengoen. Ez nengoen Palankako asko baino txartoago. Eta gogoetokin nagoela hasten zait Bira soinekoak erazten!

–Ez haiz hola jantzita aterako.

Alkondarako botoiak banan-bana askatu. Alkondara praketako gerri-barrutik aterata, kanpora besoak! Praketako botoiak ostean. Gogortu egin behar. Makurtuta, erantzi egin dizkit praka, barrenetik tiratuz.

–Emakumea haiz eta emakumeak zakilik ez. Moztu egingo diat. Edo neure egingo diat. Kendu egingo diat zakila izatearen kontzientzia.

Halako kutxa atera zuen, armairutik. Zurezkoa eta perlatxoz josia. Barruan, emakume jantziak. Lehenik, sujetadorea luzatu zidan.

–Jantzi hau.

–Besoak tiranteek osatzen duten tuneletan sartzean hotzikara itzelak zeharkatu ninduen goitik behera. Nire atzean jarrita bera, ahoa garondoan doi-doi:

–Neuk estutuko dinat. Eta azpian postizoak jarriko dizkinat–, «to no» bilakaraziz, errolak trukatuta.

Nondik atera zituen «postizoak», ez dakit. Hurrengoa, mediak jaztea izan zen. Hantxe nago, indarra galduta zakila, ematen dudan kuadro tristearen aurrean ikaratuta edo berau.

–Gona hau eta alkondara orain. Paparra agirian eta hankak baita.

Gonan sartzean hankak, sujetadorea jaztean bezala, nolabaiteko zubia gainditzen ari nintzelakoa, edo halakoxe inpresio zehaztezina izan nuen. Ez dakit, ahoan urtzen zaidan karamelo estrainoa da guzti hau. Alkondara lotutakoan, kalerako prest, gonapean biluzirik nagoela kenduta.

Medieieusteko zer zuria atera kutxatik. Morea.Gona altxa zidan. Belaunbikatu zen, astiro, nire aurrean.

–Buelta eman.

Agindu sendo bezain leuna. Gerrialdean bildu eta lotu egin zidan ligeroa. Ondoren, tirantetxoak lotu zituen medietan.

–Berna ederrak ditun.

Hitzok esan eta oherantz bultzatu ninduen, bere pantaloiak kentzen zituen bitartean. Bat batean jausi nintzen. Neure gainera etorri eta:

–Ez hadi bildur izan. Jaso itzan hankak.

Txorkatiletatik eutsita, lepauztaietaraino igo zizkidan belaunak. Kikila tente, ipurdi-mamien gainetik libre ageri zen. Gainerago etorri Elbira eta eutsi zion.

–Berotu egin haiz, ezta? Emakume bihurtuko haut. Neuk egingo dinat dena, emakume bihurtuko haut.

Eskuak txorkatiletatik kendu gabe, bere hankak zabaldu eta kikilaren gainean jarri zen. Astiro barruratu zuen, mihingaina ere ahoan sartzen zidan aldi berean.

–Barruan dauzkan biak –mihingaina une labur batez kanporatu eta, adurra nire ezpainetan zeriola, berriro ttu eginez–, barruan dauzkan biak. Behekoa eta goikoa, bakarra ditun biak.

Ahoko haragi zati borobil eta luzenga sendartuak biraka ziharduen, neure mihi-zati laburtuaren inguruan. Gero, hagin-lerroak banan banan igurtzi, kanpotik eta barrutik eta, noizen behin, hitzak mamurtuz eta adurra dariola, belarrira.

–Ez dun atsegin?

Ditiburuetan haginkadatxoka eta gorantz tenteagotzen den mastatxoan kolpeka, gora eta

behera: berak jotzen ninduen. Leun hasieran, arinago gero. Zer den nirea, sartu egiten dena ala hartu egiten duena, horrekin ahaztuta tindika-tindika. Esperma isurtzean neurea uste izan dut alua eta berea zakila. Emakume antzeman dut nire burua. Eta bera astiro kentzean nire gainetik haragialde hori ere berarekin daroala eman dit. Hutsik geratu zitzaidan hankartea. Pisurik gabe eta plazeraren hazka leuna bertan pausatuta hala ere. Emakumetuta edo nengoen.

–Interesgarria, oso interesgarria. Jantzi ezan zeozer gonapean eta goazen laster.

Praka estuak, larruzko jaka eta bota kanperak jantzita berakbehingoan,kanpora jo genuen. Katua azkengoz ikustean, Giocondarena eritzi beharrean, beraren keinuari emakumezko guztien atzean dagoen gizonezkoaren irribarre dostakaria igarri nion. El-dar-ni-o-a.

–Hoy teneis curro ahí: Ha habido un robo en el Museo. Atención, hay señal K-M, ¿entendido?, K-M, Cambio.

Kafea hartzera gindoazen.

–Tia buena –esan zidan txakurretako batek.

–Museo calle María Muñoz, a 50 metros. Cambio.

Kafea behar nuen.

Museoan

Bizkaiko Kondaira Museoa eskolaumez bete ohi da sarri. Halakoetan urduri ibilten dira bertako zaindariak. Gainera, gaur eguneko umeek halako euskerea egiten dabe! Ate alboko mahaiaren kargu egoten den uniformeduna Mungialdekoa da eta, ia beraz, euskaldun zaharra.

Pasadizo hau gertatu zen egunean ere ume piloa sartu zen museoan, hau zer da, beste hori zer da, ez ikutu ezeri, zenbat etorri zarie, entzun! hona, denok, mesedez! Ez ikutu ezeri, bale? Ederto. Atzera ere, andereño zer da hau eta andereño begira Kepa dago ikututen gauza bat, Kepa ez ikutu, Eider txibata. Beheko solairuko gauzen gainean haizea baino arinago hegaldatu dira gizaixo burrunbatsuon arrano-begiak.

DurangokoGurutziaga imitazionezkoaren inguruan, eskaileretan gora ari direnean umeak eta andereñoak, ez doaz bakarrik. Fernando, ozta-ozta metroa eta laurogeitamar zentimetro luze den troskista ohia, eta Martin ere hantxe doaz, ume artean nahastuta. Martinen lepoan ja-

rrita eskuineko eskua eta ezkerraz barandari eutsiz, elbarrituaren irudia da altua. Eskuineko hanka zurrun darama eta harmaila bakoitza gainditzean itxi egin behar ditu begiak, min handia ematen bait dio, antza, naturak antza zapata eroateko baino beste ezertarako eman ez zion gorputz atal hori. Ostia! Martinek lasaitzeko diotso, ez dela ezer, hara zelako gurutzea; begira ze ondo azalduta dagoen Erdi Aroko eskolastika bertan, Eliza Katolikoaren egitura; zelan geratu den hondar paganoa kristauen erlijioan ere, zer hortxe daukazu arbola sinboloa gisa... Popatik hartzera bidali du altuak laguna, euria hiru aste lehenagotik bisita egin gabe izan arren Bilbon gabardina eta guzti etorri den Martin horixe, hain zuzen.

Argitasun ederra dago lehen solairuan. Busturiako keramika-piezetako azula aratzagoa da goizeko ordu honetan, erakargarriago bihurtuz buztinezko ontziok berez ere duten xarma segeretua. Eskumatara jo dute, alabaina, Fernandok eta Martinek, umeakandereñoen eskutik Bizkaiko Arte Erlijiosari eskainitako gela luzengan sartzen diren bitartean.

Zaindarietariko baten begiek ez dute ume zirinen lorratza galdu nahi, badaezpada ere, ez ote dituzten dagozen baino mutilatuago utziko Andra Mari gotiko eta Kristo erromanikoak, noizean behin andereño ilegorriaren ipurdi-mamiek praken kontra borobiltzen duten artelan hain perfektuan entretenitzen badira ere Asperraldeko Errege dagoen zaindariaren begiak.

Lehen solairuko arkupeta honetan pistolaren historia azaltzen da liarrezko beirarasa horizontaletan; bertikaletan, aldiz, ezpata bihurtu zen burdinaren antologia dago. Harago, metalezko hiru peto edo bularresi. Zenbatek galdu ote duen bizia arma horien erruz, galdetzen dio largoak baxuari, uneko filosofo senak gaindituta bere ohizko zuhurtzia.

Erdiko beirarasa bertikala aukeratu dute zereginerako. Erraztasunez kendu du Fernandok gaineko leiarra. Beso biez ipurdipeko bueltan eutsita Martini, eup! gora altxatu du altuak baxua. Azken honek XV. mendeko ezpatatzarra hartu du. Behin behearen gainean jarrita oinak berriro, eskutokia kendu diote ezpatari, halako errazta-

sunaz non susmo txarra hartzen duten, ez ote faltsua altzairu-zatia.

Ezpatorria Fernandoren hankaren luzerakoa da. Bai, ederto sartzen da praka-zangoan, hankaburutik txorkatilaraino. Eskutokia aldiz –hori dok moskeoa– gabardinako poltsikora. No problem. Oraingoz behintzat.

Bigarren lana beirarasa bi haruntzago dagozen hiru bular-babesetariko bat aukeratzea dateke. Zabalena aukeratu dute. Jertsea erantzi eta bularraldean frogatzen du Fernandok. Kakazaharra! Zabalegia da.

Zaindaria umeek burutik behera kaka eginda edo andereñoaren ipurdian eskegita geratu da, antza, ez bait du muturrik erakusten. Okerreko pieza hartu dute. Bularralde zabalegia zaldun harena, ala Deabrua!

Hurrengoa ostera, berarentzat eginda bezala datorkio. Hobeto ba! Jertsea petoaren gainean jantzita ez zaio ezer ere igartzen.

Alde egin du Fernandok. Eskaileretan behera nekez dator, hanka hori tente-tente, ezer igar ez dakion. Gurutziaga gurutzean behera labantzen zaizkio begiak, erdi negarrez, adaburutik sus-

traietaraino, hor erakusten den giza-historia laburbilduari jaramonik egin gabe, kaguenka jainkoari, mekaguenka Ama Birjinari, mekaguenka santu guztiei, pekatariei bertan zizelkatuta iragartzen zaien ifernuaren bildurrik gabe.

Ateko zaindari euskaldun zaharrak atea ireki dio, kupidagabetuta, Largoari, aurpegian ageri bait du zelan sufritzen duen. Eguraldiaren erruagatik dela diotso, beti-beti berdin jazoten zaiola, ze eguraldi zantarra dakarreneko, zas! hankako mina; ez, ez da jaiotzezkoa, istripua baino. Gogaitu egin behar berton, ezta? Beste ezer baino okerrago, umeak eurak, kaguen zotz, atrapa egiten deutsoe burua edonori. Tira ba! Bai, agur.

Zuzen-zuzen, aurreko tabernan sartu da Largo, Martinek hurrengo solairura igoten duen artean.

Bizkaiari eskainitako solairu horretan ezdago inor. Eskaileretan gora igon eta beste aldean dagoz aintzinako langintzei buruzkoak.

Ehungintzaren adibidetzat aintzinako arratiarren jantzia dago. Deseskegi egin du Martinek. Ozta-ozta ari da, eskas bait dabil denbora aldetik. Umeak solairuan sartu dira. Eskerrak hortxe

dagoena eskalaren arabera –1:10– egindako ola zaharraren maketa euskalduna. Bertan sartu da operazioaren bigarren zatia burutzera baxua.

Soinekoak erantzi, arratiarraren jantziak aldean ipini eta berriro jantzi behar du.

Biluzirik dagoela Martin, muturra luzatu du neskatotxoak imitaziozko olaren atzekaldetik. Begira geratu da. Begi-keinu konplizea egiten dio Martinek. Paralizatuta dago neskatxoa, zelan jazten den begira, edozelan desagertzen den biluztasuna ikusteak kateiatuta begiak eta gorritasuna ekarrita karamelozko masailetara. Olatik irteteko dela Martin, korrika egin du alde ume zirinak. Hanka egin beharko du Martinek ere, umekondo madarikatuak alarma jo araziko du eta.

Andereño, dago gizon bat biluzirik etxe handian, umeak atzamarraz erakusten du lekua, eskolanteen alboan inortxo ere konturatu gabe igaro denean baxua.

Eskaileretan behara datorrela Martin, aldarri egin dio andereñoak nere gurasoei deituko die andereñoak, ea zer egiten duten etxean, umea amets sexualez dagoela eta, gizon biluziak ikusten dituela nonahi eta ea zer egin behar duen

berak eskolan, gurasoek umearen aurrean eginez gero egitekoa. Beste andereñoak ez dela horrenbesterako deritzo eta, tira, lasaitzeko, bestela manikomioan amaituko duela edo sikiatrarenean, beste hainbeste maisu-maistrak lez.

Aurreko tabernan dago itxaroten Fernando. No problem. Okey. Joder amerikanua, ea noiz osti kentzen duan ingeles potrozorriaren mania tentel hori, kaguen tal, txo. Eta goaz ospa hemendik hainbat arinen.

Miraria! Bat batean desagertu egin da Fernandoren hankako gaitza. Eskuetan delinianteek erabili ohi dituzten tutu luze horietarikoa du. Barruan dago ezpatorria. Martin, berriz, beroegi da arratiarren jantzia soinean duela. Komunera doa.

Museoko atean zaindari eskaldunzahar garbizalea dago, begiei esker eta eskuin eragiten, kamara azkarrez tenisean matcheko bolari jarraitzen zaionean baino arinago, kalea kontrolatu guran. Etxe santu horretako sirena-adarrak belarriak zulaten ditu. Eskerrak txikitero talde ederrak urteten duena oraintxe tabernatik. Euron artean nahastuta kalera irten eta laster heldu dira

plazara. Munipen autoa, sirenotsak eta argiak aidean, han doa Museorantzat.

Mailonako eskaileretan gora datoz, lasai, Fernando eta Martin. Lezamarako trenean sartu dira, bileterik gabe jakina, Estatu Autonomikoak salbatu behar dituelakoan edo.Ehiza ederra gaurkoa. «Petatxoa» nahastatzen dute,

No fumar / ez erre

dioen txartelari begira. Ez erre? Ez egidak barre, eta tren madarikatua, heuk be arre, akelarre. Erre orduko eragin zion hitz-jokoa txokolateak Martini. Bertsolari sena.

–Otia, Cobra, siempre tarde y lo tenei delante la narice.

Txakurren autoko irratiak bufadaka dihardu.

Dastategian

Leiarraren ordez oholezko xafla zegoen behin behinekoz jarrita dastategiko leihoan. Ikusten zenez, aurreko gauean txakurrek desarratu zizkiguten tiroek bestelako lana egin zuten, Sanikola elizaren fatxadan jo eta, errebotez, errugabekoenei egin behar kalte.

Elizako aitzinaldera hurbildu nintzen, jakinguratsu, egunkaria erosi behar nuelako atxakiaz, Elbira dastategian sartu eta kafeak eskatzen ari zen artean.

Han ziren balazoen hatzak, atearen eskuinaldean dagoen marmorezko plakan haiek utzitako haginkadetan, egun ere ikustea daukazuen bezala.

«Aqui fue bautizado el s(?)ervo de dios Fray Saturnino Bilb(?)o»

irakur zitekeen bertan, balek letra bi desitxuratu bait zituzten. 1936.ean hil zuten frailearen deiturari halako kutsu euskalduna erantsia batek; besteak aldiz, jainkoaren era horretako sierboek eta tramankulu industrialetan erabili ohi diren

serboek elkarren zein antz handia duten –orduraren ezkutua–, horrekin gogoetan hasteko abiapuntua eskaini zidan.

–Fraideak, afusilatu faxistak barne, jainkoaren jakinduriak erabiltzen dituen serbomekanismoak ditun, Elbira. Zeruan ematen diren agindua bete eragiten dituzten tramankulutxoak besterik ez ditun sotanadunak, gainerako serbomekanismoen aldean abantailatxoa badinate ere azken hauek, zera, ez dutela hari-eroale fisikorik behar, nahikoa dutela zerutik Izpiritu Sainduaren bidez heltzen zaien fluxuarekin.

Harriturik begiratu ninduen Birak. Ez zuen ezer ere ulertzen. Goizeko goiz-ordu hartako freskurak horditu egin ote ninduen, atzera ere bartekoa berpiztuta, hala mutu galdetzen zuen keinuaz jezartzeko lekua erakutsi zidan. Dastategiko zokondoa zuen aukerarik zegoenerako mahaiaren gainean ziren kafesne biak, opil banarekin, lasai har genitzan.

–Hik ez dun ezer ulertzen baina, barteko tiroek aldaketatxoa ekarri zionate elizako plaka horretan izkribatuta dagoenari. *Siervo* hitzaren ordez *servo* irakurtzen dun orain.

–Eta hik uste duk nik serboak edo serbondoak zertzu diren dakidanik, ala? Motor potrozorri ustelduaren gainera mezuak eroaten gora eta behera ibilten den neoproletarioa besterik ez nauk; eta kitto, Antoito.

«Mezularia» zela jakiteak harritu-begirakuneaz altxa erazi zizkidan begiak, une hartantxe ahorako bidean kafesnetan mela-melata neramaran boilotik Elbiraren aurpegiari memelo itxuraz zuzentzeko, zerbaitek txarto kuadratu eta erantzun bila banenbil bezala. Itxaron nezakeen azkena zen hura.

–Bai mutil, mezularia. Badakik horko negozioa. Egun osoa eman deiren bateri itxaroten eta datorrena datorrela ere, hartu, ifernuko ipurtzulora zein alboko kantoiraino joan eta hurrengorarte, Bonaparte. Noski motorra geuk ipini behar diagu; gasolina baita. Jefeek beti izaten diate entxufaturen bat eta berari eman behar, besteok, sudurtzuloetan sartuta atzamarrak, mokoen peskan denbora ematen dugun artean. Dena dela, nahiago diat lan hau aterik ate inkestak betetzen ibiltea baino, ze dendako «dependienta» ez nauk sartuko, ezta? Ala hik zer uste duk izan behar ga-

rela emakumezkook, dendariak edo bestela ministrariak, baina kamiolari sekula ere ez? Klaro, hi ere neofeminista edo haiz eta, ezta?

Goizeko lehen ordu hura konfesio eta aitorpen sakonen ordua zela iruditu zitzaidan. Ondo zaila izaten da larrukideen artean gutxienezko galdera pare hori ez egitea, lana eta nongoari buruz, hain zuzen. Hala ere, eta hainbeste «neo» gorabehera, ez ote zuen gerra aizkora deslurperatu neskak, horretaz ez nengoen batere ziur.

–Halakoxe zeozertan hasi beharko dinat neuk ere. Euskaldunako Batailan zaldi barik geratu zirenetarikoa naun. Horrexegatik eragin didan barregurea serboaren zer horrek. Garabiak urrunetiko aginduen bidez maneiatzeko mekanismoak ditun serboak, neuk erabilten nituenak. Kakazaharra! Azalpen eta esplikazio pedanteak ematen hasi naun atzera ere.

–Tranki, ez ezak arrantzarik egin, bestela trabesti usaina hartuko diate eta. Ekartzak beste egunkari xaboitsu hori mostradore gainetik eta ea lasaitu egiten garen.

–Xaboitsua? –ez nuen ezer ere ulertzen.

–Jel-ez beteriko horixe, bai. Ez duk txistea harrapatu ala? Jaun-goi-ko-a-e-ta-la-gi-za-rra. JEL.

Mostradoreaz bestealdean kafeak zerbitzen ziharduten emakume biek susmo txarrak hartzen hasiak zirena begibistako zen. Ipurdia aulkitik altxatzean belaunen oso gainetik geratu zitzaidalarik larru beltzezko «gona tubo» hura lar agirian susmatu nuen setazko galtzerdiek nekez disimulatzen zuten berna osteko bizarra, harik eta mostradorera heldutakoan beherantz tiratu ahal izan nuen arte.

Diti nabarmenegiak nituen. Emakumezkoak zelan konpontzen ote diren bularralde neumatiko horiekin, halakorik ulertzea gaitz egiten zaidan arren, zentzazio fisikoa behintzat banuen goiz hartan.

Barrako emakumetariko bat ustegabean harrapatu nuen, begiak nire bularraldetik behera iragaiten ari zitzaizkion unean. Laster kendu ba zituen ere, masailetan hedatu zitzaion gorridura ezkutatzearren ea beste ezer nahi genuen galdetzera behartuta ikusi zuen bere burua.

Elbirak salbatu ninduen, nire buruari susmatzen nion ahots garramaztuaz ezer esan izan banu sekulako erridikulua egin bait nukeen.

–Gintonika eta basokada ur. Ura txorrokoa mesedez.

Larunbat goizeko bezeroak ohituta daude gau pasa egindakoen ateraldi harrigarrienak entzuten. Ordukoak, hala eta guztiz ere, gure gorabeherekiko talaian jarri ziren, begiak zorrotz eta belarriak erne. Barrako beste puntan zegoen hari, emakumezkoen dastategietan «depredadore» ihardun izaten duten gizonezko alkoholiko horietarikoa zen bera, atera egin zitzaion denek nork bere barruan zerabiltena.

–Gizonezkoak eme eta emakumezkoak ar. Ar eta eme, ai eta ene, aiene! Ditietako mine...

Galdu egin zen aho-gorapilo berak asmatu berrian. Isiltzeko agindu zion barrako beste sargentoak bestela ez ziola beste inoiz ere ezer aterako eta. Birak Egin-en paperezko uretan murgildu zuen burua, nik neuk xaboitsuari –halako txisterik!– ekitearen plantak egiten nituen bitartean.

Eritzi-orrialdera heltzean ohizko haren izenak sinatzen zuen artikuluak bizkortu zizkidan begiak.

«Bizkaiko Kristiñauok eta lapurretak»

Edo holako zeozer zen tituloa. Hasiera ere gogoratzen dut.

Bizkaiko Kristiñauok kezkatuta gagoz

«Gure kezka ez ete den gurea bakarrik, bear dan legezko gizon eta emakume guztiena baino, hara gure itauna. Eliza Kristiñauona da, zer esanik ez. Lapurreta barriz gizarte osoaren arazoa da. Lapurreta elizaren batean egiten denean be, arazoa gizarte osoarena da. Ez da, aitzitik, katedralean izandakoa lapurreta bakarra...».

–Antza denez lapurretaren bat izan dun katedralean, Bira. Begiak egunkaritik kendu eta begira geratu zitzaidan.

–Zer? Ez diat entzun. Mozkortu madarikatu matxista hori, emakumeon dastategietan beti; ez ahal zaitu autobusak edo trenak harrapatuko! –ez zidan jaramonik egiten–. Barkatu. Lapurreta izan dela katedralean? Hemen ere bazekarrek. Aizak.

«Balio sinbolikoa eta sentimentala bainoezduten jantziak lapurtu dituzte herenegunlondone Jakueren katedralean. Harrigarria bada ere, lapurrak –edo lapurrek– alde batera utzita baliozko hainbat bitxi, erdi aroko apaiz-jantziak bakarrik eraman zituen. Lapurretari ez zaio ziorik antzematen. Hala ere, egunotan zenbait lekutan egindakoekin zerikusirik duelakoan dira kontsultatu ditugun iturriak, lapurreta guztiotan, baita Katedralekoan ere, sinaduratzat edo utzita, K-M hizkiak agertu dira eta».

–Hala bada, ez duk bakarra izan «santosepulkroko» jantziarena –neure artean mamurtu nuen–. Zergatik eskatu dun gintonika ordu honetan?

–Oraintxe ikusiko duk, Kanbodrio hori.

Niregan kafeak eragin kaltegarria izango zuela nabaritzen ari nintzen. Ez dakit, beharbada gau osoa lo egin gabe igarotzeak lanik ez egiteko agindua zien emana nire giharrei. Kontua da nesken etxetik irteteak, emakumez jantzita lehenengo biderrez nire bizian, zuzenean garunetan alkohola edota gasolina injektatu izan balidate bezalako gorakada eragin zidala. Indar berezia ematen zidaten jazki haiek, gona beltzak, me-

diek, bularretakoaren presio leun eta estuak, makilaia-hautsen usaina nik hainbatetan beste inori igarriak, guzti-guztiek. Izarrarteko kapsula aeroatomikoan sentitu nuen nire burua. Eurei nik hain sarri begiak gutiziaz luzatutako emakumeetarikotzat jo ninduketeen. Tira! Edo aldaketaz jabetutakoak ere, izua eta oreka infinitoa elkarrenetik bereizten dituen marra lainotsua gainditu duenaren zizkua suma zezaketen nire buru-inguruan. Hanketan gora noiz behinka, dardakada antzeko zorabio hark ziztatzen zizkidan kalanbrazoek argitasuna emango bailioten, izarniaduraz koroiztaturik ikus zezaketen nire kaskailua.

Biraren etxetik irtendakoan ate aurrean ziren txakurrek ere antzeko zeozer ikusi bide zuten. Ez gintuzten ezagutu.

–Rubia! –esan zidan batek, ileorde gorria ezarri bait zidan neskak etxetik irten orduko.

Ihauterietakoak ei ziren apaindura guzti haiek, Elbira «emakume fatalez» jantzi zeneko urtekoak.

Kafearen osteko une hartan desagertu zen flashadaren eragina aldiz, uren gorataldiak areatzan dautzan lorratzak ezabatzen dituen berez-

kotasun bereaz desagertu ere. Akiduraren lautada idorra hedatu zen nire kanpo-barrualdeetan.

Akidurari adi, hasieran ez nien erreparatu ere egin Elbiraren maniobrei. Ohartu nintzenerako paper zilarreztatutik hautsak jaurtitzen ari zen, nora eta edalontzietariko batean.

Nahasturari eragiteari ekin zion, ni ur-basoa zelakoan nengoenari.

–Gaisorik hago, ala? –galdera ganorabakoa nirea.

–Disimulatzearren basokada berdintsuak eskatu zituen. Ez duk hiru karta eta txanpon bakarra erabili egiten den joko hori inoiz ikusi? Hik edan ezak beste baso horretakoa. Ez duk gintonika, ura baino.

Halaxe egin nuen. Berak dzangada luzea egin zion gintonika eta beste zer ezezagun haren arteko nahasturari. Erdia-edo edandakoan neuri eskaini zidan.

Bezeroek ez ziguten begirik kentzen gainetik. Bularretako madarikatu hura aldarrika ari zela ematen zidan, eta ditien ez-parekotasunak ere, «hara berton marikoi haundi bat», halexe esaten zuela eritzi nion. Elkarrekin ahopeka ari ziren

emakumeak, kafe-birringailuak hedatzen zuen aborrotsezko murrailaren atzean ezkutatuz berbaroa. Geu ginen, nor bestela? kuzkuzeroen aitzakia han.

Konfidantza egin nion Elbirari. Tank! akatu nuen basoan zetzan munstro goiztiarra. Egia esan, nahiago izan nukeen limoi apur bat izan balu pozoin hark.

–Speeda duk. Laster izango dituk Hermesen hegalak txorkatiletan eta inurri bihurriak urdailean. Hobe izango duk ordu erdi batez edo edangurari eusten badiok.

Harriduraren harriduraz zuntzunduta geratu nintzen. Ez nekien zer esan. Atzera ere katuaren edota Giocondaren irribarrea zebilen dostaka neskaren ezpainetan. Egunkarirantz makurtzean begiak lapurreten harira itzuli nintzen. Garbi zegoen elkarrekin zerikusirik zutena hirurek.

Kaguen, kaguen, kaguen, nire artean nioen, akiduraren plazara speedezko zezena ateratzeak ekar lezakeen eskandaluaren bildur hutsez, lapurretez eta jantziarenaz paso egiten.

Urari ekin nion, speedaren eraginez basamortu bilakaturik nuen ahoa freskatzearren.

Noiz eta, ura usoek egin ohi duten antzera samaratzean –marruma eginez–, orduantxe lotu nituen hari-mutur guztiak. Banekien nor zen guzti haren berri jakin zezakeen bakarra. Usategieta! Aingeru Usategieta.

–Leku honetatik ordaindu gabe joango gaituk, nire ditiak! Ez zigutek begirik kentzen «europeo» horiek.

–Aizan, Bira. Bazekinat nork izan dezakeen misterio honen giltza. Ezdun hainurrun bizi. Ordaindu eta goazen!

–Arazoak, astronauta! Ez diagu dirurik ekarri. Nik neuk behintzat aitonaren kaskezurra baino zurituago ditiak poltsikoak eta hik halakorik ez duanez gero, esando didak!

Nire garondoan bildu arte luzatu besoak, aurrerantz tiratu buruari, leun baina firmoki, ezpainak neureetara hurbildu eta ahoa jaten hasi zitzaidan Elbira. Ezkerreko eskuaeskuineko nire galtzarbera luzatu zuen, sasi-ditia igurtzeko.

Barra zokondoan jezarrita zegoen «depredadore»aren begirada alkoholtsua aurkitu zuten nire begiek, zeintzu arnasa ia hartu ezinik puztuarazita nabaritu bait nituen.

Ezertarako astirik utzi gabe, mahai azpira luzatu zuen eskua, Arenaleko Lankide Kutxako erloju musikariak bederatziak zirela «Maritxu nora zoaz» topikoaren noten bidez iragartzen zuelarik.

Nire hankartean oso aurrera ausartu ziren Elbiraren atzamarrak.

Larregi. Brast egin zuten emakumeek. Amen! batean geure buruen gainean geneukan okotz erabakitsua. Hala ere ez genuen ezpainik elkarrenetik aldendu, harik eta uluka hasi ziren arte, barratik, mahai aurretik, barrazokondotik.

–Marikoi «desgeneratu» halakook –erderaz zein euskaraz berba garestiak beti garesti–. Zoazte zeuon etxeetara halako txarrikeriak egiten. Drogaditu halakoak! Hanka hemendik arin, polizia deituko dugu bestela.

Orduantxe bereiztu ginen. Dardakadan nengoen eta zera baino lehorrago neukan ahoa. Bira aldiz, lasai zegoen. Itxuraz behintzat. Ez zitzaion besterik otu ura eskatzea baino.

–Ura errekan zuek lakoentzat, ze, zuei, animalien askan emotea be lartxo izango litzake-ta –depredadorearen alboan zegoen gorbatadun

euskaldunak–. Zuek lakoak hobe errekara botatea, baina harririk handijena amarrata lepoan.

Sinestu egin beharko ote da, euskal-dastategiak ote diren atzeratuenak Alde Zaharrean, zalantza beroa sartu zitzaidan barru-barruraino.

–Oraintxe goaz, «andrea» –azken hitza destainaz jaurti zion, mahaitik altxatuta.

–Mil doszientas otxenta da ein biher dozuena.

–Kaka behearen gainean da hemen egin behar duguna, ze ni ez naute hala botaten mosu madarikatu bat ematearren nire neskari, eta gutxiago neuk dakidan leku batean aramuak dauzkaten zuek bezalako atso zaharrek.

Bihotzekoak eman behar ziola geratu zen emakumea. Ahizpa-edo zen beste ugazabandrea eta beste bezero baten artean eutsi zioten konortea galdu orduko. Zabalik geneukan bidea. Takoiei ahal bezala eraginez, alde egin nuen, Elbiraren atzean, ezertxo ere ordaindu gabe.

–Ez nok hire aurpegiagaz ahaztuko, marikoi hori –ukabil jasoan atzamar nagusia mehatxukor mugituz bota zion mozkortiak Elbirari–, eta ezta hire ipurdiagaz be, puta zantar hori –azken hau neuri zuzendu zidala uste dut.

–Non bizi duk hire lagun detektibe edo dena delako hori? Zer uste huen, hala dela eta ordaindu gabe utziko gintuztela joaten, erronkarik gabe? Benetan, puta merkea ematen duk... ala dun?

Azken txisteak ez zidan barregurarik eragin. Speedak likidoa eskatzen zidan etsipenez. Bularretakoak lar estutzen ninduen. Erditik moztu nahi ninduen ligeroak. Ez nekien nire burua maneiatzen takoi haien gaineko talaian. Eskerrak speeda giharretara halako pozezko orea hedatzen hasi zena. Ene gorputzeko une zehaztezinen batetik jariokin urdin-gorriska hasi zen hedatzen, ene barru osoa zuzpertuz. Gorakada!

Masturbadore eroa

Usategietarenetik irten ondoko orduak Doña Casilda Iturrizaren Parkean eman genituen Elbirak eta biok. Ura genuen parra-parra, iturrian, egarria asetzeko, eta belartza gozoa, belarra eta belarriak elkarren aurka ezarrita lo egiteko. Txakurrek ez gintuzten han bilatuko, ohizko leku kutreetan baino. Hala ere, lau hankadun txakurrak zein ondo bizi diren konturatzeko era izan genuen. Halaxe esan zidan Elbirak.

–Geu baino hobeto bizi dituk txakurrok. Akatu egingo nitizkek jabeak.

Eta harrikada itzela jo zion jabearen aurpegi berbera zuen halako setterrari. Mutil gazte eta praketan estu sartuak okozpea laztandu zion zakurrari. Berba leunak esan zizkion belarrira. Nork ote zion harrikada jo, talaian jarri zen.Desteinazko keinua ezpainetan, zorrotz begiak, zemakor egin zuen parkearen barridoa. Elkarren besoetan ginen Elbira eta biok.

–Irten ote dira, ba, Zitrona eta Isa Billi!

–Laster jakingo diagu. Egik lo apur batean. Udaberriko eguzki lotsatiak egundoko izara epela eskaini zion nire gorputz nekatuari eta Elbirari zerion usainak kloroformoaren eragina izan zuen niregan.

Aurreratuta zetorren arratsaldea itzartu nintzenerako. Alde eginda nuen speedaren eragin ia osoa. Jainkosen baso gozoetan ei darion eztia eritzi nion iturriko urari.

Edan nuen hurrengoa aldiz, garagardoa izan zen. Esperantza kaleko lesbianen harexetan.

Berton aurkitu genituen Zitrona eta Billi, talde zabalagoaren erdian, azalpenak egiten.

Laster antzeman nion Anari ere. Yuppi guztiak zorarazteko bestekoa eta bost da neska hori. Ilea labur ebakita ez zuen bakarra, bera.

Hitz egin zuen, harriak eztitasun sendoz dardarazteko ahotsaz.

–Yuppiari gaur gauerako eukiko genuela trajea hitz eman nion.

–Ba, deitu –erantzun zion Birak–, esaiozu gauerdian «Txoko-Landan»era agertzeko.

Anaren kezkaren gainetik Zitronak eta Billik zuten hitza han, etxetik ihes zelan egin zuten azaltzen ari bait ziren.

–Teilatuz teilatu urten behar izan’gu –entzun nion Isa Billiri.

Dena dela, txakurrak ez ziren agertu Askao kaleko etxera. Museoko lapurren xuxuan joan ziren, alde, eta euren agintarien eritziaren aurka.

–No le dei importanzia si no lo podei ligar con alguna equincha terrorita –iragarri zieten, Askao kaleko auzotarrek aditu izan zutenez.

Txakurren berri jakin ez eta benetan joan ziren teilatuz teilatu Zitrona eta Billi. Katuak gidatu ei zituen neska bien pausoak. Nik neuk, erratsez, ipuinetako sorginek legez, halaxe alde egin behar izango zutela sinestu nukeen.

Bitartean, ukendu miragarriaren asmatzailea bera ere tartekoa zela konturatu nintzen. Hantxe zegoen jezarrita, betaurreko lar handiek aldarrikatzen zuten intelektual-kutsuari egokeraz ere lagunduta: Diskobolo Jezarria gehi Gizon Pentsatia, emakumeentzako moldaketan.

–Zertan agertu beharko du zoroak «Txoko Landan»? –galde egin zuen.

–Badakigulako non eta noiz agertuko den jantzi madarikatua; hortxe, gauerdian.

Hango guztiek talde bitan banatzea erabaki zuten. Ni non jarriko ote ninduten bildur nintzen. Gizonezko bat han, ez zen poportzakoa. Areago, Sancta Santorum haretan orbaina ezarria zuten nire oinek, behea zapaltze hutsez.

–Honi esker zekinagu non agertuko den jantzia.

–Gintonitori esker?

Barre egin zioten nire izenari hango korukoek.

–Zitrona mesedez, nire izena...–erantzun nion.

–Larrutan egin nahi duk oraindik ere?

–Jantzi hori eskuratzen lagundu nahi dinat, besterik gabe. Neure arrazoiak ditinat horretarako.

Onartu egin ninduten, bada, Birak esandakoari esker, nonbait, nire arrozoion berri galdetu gabe. Eskerrak, nik neuk ere ez nituen batere garbi. Talde bitan banatzea erabaki genuen. Elbirak, Billik, Zitronak eta laurok Mailonako harmailetan gora joko genuen, gainerakoak «Cane-

la»n geratzen ziren bitartean, harik eta informazioa ziurtatu arte. Ondoren, Solokoetxeko eskaileretara agertuko ziren. Kontrakorik izan ezik.

Mailonako harmailetan gora egin genuen, bada, Liberalek egin izaten duten prozesioaren alderantzizkoan. Oi Bilbo, Monumentala izateko hor galdu duzun aukera, Indietako gaztainondoak geratu dira testigu. Adaburuetara begiratu eta begiek alde egiten dute, zerura, hango goiko gora.

Eta agertuta zeuden arranusoak han goian, berriz. Nekez igarriko zuen inork uso maskaratuak zirenik hegazti harroak. Ubeldu egin ziren ortzemugako odolak. Hegaztiak ikusitakoek irudikeriatzat jo zuten, ziurren, agerrera.

Odoletan desegiten ziren hodeiak, inguruko mendi gailurrek zarraztatuta. Eta misterioa argitu beharko zigunaren gakoa zazpi hegazti haiexek zirenaz jabetu ginen, Usategietaren kontseiluei jaramon eginez, leku eta ordu hartan bilduak ginenok. «Canela»ra dei egitea erabaki genuen, lekua ziurtatzeko.

Mailonako Hilerriaren alboan igaroten hasi ginen, arranusoen hegoak gure hego.

Pauso bi egin ez eta halako zer busti eta itsaskor bat etorri zitzaigun, euri moduan buru gainera, bero.

–Osti puta, zer ote da euri hau.

Atertu egin zuen bat batean, hasi bezalako ustegabekoan. Buruan zuen apur bat Elbirak. Billi eta Zitrona elkarri gerritik eutsita harraptu zituen mukigai antzekoak.

–Kanposantutik diatorrek.

Zuzen zioen Zitronak. Beste zaparradatxo bat ere egin zuen, horma bainogorago, parabola deskribatuz aidean.

Hormara igo nintzen behingoan. Begien aurrean egundainokoan ikusitako estatuarik ederrena agertu zitzaidan; neska gaztea, lo-arropa garden huts batek estalita Afrodita-gorputza, oinak hilobiko harlauzan, begiak zerurantz eta diti borobilak tente, harriz irudikaturiko oihalaren azpian. Estatuaren sudurra luzatuz hasten zen marra teorikoa sekulako zakilak burutzen zuen.

Harrizko neskarenetik gertu, harrez gero Masturbadore Eroa izenaz ezagutuko genuena ageri zen. Prakak behean eta ipurdia belartza

hezean, gozamenaren besoetan aurkitzen zen. Begiratu egin ninduen, inongo ikararik gabe.

–Hi, zer egiten duk hor. Busti egin gaituk.

–A, gizon malerusa nauzu. Ezinezko amodioek zigortua, emakumezkoen destainek eta irainek bihotza gogortua, etsipenezko itsasoan gauero itotzen dena. Lurrari eskaintzen diot nire hazi beroa, neskuts horren harrizko soin akasbakoaren aurrean, abadeak aldarean oparia bezalatsu. Mutanteak sortuko ahal dira egunen baten lurrazpi honetatik, neska horren edertasunaz ernalduta eta ene kikilari darion odol zuri honek bizia emanda!

Burutik eginda zegoen morroia. Garunaldean zuena, zer zen besterik, laberintoa baino? Haizea aise sar zitekeen haren belarrietan eta polito aireztatu kasketa barruko gelak.

Aldarri egin zidan Birak.

–Ahots hori! Ezagutu egiten diat, Antoito.

–Eta neuk ere zurea, Bira nirea.

Zakila gorde, zirrikituko botoiak lotu eta arrapaladan etorri zen hormarantz.

Hilerrian, sutxakurrak piztu ziren bazterreko aldean. Blausta jausi nintzen, ikararen ikaraz.

Lepoa behearen aurka eta begiak gorantz, hantxe ikusi nuen Masturbadore Eroa. Une berean, nekosten atzetik ilargia agertu zen. Beraren erdian ikusi nuen zoro haren burua lipar batez. Eldarnioaren erdian, munduko gizonik zuhurrena eman zidan. Birari bezala, laster ikusiko nuenez.

Hormatik jauzi egin eta behearen gainean ja, begira geratu zitzaion Birari. Zarata egin gura izan zioten beste biek baina, begietan zerion suak galerazi zien. Haren hankek uztaia eratzen zuten. Katu antzeko hura zain zegoen. Astiro luzatu zuen ezker-eskua praketako atzeko eskuinpoltsikorantz. Paper ondo tolestua atera eta Birari luzatu zion.

–Neu naiz zurekin telefonoz hitz egin artean eragiten diona, alferrik isurarazten duena, eskutitz etsituak idazten dizkizuna. Azkena, beti aldean eroaten dudana, berton duzu.

Eta luzatu egin zion papera. Gainera etorri zitzaion Bira. Besarkatu egin zuen Masturbadore Eroa. Geldi-geldi zegoen han mundu guztia. Ezin genuen sinestu. Bota egin zuen papera Birak. Neuk batu nuen behearen gainetik.

–Alferrik idatzi duk. Eurekin izango nauk, gau honetakoagatik behintzat. Erabili behar ditiagu gomatxoak. Baina zera, nire ditiak ez dituk hain biribilak. Froga itzak.

Masturbadore Eroa, ametsetan berak laztandu behar izandako hainbeste emakume laztanduta!, umetuta zegoen benetakoaren aurrean. Beraren bizialdiko lehena ote zen, bada?

Ni berriz bikote bero biren laguntzan nentorren, helbururantz engoitik. Bakarrik, gehienetan bezala. Aldatzearren-edo.

Arranusoak banan banan igaro ziren ilargiaren leiho aurrean. Biraka ari ziren zeruan, Usategietaren txistu gure belarrientzat entzunezinik eman behar zizkieten aginduen zain.

Leiho borobil haren argiari esker irakurri ahal izan nuen Masturbadore Eroak Birari egindako azken eskutitza. Besteek, elkarren ahoak jaten zituzten, astiro gentozela gure helmugarantz.

Bertora ekarri dut karta hura ere.

Mailona, Aurtengo Maiatzak 1. Elbira bihotzekoa:

Maiz biluzten eta erabiltzen den ezpata prest da, manukor da. Baiña gutitan dabilena, zokhoan datzana, herdoiltzen da, maginarekin josten

bezala da, gakhoaz dagoela esaten da. Halako moldez non gero behartzen zarenean, ezin ateraz zabilzala, etsaiak zutaz nahi duena egin bait dezake. Hala gertatzen zaio bada denbora luzez jo gabe, egon egonean herdoildua, eta gogortua dagoenari ere. Etortzen zaio berotasuna, biltzen zaio maitalea, batzen da maiteminarekin, eta gero nola ez bait dago usatua ez prestatua, prestatzen den bitartean egiten du besteak hartaz nahi duena.

Ikusteaz, mintzatzeaz eta usnatzeaz egiten da atseden, ez ordea ukitzeaz bezala. Beste zentzuek urrutitik, baina ukitzeak hurbiletik akometatzen du.

Begiek mihiak eta beste zensuek eraikitzen dute ihizia, baina ukitzeak atzemaiten du.

Oraiño solastatzez eta behatzeaz beraz ere kilikatzen naiz, oroitzen naiz. Zer izanen da bada, ukitzera, eta musu besarkatzera nadinean? Hala baiña, apartaturik zaitut, ukitu gabe, urruin. Nola ukitzeak pizten duen sua, hala pizten bait du nire odola zu ez ukitzeak, «bestea» eskuz ukituz isuri arazten dudanaz amatatzen dut orain zureganako sukarra.

Iainkoak daki, nola nahia baizen ezpaliz, nahi nukien oraiño bezala, hemendik aitzina ere zurekin egon, ibili bizi eta segitu. Baiña hunela izaitera badakusat ezen zu eta ni ere galduak goazilla, fin gaitz egiteko bidean garela. Eta hala geure arteko ezagutza gaixtoari alde behar diogu, apartatu behar gaitzaitza: eta hemendik aitzina (gaiñerakoan adiskide gelditzen garela) halako traturik gabe, garbiki eta prestuki bizi behardugu.Nik hala nahinuke, hala deliberatu dut, gogo hartu dut, har ezazu bada zuk ere. Eta iakizu ezen eztela hemendik aintzina beste ezer izanen, damuz eta bihotzez,

Masturbadore Eroa.

Plagio hutsa, pentsatu nuen, nire euskara hobetu guran emandako urteetan halakorik zein irakaslek erakutsi zigun gogoratu ezinik. Egilea, Masturbadore Eroa, –nioen nire artean–, nongo jakintzaren baitakoa ote da, AEKn irakasle ote dago, ala HABEn, halako plagioaren egitekotzat. Eta traje bera ere plagio hutsa ez ote zen otu zitzaidan, testu plagiatzailearen eskuek Biraren ditien borobiltasuna alkondarapean bilatzen zuten

bitartean. Zer zen, berak irtengo zuen. Egarria nuen berriro akuilu.

Han goian txilibituen hotsa aditu izan behar zuten arranusoek, hegalada arindu bait zuten.

Gure korteiuak ere bideari ekin zion. Basilika aurreko zuhaitz-enborretan eskuz egindako afitxeak zeuden.

Larunbata, gaueko hamaiketan hamaiketako tropikala dantzaldi zomorrozkoa baile de disfraces en TXOKO-LANDAN a ver si te lo haces

–Honatxe agertuko dituk jantzi guztiak –euren jabe bihurtutakoak ere ordurako bidean zetozela igarrita.

«Baztertuen koordinadorak» sinaturik zegoen iragarkia. Talde piloaren izena bertan. Tira. Zirt edo zart erabakiko zen guztia gau berean. «Txoko-Landan»eko bero heze eta izerditsuarekin gogoratu eta aztoratu egin nintzen. Gainera, «Bailando con Lola» eta halakoak jarriko zituzten. Nire burua froga gogor hura gainditu beharreko kinkan ipintzeko izan nezakeen arrazoiren baten bila hasi nintzen. Jakingura hutsa, besterik ez? Ala beste zerik? Batek daki. Zitronari ez nion

ezer ere zor. Elbira, berriz, beste lagunarekin zetorren. Patuari utziko nion erabakiak har zitzan.

Gure asalto-pilotoikoen zerrenda osatu nuen, buruz. Masturbadore Eroa bera ere gurekin. Aurrean nortzu izango genituen aldiz, laster jakingo nuen hori ere. Gu bezala «Txoko-Landan»erako bidean zetorren Kultur-Mutur talde ia osoa. Eurek kontatu zidaten hurrengoa, lapurketena bezala, ziorik gabeko nire gartzelaldiaren ostean.

Kultur-mutur

Euskalduna. Gure azken gudalekua. Haren aurrean ilun etorri ohi da erreka itsasorantz. Basakolorea nagusitzen zaio azalean. Goizeroko lainoak ezin izaten du suge horren urezko larru uherra ikuzi, ibarrak hoztu baino. Eguzkiak bere labain-eskua sartzen du kehe eta lurranaren arteko nahasturan eta goiza karril herdoilduetan abiatzen da.

Eguneroko zeremonia aurretiaz nekatu honetan, urtaroek kolore aldaketa eragiten diote suge nagiaren azal zigortuari; udaberriko euri urriek ilunago bihur dadin uzten dutelako eta fabriketatik isuri izaten dendenetariko zikinkeria, pozoin urtsu hondakin eta kimika-gernuak baino besterik ez duelako ezagutzen udako erreka egartiak.

Euskalduna hartan fosiltzen ari dira garabiak, aintzinako saurio tzarren irudi, untzirik gabeko errekaren ertzean. Belarra hazten da nonnahi eta stand-bayen da untziola osoa. Barkuen iragan-mina eta oroitzapena, hamar metro luze ere ez diren txintxortxuak eta atoiuntzi harroskoak,

besterik ez da hor. Noizean behin beharbada Deustuko zubipean igarotzen diren garraiuntzien oihartzunen bat, zirgit mingarriren bat eraginez Herioren begiez bestaldean behera, amildegian etengabe jausten ari den bertako langile nostalgikoen garunaldean, iragan-minaren minez.

Hilik datza alde hau, neure urteetako barrikada, lantoki, bizi-eskola, amildegi, gorroto, epopeia, etsipen zulo eta beste hainbeste zer ere den untzigintza, beste aldean, Deustun, lehenago hil zen munduko gorpukinak zutik dirauten artean. Hilik datza, bai, hor goian jo eta hotz –keherik ez Heriok– hiltzen ari diren Ospitale Zibileko hainbat eta hainbat bezala, aintzinako herensuge garaitezina.

Horko aurreko horretan ezin etxerik nabarmendu beste etxeen artean. «Artiach» dioen kartel zaharkitua baino ez da gailentzen monotonia kolorebakarreko horren erdian. Inoiz biziegi izan diren denbora dagoenerako deuseztuetan aingura botata dauden itsasuntziak dira etxeok, denak denbora ezaren itsasoan geldi geldirik, alde honetako garabiekin ametsetan.

Garabiok, haatik, ez dira higitzen iagoitik eta etxeek jaurti zezaketeen heiagora edo aldarria, mutu, hilduta geratzen da, trenen joan-etorrien aborrotsaren aurka leihatu gabe. Lekukorik ez.

Lekukoarena egin dukeen etxe-erreskadak, etxe-erreskadarena egiten duen etxe-erreskada hutsa da, itsu itsusia. Ez dute garabirik ikusten etxeok. Itsu itsusi, erreka likitsean isladatzerik ere ez dute.

Alabaina, monotasun horretan zerbait berrirekin egingo zuten topo begiek, nire irudimen patologikoki zinematografikoak egungo orainaldira ekarri digun hartakoan. Errodatzen! aldarri egin bailioten oroigailuari, Kultur-Mutur hartakoen hitzak irudi bihurtzen zaizkit ene baitan.

Oihala dardarazten du haizeak Zorrozaurreko horietariko bateko aitzinaldean.

Kultur-Mutur irakurtzen da letra handietan. Txikietan, aldiz, euskal hitzei, «lagata aintzinako hainbat etxe» erdal hitzak jarraitzen zaizkio, «muchas promesas y poca letxe», irudimen zorrokoek baino ulertuko ez duten mezua iragartzen.

Haize patxadatsuak emeki dantzarazten zuen pankarta hura eskegita zegoen aitzinaldea, izan ere neoklasikoa denik, oraintxe konturatu dira nire begien begiak. Ondoren, segundu laburren epean, haize bilduak besteen artetik deblauki deserrotu izan balu bezala, eraikin horren berezitasunak tripi-eztanda barrokoaren antzera lehertzen dira airean.

Urteak eman neuk untzigintzan, etxe horretatik hirurehun bat metrotara, eta konturatu ere ez. Basauriko giltzapean beraren okupazioari buruz kontatu zidatenak zirikatuta hurbildu nintzen arte, itsututa egon nintzen etxe horrekikoan. Irudimena bortxatu eta, hor Erroma hartako edifizioetariko baten aurrean gaudela eritziko diogu.

Andra jantzita eta Elbirarekin ari nintzeneko goiz hartan etxe horren barruan gertatu zena, gutxi gora behera, ez da zail irudikatzen. Demagun, soilik, kanpoan lehenago esan dudan pankarta hori berori dagoela eskegita eta kamararen bidez planoak egiten ari garela, orokorretik xehera.

Pankartapean ateak giltzarrapoa du, irekita baina. Ate-zirrikituak barrura gonbidatzen gaitu. Musika entzuten da. Ezin bereiztu zein talde den. RRB, noski.

Barruan mahai luzenga, ohol zaharrezko astoen gainean hala edonola atondua; gainean paperak, pintura-poteak, beste zenbait pankarta eta holakoak burutzeko plastikozko oihalak; inguruan, denetariko kaxez egindako aulkiak, pote gehiago, lo-zakuak eta bizpahiru lagun lanean. Baten bat ezaguna dut orain. Pankarta hori pintatzen ari dena Fernando Largo da, museoko mugidakoa.

«Saguak, sagu, okerrenak gu» idatzi du, karaktere gotikoez. Orain Kultur-Mutur sinadurari azken ikutuak ematen ari da. Hormetan, hura bezalako beste hirulaur pankarta dagoz; baita zutoihalak ere.

Atea ireki da eta sartu berria den Martinek zutoihalei luzatu dizkie begiak. Nafarroako kateak dira brodatuak batean. Bestean zer den doidoi irudika dezaket. Bizkaiko armarriko orak? Baliteke. Martinek lepoan jo dio, lagunkiro, Fernandori. Zutoihalei buruz galdetzen du. Erantzuna

atalasean agertu diren dozena erdi neska-mutilek ematen diote, denek batera eta elkarri hitza ahotik kenduz.

–Katedraletik –batek.

–Kondaira Museotik –besteak.

– ...tik.

Dastategian irakurri nuen artikulua datorkit burura, «Bizkaiko Kristauñoak kezkatuta».

Fernandok oraintxe garbitu duen mahaiaren inguruan jezarri dira denak. Baten bat falta delako edo, itxaron egiten dute. Bitartean orain arteko nabardurak filmatzeari ekin dio gure kamarak.

Tribu hau ez da arruntetarikoa. Gizonezkotarik batzu hippy ohitzat har daitezke –mugikera nagia eta jantzi adabatuak–, ile ebakeretan ezik, ze, horretan estereopunk birmoldatua nagusitzen bait zaie, zera, errats modernoen antzeko gandorrak –tente eta koloretsu– eta tonbola merkeko arrakarak belarrikotzat. Emakumezkoak ustegabekoagoak dira, gonaz edota praka ilun estuz eta eskotedun atorrez estaltzen bait dute soina, ileetan barrokismo naturala –distira-

rik ez adatsean– delarik nagusi, komikietakoen antologia antzestuz bezala.

Ez da gorputz ez-ederrik nabaritzen lehen begiradan, berezkotasunak eta higidura askeak halako mintz edergarriaz inguratzen dituelako ere.

Tarte luzea iragan ondoren jabetuko gara jainko-jainkosa hauek ere besteok bezalako gizakumeak direna, horretarako gure kamara sinfonia higikor eta koloretsuan ohitu beharko delarik, gero banan-banan ekiteko guztien kerei.

Ez dute, aitzitik, luzaroan itxaron behar izan. Mobilettaren zarata ia ia barregarria, blausta lehertu eta berehala isildu dakanpoan. Aldiberean uluka eta zarataka hasi dira barruan.

Hilobi Santuko Ordenaren jantzia eskuetan, garaile sartu da neska, Maribetti, dena borobilago egon dadin Bilboko Kontsulatuaren uniformedunak ere han izatea eskatzen duen gela zabalean.

–Kultur-Mutur –esan du, ezker eskua ahoan jarririk, topikoetako indio topikien berdintsu. Gero, mutur borobilduak luzatuz, musuka hasi da borobilki luzaturiko elkartekideen muturre-

tan, garaipenak ospatzeko duten zeremonia behin eta berriro errepikatuz.

Belarrian arrakara disdiratsuena duenak, Ernesto Miztegiri katedralean lagundu zionak, okerregi ez banago, paper ondo tolestua atera du eta okupaziori buruzko lehen agiria dela hor idatzitakoa, esan du ere.

Miztegik ea ezin duen «manifiestu» hitza erabili, «agiri» delako horren ordez. Maribettik euskara dela eta, mesedez, eztabaidarik ez. (Oker ez banago Kultur-Mutur taldearen komunikatu hark «agiri-manifiestua» zioen hasieran. Puntu hori, beraz, konpondu egin zuten).

Manifestuaren egileak, Magirik, irakurtzeari ekin zion.

«Kultur-Mutur zeharkako ekintza zuzenerako talde honek okupatu egin du Deustuko Erribera eta Olabeaga aurrearen artean kokaturik dagoen edifizio hau, zeina gure patrimonio kulturalaren parte inportantea bait da...».

Atzera ere moztu egin dio lehengoak, Miztegik, hain zuzen. Hitzen batzu aldatu egin behar direla dio. Magirik herriak ulertuko duen euskarari buruz egiten dio, erantzun gisa Miztegik ea non-

dik atera dituen joskera horiek galdetzen diolarik.

Batzorde batek zuzenduko dituela testu guztiak proposatzen du, denek «Bale-Bare» deitzen duten larruzko jakudun potoloak. Ados? Adena, erantzun dute.

«Gezur galanta dagure herri honetan agintariek kultur-arduraric dutenik. Agintariak barik haginkariak dira horiek, diruari koska egiteko betiko prest; hirulau museo kenduta, gure aintzinakoen ondarea usteltzen, deuseztatzen eta galtzen uzten bait dute.

»Museoen aurka gara, museoan artea umeak musean baino okerrago bait dago. Dena da museoa. Kaleak museoak dira. Hormak museoak dira. Museoak dira Euskalduna horretako nasak eta museoa dira apaizen sotanak. Gure urdaila ere museoa da, Medikuntza fakultateko ikasleen begietara. Museoak dira ekonomilarien garunetako artxibategi alkoholeztatuak, konputagailuen disko gogorrak museoak diren hein berean. Museo guztiak azken batetan, Museoak «zer izan ziren» erakutsiko duten etorkizuneko Museo bakarrean gorde behar dira.

»Etxe hau hartu dugu, berau delako museoan sartzen ez dena. Ezer erakutsi behar bada agirian dagoena erakutsi behar delako, ez zabarkeriaren hautsezko urpetan itoten utzi.

»Etxe hau ez dugu ezertarako erreibindikatzen, ez. Berton dago eta kitto. Sifilisa du harri arteko zirrikitu-aluetan eta teilatuko itogin-zakiletan. Tortura da zuen kultura».

Hirulau zer txiki, xehetasunak baino ez –Fernandok– bera bestela erabat konforme dagoela. Besteak ere bat datoz, Maribettiri estiloak horzkidura eragiten diola alde batera utzita. Dena den, abisua ere eman behar da, gauekoari buruz. Ez kazetari guztieri, inondik ere ez. Irrati libreren bati –esakunearekiko zalantzak ditu Largok– edo bestela kazetari enroilatuei. Garrantzizkoena zera dela, ea jantzi guztiak, hitzaldia eta zeremoniaren bilakaera, dena, denentzat garbi dagoen jakitea.

Hara gure kamara gorrak ezpainetan irakurtzea euki duena. Kamara begiari lepo emanda hitz egin dena –hots, ez gartzelan ez gero kondatu ez zidatena–, sekretupean datza. Adibidez, ai-

patu hitzaldi hori ere irakurri egin zuten, baina paperari begira makurtuta burua.

Amaitutakoan Miztegik esan zuena baino ez dakigu, zera, ea zer dela eta aukeratu behar izan duten Leizarragaren estilo zaharkituegia hurrengo manifesturako.

«Nafarroan eta aintzina, euskaldunok euskara Estatu-Hizkuntza erabiltzeko aukera bakarra izan genuelako Leizarragarekin. Konforme?».

Batek Bilboko planoa atera eta mahai gainean hedatu du. Buruak planoaren gainera datoz, borobilean. «Txoko-Landan» erakusten dute atzamarrez. Helburua.

Txoko-Landanen Luisarekin

Han goian geldi-geldi geratu ziren zazpi arranusoak. Mokoen bidez «Txoko-Landan» izeneko gautokia erakusten ziguten, adarrak barrurantz dituen izar antzekoa osatzen bait zuten zazpirek, erdian eta elkarzutuki goitik behera marra zitekeen lurrerainoko lerro teorikoan egonik gure azken helmuga izango zena.

Zulo hartan sartzeko maskaturik etortzeko derrigorra zioen txartela irakurtzean, arazorik ez, esan genuen gure artean. Ateko jagolea bera ere pinpilinpausa jantzita zegoen, atearen bezainbesteko hegal eta guzti, Bilboko Alde Zaharrean sasoi batean hain modan egon ziren kometaren bati kendurik hegalok, arean.

Sartzeko ginela, bidea eskatu zidan sabelera sartutako guztiak larritasun larriaz. Goragaleari eutsi ezinik, bazterrera jo nuen, oka egitera, gainerako guztiak arazorik barik sartzen ziren une berean. Utzi nuen goitikin-multzoa ez zuen atsegin izango, ez, biharamunean bide hura erabili beharreko inork ere.

Botatakoan gorrotoa hartu nion nire buruari halako putakeria egina izanagatik. Laster baina, speedaren eraginak uxatu zituen nire damu-asmo guztiak. Izerditan hasi zitzaizkidan begiak, indarge geratu hankak, bihotzak formulako prototipoen abiada hartu zuen eta eznuen beste biderik izan eskaileretan jezartzea baino. Hantxe aurkitu ninduen Anak, taldeko besteekin zetorrela.

–Hi, zer daukak? –galdegin zidan ezezagun nuen ahotsaz.

–Eta hi, nor haiz hi? –ahots-apur batez nik, haren eme-ezaugarriei ohorezko begirada eskaintzeko gai ez nintzela.

–«Canela»n ikusi haut lehenago; beste nesken laguna nauk.

Alboan jezarri zitzaidan; besoaz lepoa estutu eta izena xuxurlatu zidan belarrira, Ana, edo Luisa, Ana Luisa. Nirea esateko doi-doi izan nintzen gauza.

–Luisa –erromantiko-zaina zulatu zidan izenak– , Barbadun erreka alboan hazten dun eder Hierba Luisa bedarra. Ezagutzen al dun? Usain-

tsua, karamelo hutsa. Hiri ere ez ote darin usain bera?

Paparra usaindu nion. Ez dakit ze usain zerion, gutxitan ikusi ditudan bezalako diti aleek itsutu egin bait zizkidan men guztiak, ikusmena eta ikumena ezik.

–Hiri berriz, azetona-hatsa darik; lar edan duk. Barruan joango zaik guztia, musikaren eraginez; ikusiko duk.

Zutitzen lagundu ninduen. Ene laztana! elektrizitatez zamatzen zitzaidan gorputza neska ukitzean. Mila speedondokoren sindromeak jota ere ez nuke halakorik alde egiten utziko. Atera urreratu ginen, besarkatuta.

Ana Luisaren ezaguna zen ateko pinpilinpausa, nonbait, besterik gabe utzi bait zigun sartzen. Behin barruan sartuta, damu izan nuen berriro ere, han ohi duten musika kutrea erdi-entzuten zelako eta ni neu beti haserretzen naizelako halakoak halako lekuetan entzutean. «La otra noche bailando estaba con Lola», itxuraz atsegin zuten guztiek, dantza egiten ikusten ziren banakako zein bikote-multzoari begiratuz gero, behinik behin.

Izerdi-lurrunek halako orea eratzen zuten hango inguratsa zamatuz, gorputzetan jausi eta izerdia behin eta berriro biderkatzeko gure larruazaletan, biologoek segeretua ezagutu nahiko luketen energitegia osatuz. Edatekoa eskatzen zuen beroak.

Edatekoa, edatekoa, keinu mutua egin nion Ana Luisari, barrara jotzekotan nintzela adierazteko. Ehunen bat lagunek mozten zidan harako bidea. Gainera, ez nuen inondik ere Ana Luisa galdu nahi. Begian jo zidan neska adoretsu hark, bere puta fin ihardunean jantziaren mugida guztiari hasiera eman zion izarrak, Ana edo Luisa, Ana Luisa, berdin dio. Ez nuen galdu beharko, jantzia «Txoko-Landan»en agertu arren. Artean, ez zen zaldun-maskararik agertu han.

Asteburuko porroten zerrenda burutu nuen, Ana Luisa izan zitekeelakoan nire patua aldatzeko azken aukera. Hala nagoela, halako papau erreprimitu batek ekarri ninduen berriro lainoetatik mundura.

–Neska, zuri zelan gustaten jatsu? –neuri egiten zidan berba mosketeroz jantzitakoak, kostaldekoa eman zidan ahotsaz.

Kakazaharra, errol-aldaketarik ez, mesedez! Nahikoa nuen aurreko gauekoarekin. Hala da ze, ez nion jaramonik egin. Litro bi garagardo plastikozko basoetan eskatuta –speedari aurre egiteko modurik hoberena da garagardoa edatea– Luisarengana itzuli nintzen.

Mosketeroak berriz ez ninduen baketan utzi gura. Nirekin okerreko bidea hartu zuela esatekotan nintzela, ustegabeko itzela; han ziren aurreko gautik aurrera atzean genituen txakurrak.

Txakurrak «Txoko-Landan»en sartu ahal izateko jantzia, hori, tentelenak ere asmatuko luke, nik neuk ezik. Ertzain jantzita zeuden biak. Ni ikusiz gero, agur, ezagutu egingo ninduten. Mosketeroa zen nire salbabide bakarra.

–Hi lakoamarikoei –kostaldean txori horren izena ematen zaio gai jendeari– agoa jatea gustaten jat. Hartu basook!

Nikagindu bezala egin zuen. Eskuetan hartu zituen nire basoak. Orduan, ahoaahoan ezarri nion, besoak garondora inguratzen nizkion aldiberean.

–Amariko, amariko, jan egingo deutsut agoa.

Antifaza kendu nion, ezpainetan haginkada itzela egin baino lipar bat lehentxeago. Praketara jausi zitzaion garagardoa.

–Goizegi etorri jatsu hilerokoa –halaxe esan nion, muturra askatutakoan.

Odoletan zituen ezpainak. Sorpresa-faktorea behin eta berriro. Artez begiratu nion begietara, antifaz beltza ene begietan ipintzen nuen artean. Hipnotizatuta zegoen mosketeroa. Agur esan eta geratzen zen garagardo apurra kendu nion eskuetatik. Ezpainetako odola xurgatzen utzi nuen. Ez luzaroan. Beste ezpain batzu pausatu zitzaizkion han. Kofrade jantzitako baten ezpainak ziren. Kofradeak ere, nire moduan, goxo eritzi behar zien kostaldeko txori erratu haren ezpainei, ez bait zituen askatzen. Beraren antifazari esker txakurrek ez nindutela ezagutuko zen ardura zidan bakarra, aitzitik. Ana Luisaren alboan berriro, plastikoetan geratzen zena eskaini nion.

–Ostia, hi, kofrade hori jantzi erostekotan dena duk –esan zidan Ana Luisak.

–Ez gaitin ezagutuko, lasai, edan dezagun –garagardoa eskaini nion.

–Birra hau ez diagu beste barik edango, ezta? Sudurtzulo ederrak dauzkak hik.

Zer eskaintzen ote zidan ezin igarririk, neskaren paparralde erdi agirikotik begiak zelan kendu ez nekien. Eragiten zidan durduzadurari ihes egiteko bideren baten bila nenbilelarik, Kultur-Mutur taldeko muturlariak agertzeak salbatu ninduen.

Muturlariak han, azkenean ere!

Talaian ginen guztiok –txakurrak, emataldekoak, ni neu– eurei begira geratu ginen, beste guztiak bezala, hura ez bait zen egunerokoa. Sorginak, euliak, supermana, kabaretera, fraidea, moja biak, leopardoa, Tarzan, Marley, Drakula, Bogart, «gizon lebitadun» jantziriko emakumeak, umeak, inudea, boby-dun mutilak ditiordeko eta guzti, zer ziren guzti horiek han agertu zirenen aldean? Kaka hutsaren hurrengoa. Gartzelatik irtendakoan ezagutu nituen, berriro diot badaezpada ere, ordukoan identifika ezin egin zitzaizkidan haiek, orain legez kanpo dagoen Kultur-Mutur hartakoak, haiz zuzen. Mozorro jai hartako errege-erreginak ziren.

Iratxo

Aldez aurretik prestatuta bailegoen, tronpeta-musika jaurti zuten ekipo ofizialetik, lau-kehetara. Isiltasuna nagusitu zen ororen gainetik. Behingoan osatu zen zirkulua sartu berrien inguruan. Erdira atera zen goitik behera zuriz jantziriko bat, euren artekotik.

Isildu egin zen musika-hotsa.

Barra aldean, txalaparta doinua hasi zen, protesta txistuekin laster, belarriak zulatzen bait zuten oholotsek. Oinutsik zegoen zuriduna. Ardilarruaren antza hartu nion erroilua atera zuen paparretik, irakurtzekotan zela adieraziz; gainean zegoen txalapartaria eta zelan ote diren gauzak, azpian zituen txakurrak.

–Euskal Historian barrena, gertaeren gaindi datorren Iratxoa naiz, iragana eta etorkizuna biak ezagutzen dituena...

Txaloka hasi ziren batzu, zarataka besteak eta gutxi batzu isilik geratu ginen. Lertxundiren «Zuberoa» igorri ziguten bafleek. Mundu guztia isildu zen, «qué cohone dise» ozen esan zuen

txakurra eta «habla cristiano» esan zuen bestea ezik.

–Hara berton bildurik gaur, Lurraldearen ordezkaria, Artzaina...

Museoan lapurturiko jantzia aldean zeraman mutila erakutsi zigun. Txanoa buruan tente eta artile ilunezko soingainekoaz batera jazki bakarra osatuz. Oinetan, abarkak; lepoan eskegita, zorroa. Bertatik atera zuen suzia piztu eta kehe urdina hasi zen hedatzen, besterik gabe ere lar beteta zegoen leku hartan.

Laino guztien azpitik eta hango sasi guztien gainetik, nik neuk ez nien gainetik begirik kentzen txakurrei, ezta tunoari ere, nahiz eta honek Mosketeroaren gerrialdean izan arreta eta aditasuna. Barrakoak ere ez zien baketan uzten. Edarien prezioaz ari ziren eztabaidan, antza, txakurrak eta kataburuaz mozorroturiko barrakoa.

–... Euskal Herri librearen ordezkaririk argiena –zuridunak bere leloari ekin zion.

Agur egin zigun Artzainak, ordurarte nik neuk ikusi gabeko makilaz.

Erroilua desbiltzen jarraitu zuen zuridunak, atzera ere gure belarriak zigortzera ekiten zion bitartean txalapartak.

–Hara berton Elizaren ordezkari nagusia ere, Apezpikua...

Katedralean lapurturiko kasuila bide zenaz jantzita agertu zitzaigun Apezpikua. Buruan, rugby-baloiaz osaturiko boneta zuen, bisuteriazko bitxikeriez apainduta. Makila luzea erakutsi zuen honek ere, jaietan saltzen dituzten karameloz beteriko horien antzekoa.

Aitaren egin eta txalapartari ekin zioten berriro. Zuridunak, sotana igo zion Apezpikuari. Azpian ez zuen ezer, alua agirian baino. Emakumezko apezpikua zen, Maribetti bera.

–...eta Nafarroa jareina zeneko garaietan iharduki zuten zaldunen ordezkaria!

Han agertu zen dendan ohosturiko jantzi zorionekoa. Hilobi Santuaren Ordenako zaldunaren jantzia, Ernesto Miztegiren soinean. Nafarroako Erregeren bizia gordetzearren harako zaldunak hartu zuen puinalkadaren urratura txarto josia paparraldean ageri zuen.

Lepo gainera igo zitzaidan Luisa.

–Ostia santua, berori duk jantzia!

Zirrara elektrikoa eragin zidaten neskaren ditiburuek lepoan. Tentetu egin zitzaidan. Aldi berean, sinkronizatuta bezala, maginatik atera zuen ezpata zaldunak. Gorantz altxa zuen, neonargiek isladaraziz kehe urdinean barrena. Turutotsak igorri zituzten bafleek. Txundituta geunden denok.

Belaunikatu egin zen Iratxoa, bapateko eskenatokian. Belarrian nabaritzen nuen Luisaren arnasa.

Garaia, aurpegi urdin, bilo gorri, bizarra kizkur, bekainak igota, begi biziak bisaia handian, ulepo, boneta urreztatuaz estalita burua, Erdi-Aroko errege itxurako bat hasi zen zirkuluan sartzen.

Tturuttak eta atabalak entzun ziren, kortesauak edo. Erropa nasai luzeak aldean –zeru-azulekoak eta izartxo antzeko gorriduraz betea–, mantu morea lepotik eskegita eta saman lotuta ukan gabe, urrezko bitxiez eta eskuin besoa agirian utziz; ondo luzaturiko galtzerdi gorrikarak, alboetan urrezko botoiak dituzten oinetako beltz mutur zorroztunak. Ez zen ba, Magiri bera, kroni-

kek diotenez Nafar Erregek erabiltzen zituenak aldean jantzita?

Gure egonarritik irten gabe artean, aurpegia oihal mehezko kubritxetak estaltzen zion emakumezkoa agertu zen Erregeren ondoren. Ilenti dardaratiak zituen betseinetan eta badia epela igartzen zitzaion sabelaldean, arropa more eta senglearen azpian.

Zuridunari luzatu eskua neskak eta musukatu egin zuen Iratxo zenak.

Altxatzeko agindu zien Erregek. Jasa itzela zuten hirurek. Txalapartari ekin zion betiko madarikatuak.

Isildu zeneko hasi zen ozen irakurtzen Iratxo.

Ez zitzaion ondo aditu hitzaldia Iratxori, sortu zen kakanahasteak galazo zuen eta.

Txolopotearen erdian, jantzia zelan eskuratu, plana proposatu zidan Luisak belarrira.

Ez zen hango plan bakarra izango. Txakurrak eurak ere zeozeren bila zebiltzan han, zer ote zen ez bagenekien ere. Ez ziren gure bila ari, ziurren, ez eta jantzien bila ere, ezinezkoa bait zen horren berririk izatea ahardikumeok. Hala ere,

susmo txarrak harrarazi behar zien hango nahaste-borraste itzelak.

Txalaparta eta tturutta-hotsak, etorritakoen txistuak, «alde hemendik» esaten zutenen aldarriak zirela, «queremos bailar» zioten besteen alaruak zirela, ezin hitzaldirik ganoraz burutu aborrots haren erdian.

–Hara hemen Irato, edo Antso... garrena... oinordekoa... Nafarroako koroaren... benetako jabe... Borboia ez da usurpa... baino... Berau duzue leinuz eta bide artez eta zuzenez... belaunaldiz... aldi... mendian gordeta bizi behar izan duen... Euskal Erresumaren Kadira Nagusiaren jabea...

Oker ulertzen ezbanion behintzat, aurrean genuenMagiri hura, Irato edo Antso, edoAntso Irato, ez dakit zenbatgarrena, hura Nafarroako azken Erregeren sasikoaren ondorengo zuzena zen eta, beraz, koroa buruan ezartzeko eskubide guztiak zituena. Hara han lapurreta guztiaren zergatia: Koroapen-Jaia ospatzeko atrezzoaren bila ibili izan ziren, besterik gabe, Kultur-Muturrekoak.

Beste ezertan pentsatzeko astirik izan orduko, paperezko koroa atera zuen Artzainak zorrotik, tolestuta. Destolesturik, Apezpikuari luzatu eta gora jaso zuen honek.

Aurrean belaunikatu zitzaion Antso Auskalogarrena. Albokaren karkara gorria aditu zen kehetza zulatzen.

Koroa astiro-astiro buruan ezarri, maiestatez!, eta altxatzeko agindu zion Apezpikuak.

–Gora Nafarroako Errege! Kanpora Borboia! Gora Nafarroa jareina!

Iratxoren aldarriak ziren. Goraka eta fueraka hasi ginen enparauok ere.

Isiltzeko agindu zigun Auskalogarrenak, ordura arte kapari eusten egon izandako eskuak zabalduz.

–Nik Antso... benetako Errege... herriari luzatzen diot korona... ez bait dut sinesten... eta hurrengoa erraten... hil bedi monarkia...gora Euskal Errepublika!

Gora! batetan amaitu zen dena.

Joe Cocker «bihotz kateiatua» hasi zen kantatzen bafleetan. Mundu guztia hasi zen ipurdiari eragiten. Kofradeak, jantziaren agerreraz jabetu-

rik azkenean, ez zekien zelan gainetik kendu Kostaldeko Mosketeroa.

Talaian ziren txakurrak, errepublika hitzak argi gorri guztiak piztuarazita, aitzitik.

Luisaren plana burutzeko beta ikusi genuen Zalduna komun aldera agertu zeneko.

–Neuk aterako diat kikila, mutila.

Adituaren ahotsaz esan zion Ana Luisak Zaldunari. Durdituta utzi zuen berau pareatuak.

Komunera joan ziren biak. Neu ere hurreratu nintzen, apur bat beranduago.

Hura koadroa! Belauniko Zaldunaren aurrean, ahoan sartu-atera zerabilkion kikila neskak Miztegi Zaldun gizaixo txundituari. Bildots lepazmotuaren begiak zituen Zaldunak, mihia ezpainetan kanpora aterata eta adurra jarioan.

Zaldunaren atzean jarri nintzen. Berak aurkakorik egin gabe hasi nintzaion atorra antzeko jazki preziatua gorantz kentzen. Sasoiko Historiaren kiratsa zerion. Hasperenka ari zen Zaldun ohia.

Goikoa kendu ondoren, behekoaren gerrikoa askatu nion. Behera jausi zitzaion. Garaiz. Zakila ahotik atera Luisak eta esperma-txorrotada jaur-

ti zuen Zaldunak, hormaren aurka. Iturria agortu orduko, sekulako sakada jo nion gizaixoari. Jaustean, nire antifazari eutsi zion. Kendu egin zidan madarikatuak. Hala da ze, muturra apurtu bazuen –ez dakigu haren berririk–, hainbat hobe. Bost guri!

Jazki biak hartuta –atorra eta galtzak–, ospa egin genuen Ana Luisak eta biok. Bidean ustegabeko oztopoa gurutzatu zitzaigun. Kofradea, yuppi madarikatua, jantziaren bila zetorren zuzenean gureganantz.

–Ama putearen puta hori! –esan zion, sutan.

–Potrozorri kakanarru marikoi halakoa! Ezin diat zakila moztu baina, eutsiok honi!

Ostikada itzela jo zion barrabiletan, hanka luzeaz, erdi erdian. Bertan behera jausi zen, aldi baterako behintzat irenduta.

–Ederra jo dion!

–Gure ofizioan potroekin zerikusia duen guztia jakin beharra diagok. Tai-Kondoa ere.

–Zoritxarrez, ostikada hura ez zen gure arazoen amaiera. Antifazik gabe behingoan ezagutuninduten txakurrek. Aterainoko tartea hiru jausiz eginnuen.Luisak, ezer ere ulertzen ez zuen

arren, orpoz-orpo jarraitu zidan, ukalondokadaka zabaltzen nuen kalerako bidean aurrera.

Ilargia eta zazpi arranusoak genituen han kanpoan. Usategietari ohosturik txilibitoa atera nik eta arrapaladan hasi ginen harmailetan behera biok.

–Arto o disparo! Arto o disparo!

–Atzera begiratu gabe, arin Ana Luisa, arin!

Tiro-hotsa aditu genuen, arranusoek nire txilibitoarena aditu izan bide zuten bezala. Zazpiek jo zuten hegal-kolpea alde batera. Ikaratu egin ziren txakurrak, ez bait zuten hegazti haien berririk artean.

Tiroka hasi zitzaizkien arranusoei, berauen erantzuna mokozbehera erasotzea izan zelarik. Banzai! Banzai! Erronda kalera heltzeko metro parea falta genuela, zaratots itzela entzun genuen. Behingoan, beste bat. Ondoren, birinboloka jausten denaren zaratotsak.

–Arima bat askatu duk. Bestea larri diagok.

Harmailetan beherabirinboloka etorri ziren gorputzakgeure oinetaraino. Txakurrak ziren. Odoletan zuen garondoa batek. Harenak egin zuen. Bestea aldiz, konortea galduta baino ez ze-

goen.Sorgina erebazenAna Luisa. Igarri eginzuenHerio-hotzaharengana etortzen.

–Zubia egingo zionagu horko auto horreri.

Kostaldeko bidean ginen laster, auto «lekuzaldatuaz» hanka egiten. Zazpi zirkuluak zeharkatuz jantzia eskuratu guran hilik bizi zen motordun edo kofradearen txaletearen beheko plaiatxora agertu asmo genuen biok. Nik neuk bestalde, igandea elkarrekin igarotzeko proposamena egin gura nion bihotza lapurtua zidan Ana Luisari, ea aspaldian ukatutakoa lortzen nuen. Azkenean ere speedaren eragina luzatzen zitzaidan, gurin endokrinoetaraino.

Autzagana igarotakoan deuseztatu ziren gure asmoak, ostera. Ertzantzaren astebururako alkohol-araketarako geldiarazita joditu ziren gure ametsak. Geuk ere ondo joditu genituen eurak.

Begirada batean begiak Ana Luisak eta biok, Hilobi Santuko Zaldunen Ordenako jantziaren etorkizuna erabaki genuen elkarri hitzez ezer adierazteko premiarik izan gabe.

Su eman genion jantziari ertzainkien begien aurrean.

Igande goiza zen Autzaganen. Elkarren besartean galdu ginen. Ertzainek beste nonbait putz egin genezan agindu ziguten.

Zeruan gorantz galtzen ari zen jantziari zerion kea, errautsak haize mehe batek barreiatzen zirela.

Ondoren gertatu zirenak, nire gartzelaldia eta beste, lerrook idazteko gogoa sortarazi zidatenak, guzti horiek, beste historia bat dira.

Zirrikituz zirrikituz ibili ondoren, zuloz zulo ibiltzen hasiko zen Antonio Ganboa –batzurentzat Antoito Kanborio, besteentzat Gintonito Kanbodrio– naizen honen oroitzapenen bigarren zatia dirateke guzti horiek.

Orain gogora ekarri gura dudan bakarra jantzia da. Jantzi hura, gure burukomin guztien iturria su hartuta, ertzainen aurrean. Gu, Luisa eta biok, belaunikatuta, elkar besarkatzen. Beste mozoloak, mutu. Han urrean, Oiz, antenez beteta. Urrunago, Iluntzar. Eta mendien lepoan gora zetorren eguzkia hasia zen, ordurako, Laga eta Laida epeltzen.

–Hurrengo baten joango gaituk.

–Bai, erantzun nion.

Oilarren karkara garramaztuak zekartzan goizak.

–Tenemos dos detenidos que no quieren hablar castellano, cambio.

Kresalaren usaina adi zitekeen.

Eranskinak

Hilobi Santuko Ordena Argitsua (Antigualeko-dendako katalogotik)

Katalogo honetan aurkezten dituguneta rik preziagarriena, zalantzarik gabe, Hilobi Santuko Ordenako Zaldun-Jantzia duzue.

Munduan banaka den jazki honen nondik norakoa azaltzearren, hara zenbait liburutatik zuentzat aukeratu ditugun pasarteak.

Liburuok ere ez dira denak eskuragarriak gaur egun. Inork liburuotariko baten bat nahi baleza, Antigualeko-Etxe honek lor lezakela esan behar, nabariak diren zioengatik haiek hemen erakusterik ez badugu ere.

Gurutzaden hastapenak

Gurutzadek izena, beraietan esku hartu zutenek bularraldean zeramaten gurutzeagatik har-

tzen dute. Gurutzadak gizateriaren historian zehar burutu den erlijio-egintzarik garrantzitsuenak dira.

Santa Elenak, Konstantino Enperadore kristautuaren ama gogoangarriak, kristauen aurkako jazarkunde paganoak bukatutakoan, Kristo jaio, hazi, bizi, pasioa jasan eta hil zen lurralde sakratuetan elizak eraiki zitzaten agindu zuen. Harrez gero, asko eta asko izan ziren Leku Santu haietara erromes abiatutakoak; itzulitakoan aldiz, salbatzailearen oinek zapaldu zituzten kale, mendi-bide eta urak pagonoen menpean egoteaz minduraz berba egiten zutelarik mendebaldeko kristozaleen artean.

Aldi berean, turko fedegabeek Europa hartzeko asmoa zuten, horretarako lehen pausotzat aurki Konstantinopla izeneko hiria hartzekotan izanik.

(Turkiar seldjuzidiarrak, zein gogor eta ankerrak izan ohi ziren Sortaldeko kristauekiko!).

Sartaldearen laguntza eskatu beharra izan zuen Mikel Parapinaziok, Byzanzio miresgarri hartako enperadore izan zenak.

Gregorio VII.ak, anaiarreba aldenduak adiskidetu egingo zirelako hitzaren pean, San Pedroren zutoihalaren inguruan bilduta Ekialdera guduan abia zitezen dei egin zien kristandadeko bazter guztietako fededunei.

Dei horren oihartzunetara bildu zen Viktor II.a, Ekialdera jo eta handik gudakin ederraren jabe bihurtu zen errege adoretsua. Alabaina, hura ez zen besterik izan benetako Gurutzaden etorrera iragartzen zuten lehen atabalen hotsa baino. Egiazko intziri, eihagora, negar, su-pinkarda, heriotz-hasperen, lantu, dolu eta erresumina geroago hasiko ziren Sartalde zabaleko biztanleen belarri, begi eta erraiak zulatzen, euretan irristatzen eta bihotzeraino iltzatzen.

Pedro Amienskoa

Pedro Amienskoa, Pedro Padutarra izengoitiaz ezagunagoa, Lehen Gurutzada zuzpertu zutenetarikoa izan zen.

Lurralde Santuetara erromes joan zelarik, Jerusalem hiri sakratuko kristauen sufrikarioen berri zuzena izan zuen.

Errugabe haiekin minean bat eginik, Urbano II.arengana jo zuen, zeinak kupidaturik, Gurutzadaren predikua egin zezantzat baimena eman bait zion. Gudu Santu hori helburu, Italia, Germania eta Galiako lurraldeetan barrena ibili zen, oinez, turkiar fedegabee aurkako gurutzada aldarrikatuz.

Ez eraentzarik, ez soldadu-araurik, ez antzekorik, baina Jainkoa lagun, herritarrek osaturiko hiru aldra abiatu ziren Ekialderantz, Aita Santuak agindurikoaren arabera ihardukitzeak lekarkiekeen indulgentzi osoaren bila.

Asiara heldu aintzin, ordea, txikitua izan zen armada bihoztun hura. Pedro Paduratarraren armadaren garrantzizko zenbait hondakin baino ez zen heldu Konstantinoplara.

Zenbait egun beranduago bideari ekin zion Pedroren armadak. «Laborarien Gurutzada» izena ere eman zitzaion arren, egiatan herritarren es-

pedizioa zen hura. Leinudun zenbait zaldi gainean zihoan, aldraren erdian, menekoen laguntzaz; oinez ordea, armagizon hogeinakoren batzu.

Pariseko kaleetako emakumeak, hornikuntzgurdietan igoten ziren; gizonezko zarpailtsuak, ez jaberik ez legerik zutenak, zaldunen inguruan ziren. Azkenotariko batzu Testolariak ziren, hots, Notre Dameko harmailetan izan ohi ziren eskeko sasi elbarritu haietarikoak. Jendostean baziren sasi monjeak, erestariak eta lapurrak; herri osoa, nahiz alde ona nahiz gaixoa; adulteroak, erahileak, zin-hausleak eta ohoinak; orobat emakumeak eta penitenteak. Guztion artean bazihoan Tahur ere, pikaroen errege zena.

Bidazti orok hain goresten eta jauresten zuten Pedro zihoan guztien buru, Pedro Padutarra; harek zamalkatzen zuen mandoaren ileak gordetzen zituzten jarraitzaileek.

Ileotarik sortatxoa heldu zen Bizkaiko lehen komenturaino, hots, Bermeokoraino, gero sorta hori Izarora eramana izan bazen ere. La Rochelleko hereseek bertako komentua basakeriaz suntsitzean galdu zen errelikia hura.

Jakina da gurutzea hartuta Sortalderantz jotzen zuten gurutzatu guztiak ez zirena abiatzen penitentzia egin eta euren bizimodua santutzearren; zenobita asko klaustroa utzi –Aita Santuaren debekuen kontra– eta bakardadea hautsita ibili ohi ziren lurralde haietarako bidean. Gogora dezagun monja batekin batera harrapatua izan zen hura, bere krimenaren neurriko zigorra jasan behar izan zuena. Kristauek Antiokia inguratuta zeukaten sasoian izan zen.

Gurutzatu artean nagusi den ustelkeria hori gorabehera, usu aurkitzen dira kristautasun exenplu erdiragarriak ere euren artean, eta ez du beste ezerk hobeto zertzen beraien morala, zera ikusteak baino, zelan iragaten ziren bat batean birtutetik pekatura eta bizioen gehiegikerietatik damuaren leuntasunera.

Hala ere Luis Marcilli, Domicilia izeneko putzelari egindako gutunean, kexu da, ze, dio, deabrua poztu egiten da gurutzadetarako predikua entzuteaz:

«gurutzearen erromesaldian aitonalaba garbi asko kortesau bihurtu zelako eta hamaikatxo dontzeilak galtzenzuelako birjintasuna, pailarda bilakaturik».

Debekatu egin zieten Sortaldeko biderik hartzea apezpikuek emakumezkoei; alabaina, XIII. mendeko Coucyren elaberrian argi esaten da ezen,

«Ekialdean zarelarik, errazago ikusiko duzu zure Dama Fayel-ko konterrian baino».

Joinvillek, aldiz, Erregeren kanpatik harrikada bakarraren inguruan ziren emagaldu-etxeetarako haragi-iturritzat jotzen ditu, bai emakume kristauok eta bai Ekialdean bertan gudakin gisa hartutako emakumezko musulmandarrak ere.

Laster sortu zen birtutea pekatuen erdian. Ekialdean gudan ibilitako zaldun-taldetarik batek, Jerusalem berreskuratu ondoren, Salomonen Tenpleko zokondo batetan bizitzen utz zitzaten eskatu zuen. Kristautasunaren alde bizia ematea egin zuten zin, kastitate eta pobretasun-botuekin batera.

Ekialdeko lehen zaldunak ez ziren izan haiek, aitzitik.

Erromes gaisoak zaintzeko sortu zuenSan Gerardo Tenke Probentzarrak Jerusalemgo San Juan Zaldunen Ordena, San Benitoren arauen menpean. Zaldun-Ordena berri guztion ezaugarri nagusia, aintzindarikikoan, kideen gerlarijitea da, ordea.

Rikardok, lehoi bihotza zuen erregek, halaxe aldarrikatzen zuen, «Jainkoak jagon egiten du bere hilobia», ezpata astunaz musulmandarren lepoak atertu gabe mozten hasi aintzin.

Endrikeak

Erret-izenen artean Endrike dugu usuenetarikoa. Jatorriz germaniarra bada ere –lurralde aberatsa esan nahi du bertako hizkuntzaz– laster hedatu zen Mendebalde zabalean eta halaxe ezagutuko ditugu Endrikeak baita Nafarroako Kortean bertan ere.

Endrike guztien artean II.ek izan ohi dute astururik okerrena. Adibidez, Frantziako Endrike bigarrenak –zeinari buruz esaten bait zen ezen aingeru-aurpegia, digante-gorputza eta deabru-

bihotza zuela– hugonoteen aurka gogor eta ankerki ihardun zuen hura, alaba Isabel Espainako erregerekin ezkontzen esku hartu eta Montgomery Kontearekin, Eskoziar Guardiako buruarekin lantza bat apurtzean begian zauritua gertaturik hamabi egunen buruan hil zen. Atsegnen aurkitu zuen Herioren begirada itsua gizaixoak.

Zer esan, bestalde, Portugaleko Endrikeaz, Lehen Gurutzadan esku hartu eta 1099ko uztailaren 15ean Jersualen berreskuratuan ohoretsuki sartu zenaz? Hain ziren handiak haren kemena, ausardia eta adorea, non legendako heroi bihurtu zen Godofredok hainbat errelikia eman zion, anaitasun ezaugarritzat.

Areago, Bragako Giraldo Artzespiku Beneragarriak lagunduta Portugalerantz zetorrelarik, Konstantinoplako Alejo Enperadorek Donebane Ebangeliarraren beso ustelgabea ospatu zion, egun ere Bragako Katedralean denetsia dena bera.

Beste Endrike hura, Santo Tomas Becket-en aurka egin zuena, feudalismoaren suntsitzailea, «Common laiv» haietara makur eraziz Elizaren pribilegioak moztu eta leinudunen eskubideak

kendu zituen errege berbera, Gurutzaden aldekoa ere izan zen, berak sortua bait da Hilobi Santuko Ordena, Enciclopedia Italiana-ko XXV. liburukian irakur daitekela:

...nel 1178, L'Ordine del Santo Sepolcro di Gerusalemna, fondato de Enrico II re d'Inghilterra.

Baina itsasoaz gaindiko guduetan esku hartu zuen penintsulako zaldun kopurua handitu zuena Nafarroako Erresuman XIII. mendean Erregetza eskuratu zuen dinastia da.

Theobaldo I.ak Gregori IX.aren kontseiluei jarraiki oinezko eta zaldizko franko eta sortetxe ezagunetako laurehun zaldun atera zituen Nafarroatik, guztiak ere gertu perilik handienetan sartzeko.

Jarraigo ikusgarri horrekin sartu zen Parisen 1239an; han, Champagne eta Briako bere beste menpekoekin eta beste zenbait erresumatako zaldunekin ere bildurik, Marsellan itsasoratu zen, Sicilian itsasoratu ondoren Asia Txikian giristinoen menean zirenetariko portu baten lehorreratzeko.

Theobaldo Erregerekin itsasoratu ziren tropak baino ez ziren onik heldu Tolemaidara, non kontsolamendu handia ekarri bait zieten Tenpleko zaldunei. Tamalez, horiek Bavierako Rainaldoren buruzagiekin zituzten ezadostasunak estekuru, general horrek uko egin zion sarrazenoei gurutzatu berriekin batera erasotzeari. Hala ere, eta tenpletarren gidaritzapean, kanpainan abiatu ziren, Damaskoko Erregeren eta Egiptoko Soldanaren herri laua suntsituz, Ekialdeko printzipeok elkarrekin haserre zirela profitatuz.

Laster aldiz, Egiptoko Soldanak, Damaskoko Erregeren aurka eratu zuen Armadaz gain, giristinoen aurkako berria eraiki zuen Gaza eta inguruko lurraldea defenditzearren. Alferrik saiatu ziren gurutzatuak Askalona menperatzen. Elkarren bekaizkeriak jota, elkarrekiko lehia antzuan eroriak, mizkerien agindupetara soildu zituzten guduzelaiak.

Halako zereginetan Bretainako Dukeak eta beste zenbait jaunek erdietsiriko ospe eta ondasunek erakutsi bideari jarraitzea eragin zieten Nafarroako Erregeri eta Borgoinako Dukeari, zenbait buruzagirekin batera. Tenpleko zaldunen

aholkuei ez-entzuna eginez, Gaza eta horko hurbileko inguruak suntsitu zituzten.

Arrakastaz horditurik, Gazari ere eraso asmoz arrapaladan ekin zioten bideari, ezta gauez ere atsedenik hartu gabe, oinek zapaltzen zuten lurraldea ezagutu gabe. Egunsentian areatza eta zingira sakonetan sartuta ikusi zituzten bere buruak, halako moduan non ezinezkoa bait zen, hala zaldirik maneiatzea nola armada lekuz aldatzea; egoera larriagotu egin zen, Gazako eraentzariak, nor militar handia bait zen, atzera egiterik ezinezko bilakarazi zielarik, ihesbidea bera ere moztu zienean.

Estualdi hartan, elikadura ezak larriagotua gainera, egun osoa eman zuten, gaua eta guzti; egin zieten Soldenaren tropek, berauei laguntzera etorririko egiptziarrarekin batera. Goseak, loezak eta akidurak ezertarako gai ez zirelarik utzi zituztenean giristianoak.

Gatazkan adore haundia erakutsi arren, porrokatuak izan ziren, hilik gertatu ez ziren bakarrak Theobaldo eta Borgoinako Dukea izanik.

Zakur amorratuen gisa, deslaian, gau eta egun bitan errakor ibili ondoren, Jafara heldu

ziren. Han jakinaren gainean jarri zituzten giristianoak, zeintzuk Tolemaidara jo zuten berehala.

Tenpleko zaldunak haserratu egin ziren jarrera burugabe hori dela eta. Errezelu handia sortu zen, aldiz, nafarrak eta gainerako zaldunak Europara itzultzeaz mintzatzen hasi zirenean.

Azkenean, tenpletarrak Damaskoko Soldanarekin itandu ziren, bien etsaia zen Egiptokoaren aurka egitearren.

Theobaldo Hilobi Santuraino joan zen erromes 1242ko udazkenean. Tenpletarrekin etsai ziren Ordenetako zaldunez inguratuta. Hilobiko aurrean zelarik, eraso egin zioten gure errege poetari. Arabiarrek erabili ohi duten ganibet ahobihurri horietariko bat eskuin-eskuan hartuta, hilobiko atalburutik katamotza baino malguagoa jauzi ikaragarria egin zuen, Theobaldo hil asmoz. Sarrazenoa airean zetorkiolarik, Hilobi Santuko Ordenako Zaldunetariko batek bere gorputza tartekatu zuen Theobaldo eta paganoaren ganibetaren artean; halako suertez non zaldunaren ezpatak gaizkilearen erraiak alderik alde zeharkatzen zelarik haren burdina gaiztoak kristauaren bihotzaz zati bi egin bait ziuen.

Reger zeritzola eta bere ordenakideen gotorlekuko paretaren baten ehortzi zutela, besterik ez dakigu zaldunari buruz.

Jantzia nola eskuratu dugun berriz, rokanboleskoa da.

Pentsalari ezagun bati –isildu egiten dugu izena, noski Erresuma Sionista Modernoko Gobernuaren Zerbitzu Sekretuekin batera Palestinar borrokalariez osalturiko talde armatua atxilotzen eta hiltzen laguntzearren eman zioten. Berak esan zigunez, Jerusalemgo murrua berrizten edo agirira ateratzearren burutzen diren lan arruntak zirela medio, Errigoitiko Santu Baltzaren berdintsua aurkitu zuten Ziudade Sakratuan, hots, ustelgabeko gorpua, jantzi eta guzti.

Guzti horren jakituan izan zelarik pentsalari euskalduna, Reger zaldunarenak ote ziren jantzia eta gorpua, hori ikertzeari ekin zion. Gure herkidearentzat jantziak zuen bihotz-balioaz eta, bestalde, sekulako mesede galanta egina zielako, oparitzat eman zioten jantzia.

Bularraldean duenapurturak baiezten du jantziaren jatorria, zulotxo horretatik bihotzeratu bait zioten aiztoa Theobaldoren salbatzaileari.

Pentsalariak antigualeko-denda honi eskaini zion jantzia. Hartu genion, noski. Bere balioa estura barik preziatuko duen jakintsuaren zai dago jantzia. Ez dugu presarik; zenbat urte dituen eta zenbat gertaera biltzen diren bere inguruan, guzti horren aruera balio bait du. Zeure eskuetan uzten dugu... erabakia.